



EUSKARAREN  
INGURUKO ADOSTASUN  
SOZIAL BERRIETARAKO  
AZTERKETA  
SOZIOLINGUISTIKOA  
NAFARROAN

XABIER ERIZE



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra



Ayuntamiento de  
Pamplona  
Iruñeko Udala



EUSKO  
IKASKUNTZA  
Asmoz ta Jakitez



**Egilea:** Xabier Erize

**Data:** 2018ko iraila

**Tokia:** Iruña

**Argitaratzailea:** Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra

**Disenua eta maketazioa:** Koldo Aiestaran eta Siscu Simón



# Euskararen inguruko adostasun sozial berrietarako azterketa soziolinguistikoa Nafarroan

## *Emaitzen eta analisiaren txostena*

### **Txostenaren egilea eta ikerketaren zuzendaria:**

- Xabier Erize<sup>1</sup>

### **Erakunde sustatzaileak:**

- Iruñeko Udala/Ayuntamiento de Pamplona
- Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra
- Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos

### **Finantzatu duten erakundeak:**

- Iruñeko Udala/Ayuntamiento de Pamplona
- Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

### **Lantaldea:**

- Mikel Arregi
- Iñaki Azkona
- Miren Epalza
- Xabier Erize
- Josune Etxaniz
- Koro Muro
- Maitena Muruzabal

### **Talde-dinamiken moderatzaile adituak:**

- Asier Barandiaran
- Josune Etxaniz
- Carlos Vilches

**1** Xabier Erize: soziolinguista, Filologian doktorea, euskaltzain urgazlea, Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos elkarteko kidea.



# Aurkibidea

|  |    |
|--|----|
| <b>ESKER ONAK</b> .....  | 9  |
| <b>LABURPENA</b> .....   | 11 |
| <b>1. SARRERA</b> .....  | 13 |
| <b>1.1</b> Aurkezpena .....  | 14 |
| <b>1.2</b> Hiru kontzeptu: Bidezko interesa duten alderdiekiko elkarrizketa<br>( <i>Stakeholder engagement</i> ) Diskurtsoa, eta Erresonantzia ..... | 16 |
| <b>1.3</b> Ikertutako arazoa eta gizartean duen garrantzia .....   | 19 |
| <b>1.4</b> Testuinguru soziala .....   | 20 |
| <b>1.5</b> Gaiari buruzko aurrekariak ikerketa soziolinguistikoan .....  | 30 |
| <b>1.6</b> Helburuak .....   | 31 |
| <b>1.7</b> Hipotesia .....   | 31 |
| <b>1.8</b> Parte-hartzaileak eta metodologia .....   | 31 |
| <b>2. ANALISIAREN EMAITZAK</b> .....   | 37 |
| <b>2.1</b> Askotariko bizipen pertsonalak euskararen inguruan .....  | 39 |
| <b>2.2</b> Euskara sustatzeko oinarritzko adostasunak .....  | 42 |
| <b>2.3</b> Desberdinen arteko horrelako elkarguneekin segitzeko gogoa .....  | 50 |
| <b>2.4</b> Oinarritzko desadostasunak, eta hurbiltzeko aukerak .....   | 50 |
| <b>3. IKERKETAREN ONDORIOAK ETA AURRERA BEGIRAKO EZTABAIDA</b> .....   | 61 |
| <b>3.1</b> Helburuen eta hipotesiaren betetze maila .....  | 63 |
| <b>3.2</b> “Sustapena + borondatezkotasuna” adostasuna, bi ardatz kontzeptualetan kokatuta .....   | 64 |
| <b>3.3</b> Ikerketaren emaitzen eta analisisen interpretazioa eta orokortzea .....   | 65 |
| <b>3.4</b> Euskarari buruzko diskurtsoak .....   | 66 |
| <b>3.5</b> Ikerketaren erabilera praktikoa hizkuntza eragileentzat .....   | 69 |
| <b>3.6</b> Etorrizuneko ikerketei buruz .....  | 72 |
| <b>4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK</b> .....  | 75 |
| <b>5. ERANSKINA</b> .....  | 85 |
| <b>1. eranskina.</b> Parte-hartzaileen azken balorazio anonimoak .....   | 87 |







## Esker onak

- Ikerketan<sup>2</sup> parte hartu duten 24 lagunei, proiektuaren benetako protagonistak diren horiei, haien ekarpenengatik, ikerketa honen erdigunea izan baitira, eta haien ahalegin eta konpromisoarengatik: Sagrario Aleman, Ana Aliende, Maider Beloki, Edurne Egino, Aingeru Epaltza, Maite Esporrín, Román Felones, Nerea Fillat, Coro Gainza, Itziar Gomez, Rosa Goñi, Fernando Hernández, Maite Inda, Iñaki Iriarte, Jesús Iribarren, Miguel Izu, Alberto Labarga, María Mar Larraza, Enrique Maya, Grego Navarro, Jesús M<sup>a</sup> Osés, José M<sup>a</sup> Zabala, Xabier Zabaltza eta Amaia Zubieta.
- Proiektua sustatu duten erakundeei: Iruñeko Udala, Nafarroako Gobernua eta Eusko Ikaskuntza.
- Proiektua finantzatu duten erakundeei: Iruñeko Udala eta Nafarroako Gobernua.
- Joseba Asironi, Iruñeko alkateari, eta Mikel Arregiri, Euskarabideko zuzendari kudeatzaileari, proiektuko saio plenarioetan egindako aurkezpen instituzionalengatik.
- Iñaki Azkonari eta Carlos Vilchesi, hasieratik proiektuko fase guztietan lagundu eta parte hartzeagatik eta ekarpen aberasgarriak egiteagatik.
- Mikel Arregi, Iñaki Azkona, Miren Epalza, Josune Etxaniz, Koro Muro eta Maitena Muruzabali (proiektuko lantaldeko kideak), haien ezinbesteko lanarengatik.
- Asier Barandiaran, Josune Etxaniz eta Carlos Vilchesi, talde-dinamiketako moderatzaile adituei, haien lana funtsezkoa izan baita.
- Amaia De Estebani, Iruñeko Udaleko protokolo arduradunari, funtsezkoa izan baita saioen antolaketa bikainerako.
- Víctor Aierdi, Eugenia Anzizu, Jesús Chocarro, Margarita Echauri, María Pilar Marín eta María José Pérez Jarauta adituei, egindako ekarpen kualifikatuengatik.
- Víctor Aierdi, Jon Arrizabalaga, Iñaki Azkona, Margarita Ezkieta, María Pilar Marín eta Carlos Vilchesi, txosten honen aurreko bertsio baten irakurketa eta zuzenketa arretatsua egiteagatik. Baita Mikel Arregiri eta Roldan Jimenori ere.
- Iruñeko Udaleko eta Nafarroako Gobernuo teknikariei, itzultzaileei eta proiektuan zehar laguntza eman duten guztiei.

<sup>2</sup> *Ikerketa* eta *azterketa* terminoak esanahi orokor beretsuan erabili dira lan honetan.





# Laburpena

Nafarroan maila dezenteko eztabaida sozialaren arazoa gertatzen da euskarari buruzko hizkuntza politiken inguruan, eta eztabaida horrek konpondu gabe iraun du denboran zehar.

Gai honi heltzeko, ikerketa soziolinguistiko bat burutu da. Lanaren helburu orokorra nafar gizarteko euskarari buruzko adostasun eta desadostasunen oinarri diskurtsiboak argitzea izan da. Horri lotuta, helburu espezifikoak bi izan dira: (i) Nafarroako herritarrek euskararen inguruan dituzten askotariko nahiei eta beharrei erantzuteko gai izanen diren adostasun berrien proposamenak identifikatzea, eta (ii) euskarari buruzko oinarritzko desadostasunak eta hurbiltzeko aukerak identifikatzea.

Euskarari buruzko nahiak eta beharrak handiak edo oso handiak izaten ahal dira batzuegan eta urriak edo hutsalak besteengan, eta lortutako adostasunek bi multzoetako kideen oniritzia lortu behar lukete. Garrantzi sozial handiko gai bati buruzko ekimen berritzailea eta desberdina izan da.

Metodologia adituen talde-dinamikekin egindako ikerketa soziolinguistiko kualitatibo bati dagokiona izan da, eta diskurtsoen analisiarekin eta inkesta soziolinguistikoen ustiakekin konbinatu da.

Gizartean erreferenteak diren 24 lagunek hartu dute parte, eta askotariko lagina osatzen dute, Nafarroako gizartean dauden profil soziolinguistiko (euskaldunak eta euskaraz hitz egiten ez dutenak; euskaratik hurbileko edo urruneko bizipenak dituztenak) eta sentsibilitate soziopolitiko desberdinetako *egiturazko* adierazgarritasuna baitute, ez soilik euskaratik hurbileko sektoreena; horrela, lan hau gizarte osoaren ahalik eta islarik leialena izanen da eta ez segmentu jakin batena soilik.

Hiru kontzeptu daude, ikerketa zeharkatu duten eta haien artean elkarlotuta daudenak: bidezko interesa duten alderdiekiko elkarriketa (*stakeholder engagement*), diskurtsoa, eta erresonantzia.


Lortutako emaitza nagusiaren arabera, parte-hartzaileek euskarari buruzko adostasuna lortu dute oinarritzko puntu batzuetan. Honela laburbiltzen ahal dira: (i) erdaldunen eta euskal hiztunen arteko errespetua, “bi hizkuntzak gureak baitira”; (ii) partekatutako hizkuntza balioen esparrua: euskara babestea eta sustatzea borondatez; eta (iii) proiektuaren beraren balorazio oso positiboa, desberdinen arteko elkarriketarako eta bat etortzerako metodologiari esker, eta etorkizunean jarraitzeko nahia.

Helburuaren eta hipotesiaren betetze maila oso handia izan da.

Azterketa honek ondorio sozialak eta baliagarritasuna izaten ahal ditu Nafarroan eta beste komunitateetan, eragileentzat (Administrazio publikoak, oposizioa, gizarte erakundeak, norbanakoak), erresonantzia sozial berri eta zabalak eragiteko gai diren euskarari buruzko etorkizuneko hizkuntza politikak diseinatzeko.

## *Gako-hitzak*

Euskara, soziolinguistika, Nafarroa, hizkuntza adostasunak, hizkuntza politika.





# 1. SARRERA







# 1. Sarrera

## 1.1 Aurkezpena

Nafarroan maila dezenteko eztabaida sozialaren arazoa gertatzen da euskarari buruzko hizkuntza politiken inguruan, eta eztabaida horrek konpondu gabe iraun du denboran zehar (ikus “1.3 Aztertutako arazoa eta gizaratean duen garrantzia” atala).

Gai honi eta bere balizko irtenbideei heltzeko, ikerketa soziolinguistikoko bat<sup>3</sup> burutu da<sup>4</sup>. Lanaren helburu orokorra nafar gizarateko euskarari buruzko adostasun eta desadostasunen oinarri diskurtsiboak argitzea izan da; eta, horri lotuta, bi helburu espezifiko izan ditu: (i) Nafarroako herritarrek euskararen inguruan dituzten askotariko nahiei eta beharrei erantzuteko gai izanen diren adostasun berrien<sup>5</sup> proposamenak identifikatzea, eta (ii) euskarari buruzko oinarriko desadostasunak eta hurbiltzeko aukerak identifikatzea.

*Nahi eta behar* terminoekin, pertsonen alderdi emozionala zein arrazionala jaso nahi izan dira hizkuntzari dagokionez. Jakina, euskarari buruzko nahiak eta beharrak handiak edo oso handiak izaten ahal dira batzuegan eta urriak edo hutsalak besteengan, eta lortutako adostasunek bi alderdien oniritzia lortu beharko lukete.

Garrantzitsua da azpimarratzea proiektu honetan espresuki planteatu dela *pertsonen* eta haien hizkuntzei buruzko nahiei eta beharrei buruz hitz egitea, eta *ez hizkuntzei* buruz abstraktuki hitz egitea, “euskararen beharrak” edo “gaztelaniaren beharrak” aipatuz, nahiz eta hori egin ohi den hizkuntzei buruzko eztabaidetan. Hau da, planteamendua ez da izan hizkuntzari hizkuntza tresna edo sistema gisa erreparatzea eta beharrak edo eskubideak egozte, baizik eta pertsonen eta haiek gizaratean hizkuntzaz egiten duten benetako erabilerari erreparatzea, haien ondorio sozialak, kulturalak, politikoak eta emozionalak aintzat hartuta, Jan Blommaert (2015, 8. or.) soziolinguistak adierazten duen moduan.

Parte-hartzaileak gizaratean askotariko erreferenteak diren 24 lagun izan dira, Nafarroan publikoki oso ezagunak direnak eta hizkuntza, ideologia eta politika profil guztietakoak direnak, ez euskaratik hurbileneko sektoreetakoak soilik; horrela, lan hau gizarate osoaren isla ahalik eta leialena izanen da eta ez segmentu jakin batena bakarrik. Aniztasun horregatik, euskarari buruzko lanetan ez da ohiko ikuspegia izaten, baina, ikerketa honetan oso emankorra izan da.

Metodologia adituen talde-dinamikekin egindako ikerketa soziolinguistikoko kualitatibo bati dagokiona izan da, eta diskurtsoen analisiarekin eta inkesta soziolinguistikoen ustiakearekin konbinatu da.

Arreta berezia jarri da parte-hartzaileei ikerketaren fruitu nagusiak *itzultzeko* nahian, proiektuaren fase bakoitzean, itzulketa prozesu antolatuen bitartez. Alegia, ikerketa, oro har, parte-hartzaileek zeregin aktiboa duten eta haiekin partekatzen den prozesu bat bezala ikusten da; eta ez haien ekarpenez jabetze huts bat bezala aztertzailearen aldetik.

Ikerketa ekimen berritzaile eta asmo handikoa izan da, bai Nafarroako hizkuntza politiken alorrean, bai euskararen ikerketa soziolinguistikokoaren alorrean, honako

- 3 Ikerketa honen eta bere talde-dinamiken hasierako izena “Euskarari buruzko Iruñeko foro askotarikoa” izan da, Iruñean bi egunetan bilduta: 2017ko apirilaren 28an eta maiatzaren 19an.
- 4 Xabier Erizeren oharra: Txosten hau idaztean, betiere estilo argi eta naturala erabili nahian, batzuetan subjektu inpersonala erabili dut eta beste batzuetan deskribatutako ekintzari dagokion subjektu erreala. Salbuespena gu edo ni erabiltzean egin dut. Proiektua taldean egindako lana izan denez, gu erabiltzen dut subjektutzat, baina argi dago deskribatutako ekintza edo material asko taldeko kide batek edo besteak egindakoak izan direla eta askotan nik neuk, proiektuko zuzendaria izanik. Gai honetan eta beste batzuetan, idazketan behar bezala asmatu izana espero dut.
- 5 “Adostasun berriak”: aurrez existitzen ez zirelako, edo egungo eztabaiden harira zentzu berria hartzen dutelako.



arrazoi hauengatik: (i) desberdinen arteko elkarguneen aurrekarien faltarengatik, (ii) ikertutako arazoak eta erakunde sustatzaileek duten garrantzi sozialarengatik, (iii) parte-hartzaileen ezaugarriengatik, (iv) metodologia eta prozesuarengatik, (v) lortutako emaitzengatik, eta (vi) etorkizunean izaten ahal dituen inplikazio sozial eta hizkuntza politikakoengatik.

Iruñeko Udalak, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Ikaskuntzak bultzatu dute egitasmoa; Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak finantzatu dute, eta Xabier Erize soziolinguista nafarrak zuzendu du.

Parte-hartzaileek adierazitako hiru ideia hauek laburbiltzen ahal dituzte ikerketaren emaitzak:

- “Erdal eta euskal hiztunen arteko errespetua, bi hizkuntzak gureak baitira; eta euskara babestea eta sustatzea<sup>6</sup>”.  
(Ideia horrek proiektuan bertan sortutako euskarari buruzko diskurtso berri eta partekatua laburbiltzen du eta, itxuraz xumea lirudikeen arren, ez dago aurreko azterketetan dokumentatuta, eta bide informalekoetan ere ez. Ikus 2.2 eta 3.4 atalak).
- Oso esperientzia interesgarria eta aberasgarria: “Zorionak eta mila esker egindako lanarengatik. Oso esperientzia interesgarria eta aberatsa izan da”. “Gustatu zait nirearen desberdinak diren planteamenduak ezagutzea; gozatu egin dut eta harritu egin naiz. Pentsatzen dut esperientzia pertsonal positibo hau modu batera edo bestera nire ingurunera hedatuko dela” [gaztelaniaz jatorrizkoa<sup>7</sup>].
- “Jarraipena eman behar zaio” proiektuari: “Foroak<sup>8</sup> jarraitu behar du. Hurrengo pausoak finkatzeko eta adosteko”. “Anima zaitezte gaiarekin jarraitzera”. “Interesgarria da foro gehiago antolatzea elkarrizketa bideratzeko, bateratze-lana egiteko, norberaren ikuspuntuak ezagutarazteko eta atera diren neurri zehatzagoen harira aurrera egiten jarraitzeko, nahiz eta hasiera batean denak ados ez egon” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Halaber, komeni da aipatzea parte-hartzaileek, beren izenean parte hartu dutenez, adostasunen edo “taldeko diskurtsoaren” (Ibáñez, 1992, 343. or.)<sup>9</sup> bilaketan ez dutela inolako konpromisorik edo adostasun loteslerik hartu, ez beste partaideekiko ez gizartearekiko (ikus “1.8.2 Metodologia” atala).

Esperientzia oso positiboa izan da, bai ikerketa berarengatik, bai parte-hartzaileek egindako balorazioarengatik. Nagusitu den giroa errespetuzkoa eta adostasunak bilatu eta lortzekoa izan da, egoten ahal diren desadostasunak saihestu gabe. Alderantziz esanda, proiektuan ez da nabarmendu gizartean hain zabaldua dagoen “Nafarroan euskarari buruz dagoen maila handiko istilu soziala dela-eta, ia ezinezkoa da adostasunak lortzea” dioen ideia hori.

## 1.2 Hiru kontzeptu: Bidezko interesa duten alderdiekiko elkarrizketa (*Stakeholder engagement*), Diskurtsoa, eta Erresonantzia

Hiru kontzeptu esanguratsuk zeharkatzen dute ikerketa hau eta elkarri lotuta daude: *bidezko interesa duten alderdiekiko elkarrizketa, diskurtsoa, eta erresonantzia*.

6 Sustapen (*fomento*) kontzeptua lan honetako atal guztietan ageri da eta esanahiak, oso intuitiboa izateaz gain eta euskarari buruzko lege hizkuntzan jasota egoteaz gain, *Diccionario de la Lengua Española* hiztegiaren jasotako bi adieren antza du: “2. Auxilio, protección. 3. Der. Acción de la Administración consistente en promover, normalmente mediante incentivos económicos o fiscales, que los particulares realicen por sí mismos actividades consideradas de utilidad general. *Plan de fomento del turismo rural*”. (2017-11-26an online kontsultatua). Hala, adibidez, “euskara sustatzeko plana” (“*plan de fomento del euskera*”) aipatu ahal izanen litzateke. *Oztopatzea (obstaculización)* izaten ahal da sustapen (*fomento*) terminoaren antonimoa.

7 Parte-hartzaileen hitzez-hitzeko aipuak euskaraz ematen dira testu honetan, baina aipuen jatorrizko hizkuntza informazio esanguratsua da, eduki berak konnotazio desberdinak edukitzen ahal dituelako euskaraz hitz egin duen batek esan badu edo erdaraz hitz egiten duen beste batek, edo euskaraz esan bada edo gaztelaniaz esan bada. Horregatik, hitzen jatorrizko hizkuntza gaztelania denean argitu egingo da testuan.

8 Gogoan izan behar da proiektuaren lehen izena “Euskarari buruzko Iruñeko Foro askotarikoa” izan zela, eta horrela ezagutu zutela parte-hartzaileek hasieran.

9 *Adostasuna*, Jesús Ibáñez (1992, 339. or.) soziologoaren arabera, “denek onartzen dutena” da. Esanahi hori *Diccionario de la Lengua Española (DLE)* hiztegiak ematen duenaren oso antzekoa da: “Acuerdo producido por consentimiento entre todos los miembros de un grupo o entre varios grupos” (2017-11-03an kontsultatua). Antonimotzat, *desadostasuna (disenso)* terminoa erabiltzen dugu, eta, Jesús Ibáñezek erabiltako hitzekin paralelismoa eginez, “denek onartzen ez dutena” da.

Lanaren emaitzak aztertzean, honako hau da kontu nagusietako bat: bereiztea zer gairi buruz egon den adostasuna eta talde diskurtso bat eta zer gairi buruz ez den adostasunik egon, beste azterketa kualitatibo batzuetan gertatzen den moduan. Batzuetan, bereizketa nabarmena da parte-hartzaileek hala adierazten zutelako, baina, beste batzuetan, ez da hain argia eta ikertzaileak zeharkako seinaleetan oinarritu behar izaten du, hala nola testuinguruan eta bere analisisan edo senean.





### 1.2.1 BIDEZKO INTERESA DUTEN ALDERDIEKIKO ELKARRIZKETA (*STAKEHOLDER ENGAGEMENT*) KONTZEPTUA

*Bidezko interesa duten alderdiekiko elkarrizketa (stakeholder engagement* ingelesez) kontzeptuak esan nahi du erakunde batek (edo proiektu sozial batek), bere estrategiak arrakastaz garatu eta bere helburuak lortu ahal izateko, elkarrizketa eta elkarlana garatu behar dituela berari buruz bidezko interesa duten alde desberdinekin, haiekin lerrokatu eta haien espektatiba desberdinei erantzun egokia emanda (Freeman, 2010; Global Reporting Initiative, 2015). Kontuan izan behar da, gainera, alderdi desberdin horien espektatibak elkarrengandik urrunak izan daitezkeela.

Erakunde batean bidezko interesa duten alderdiak erakunde horren jardueren ondorioak (onuragarriak, neutroak, kaltegarriak...) jaso dezaketen entitate eta pertsonak dira. Alderdi horiek, bestalde, haien ekintzen eta pisu sozialaren bidez, delako erakundearen jarduerak arrakastaz garatzeko ahalmenean eragin dezakete, onerako zein kalterako. Organizazioari komeniko litzaioke elkarrizketa eta elkarlan bideak irekita edukitzea bidezko interesa duten entitate eta pertsona horiekin. Erakunde batean bidezko interesa duten alderdiak hauek izan daitezke, adibidez: erakundeak zerbitzatzen dituen herritarrak, bezeroak, langileak, zuzendaritza taldea, jabeak, hornitzaileak, Administrazio publikoak, lehiakideak, sindikatuak, gizarte erakundeak, edo gizartea oro har. Arrakasta izan nahi duen organizazio edo proiektu batek bere alderdi interesatu guztien espektatibak kontuan hartu behar ditu, ez batzuenak bakarrik, ez, adibidez, jabeen espektatibak bakarrik, edo ez langileenak bakarrik (ikus 1.4.4 atala).

Kontzeptu hau enpresa mundutik dator, baina apurka-apurka erakunde mota askotara hedatu da, hala nola Administrazio publikoetara (Cueto eta De la Cuesta, 2017) edo gizarte erakunde edota gobernuz kanpoko erakundeetara (Global Reporting Initiative, 2011). Horregatik, hedaturaz, hizkuntza plangintzan eta, zehazkiago, euskararen hizkuntza plangintzan ere erabil liteke.

Euskararen hizkuntza plangintzaren kasuan, bidezko interesa duten alderdiak haren jardueren ondorioak jaso dezaketen entitate eta pertsonak lirateke, gogoan hartuta entitate edo pertsona horiek, haien ekintzen eta aldeko edo kontrako pisu sozialaren bidez, hizkuntza plangintzako erakundearen jarduerak arrakastaz garatzeko ahalmenean eragin dezaketela, onerako zein kalterako. Euskararen hizkuntza plangintzan bidezko interesa duten alderdiak, adibidez, hauek izan litezke: herritarrak, euskal eta erdal hiztun komunitateak, gizarte erakundeak, gizartea oro har, langileak (gaur egungoak zein potentzialak), herri Administrazioak, indar politikoak, sektore pribatua edo kontsumitzaileak, nor bere bidezko interes eta espektatiba ez beti berdinak.

Honen guztiaren arabera, erraz ulertzen da lan honen helburuetako bat “Nafarroako herritarrek euskarari buruz dituzten nahi eta behar askotarikoei erantzuteko adostasun berrien proposamenak identifikatzea” dela esaten denean, oinarrian “bidezko interesa duten alderdiekiko elkarrizketa” kontzeptuaren gauzatze praktikoa dagoela.

### 1.2.2 DISKURTSO KONTZEPTUA ETA BERE FUNTZIO SOZIALA

*Diskurtso* kontzeptua adiera zabal batean erabili da lan honetan, Norman Fairclough-i jarraikiz (2003, 124. or.): mundua irudikatze eta baloratzeko modu bat da. Halaber, Teun A. van Dijk-ek (2000a, 23. or.) dioen bezala, diskurtsoaren



kontzeptuak oinarritzko hiru alderdi biltzen ditu: (a) testua: hitzaren erabilera; (b) uste, iritzi edo ideologiaren komunikazioa (kognizio soziala); eta (c) interakzio soziala. Mundua irudikatze eta baloratzeko moduak izendatzeko, diskurtsoaz gain, gizarte zientzien literaturan, badira beste kontzeptu batzuk ere: *markoa (frame)*, *ideologia linguistikoak*, *motiboak*, *jarrerak*, *mentalitateak* eta, oro har, *alderdi subjektiboak*. Jatorrian esanahi tekniko propioa izan arren, batzuetan, elkarren artean hurbilekoak diren kontzeptuak dira<sup>10</sup>.

Ideologikoki polarizatutako diskurtso askok eta askok *gu* eta *haiak* arteko bereizketa dute ezaugarri komuntzat, “norberaren aurkezpen positiboa” eta “bestearen aurkezpen negatiboa” egitearekin batera (van Dijk, 2000b, 59-61. or.).

Diskurtsoen bitartez, igorleek eragin praktikoa bilatzen dute interakzio sozialean. Pierre Bourdieu-k diskurtsoaren eraginkortasun “performatiboa” deitu zion horri: “bere hitzari ikuspegi berri bat eta mundu sozialaren banaketa berri bat inposatzeko ahalmena aitor dakiola lortzea” (Bourdieu, 1985, 90. or.).

Orobat, garrantzitsua da ulertzea funtsean diskurtsoen edo ideologiaren zeregina ez dela egia edo errealitatea egiazki islatzea, baizik eta errealitateari buruzko sinesmenak gidatzea: “Ideologiaren baliagarritasunaren irizpidea ez da egia, eraginkortasun soziala baizik. ... Egiazkoak nahiz faltsuak izan, ideologiek kontrolatzen dituzte taldeen ustez benetako sinesmenak izan ohi direnak” (van Dijk, 2000b, 55. or.). Gertakarien egia eta marko mentalak edo sinesmenak bat etortzen ez direnean, sinesmenak gailenduko dira jendearengan eta ez gertakariak, George Lakoff-ek (2007, 39. eta 63. or.) nabarmendu duenez: “Jendeak markoen bitartez pentsatzen du. Egiak jendearen markoetan sartu beharra du onartua izan bada. Gertakariak marko jakin batean sartzen ez badira, markoa mantendu egingen da eta gertakariak errebotatu egingen dute, ... gertakariak alde batera utziko dira eta markoak funtzionatzen jarraituko du”<sup>11</sup>. Horrek guztiak diskurtsoek duten garrantzia soziala erakusten du.

Oro har, Allan Bell-ek dioen bezala, “diskurtsoei buruzko lanak asko lagundu du hizkuntza gizartean ulertzen” (2017, 591. or.)<sup>12</sup>.

Hala, ikerketa honetan Nafarroako “hizkuntzei buruzko diskurtsoez” hitz egiten denean, azken batean, talde edo pertsona igorleek hizkuntzak (euskara, gaztelania...) eta hiztunak (Bell, 2014) irudikatze eta baloratzeko dituzten moduei buruz ari gara, bakoitzari dagozkion ondorio sozialekin.

### 1.2.3 ERRESONANTZIA KONTZEPTUA

Lan honetan, *erresonantzia* kontzeptua bat dator David Snow eta Robert Benford-en (1988) tesiarekin: kausa edo mugimendu sozial batek arrakasta lortzen du mugimenduak igortzen duen diskurtsoa edo markoa (balioak, ideiak, sinesmenak, ekintzak) herritarren motibo subjektiboekin (interesak, balioak, sinesmenak) norabide berean lerrotatzen bada eta bien artean erresonantzia berri bat, bibrazioen nolabaiteko bat etortze zabaldua, sortzen bada. Kausa sozial baten diskurtsoak edo markoak arrakasta badu eta herritarren artean erresonantzia berriak lortzen baditu, adostasun berriak zabaltzen dira eta horiek bultzatzen dituen mugimenduak bere aldeko jarraitzaileak aktibatu, zalantziatik erakarri eta aurkariak desmobilizatu egiten ditu.

<sup>10</sup> Gizarte zientzien literaturan maiz eztabaidatu da diskurtsoaren analisiari buruz, baina ez da lan honen helburua halako eztabaidetan murgiltzea.

<sup>11</sup> Lagunarteko hizkeran, gauza bera adierazi zuen Einstein-ek: “Errazagoa da atomo bat desintegratzea alde aurretik pentsatutako ideia bat baino” (Julio Llamazares-ek, 2015, 3. or., parafraseatutako Einstein-en esaldia). Ikus López Burniol (2017) ere.

<sup>12</sup> Honelako hitzez hitzeko aipamenak eta beste hizkuntzetatik ekarritakoak Xabier Erizek lan honetarako itzulitakoak dira, besterik adierazten ez bada.

Kontrakoa gertatzen bada, kausaren eta herritarren artean erresonantziarik edo bat etortze nabarmenik sortzen ez bada, nekez lortuko du arrakasta edo, lortzekotan, segmentu jakinetan bakarrik.

Orain arte azaldutako hiru kontzeptuak lotuz, euskara babestu eta sustatzeko kausa sozialaren erronka hau izango litzateke: elkarrizketa eta elkarlana garatzea bidezko interesa duten alderdiekin, eta, herritarrekin norabide berean lerrokatuta, erresonantzia eta adostasun berriak lortzen ahal dituzten diskurtsoak edo markoak igortzea (ikus “3 Ondorioak eta aurrera begirako eztabaida” atala).

13 Nafarroa (= Nafarroako Foru Erkidegoa) 1978ko Espainiako Konstituzioaren babespean Estatuaren lurralde antolaketa osatzen duten 17 autonomia-erkidegoetako bat da. Hizkuntza bat baino gehiagoko koofizialtasuneko erregimen linguistikoa duten erkidegoetako bat ere bada. 2017ko urtarrilaren leian 642.797 biztanle zituen (online iturria: [https://www.navarra.es/home\\_es/Navarra/Asi+es+Navarra/Navarra+en+cifras/Demografia/poblacion.htm](https://www.navarra.es/home_es/Navarra/Asi+es+Navarra/Navarra+en+cifras/Demografia/poblacion.htm)).

14 *Adostasunaren edo gatazkaren* arteko aukera izan ohi da adituek errealitateak eta hizkuntza politikak aztertzeko baliatutako ikuspuntuak markatzen dituen irizpideetako bat: aditu batzuek adostasun noziotik hurbileko ikuspegietatik hurbiltzen dira gaira; beste batzuk, aldiz, gatazka noziotik hurbilago ikuspegietatik. Gaiaren hurbilketa egiteko, besteak beste, hauek ikusten ahal dira: Cagiao eta Conde, eta Jiménez-Salcedo (2015); edo Vila (2017). Txosten honen helburua ez da gizarte zientzietan gai horiei buruz dituzten eztabaida orokorretan sartzea; jakina denez, eztabaida horiek ez dira berriak.

Makiavelok (1513/1983, 78. or.), esate baterako, *Printzea* idazlan klasikoan, jada, dilema hau planteatzen zuen: “ea [Printzearentzat] hobea den maitatua izatea beldurra eragitea baino, ala alderantziz”. Makiaveloren dilemarekin paralelismoa eginez, gaur egun “Printzea” edozein botere, botere izangari edo eragina izan nahi duen edozein gizarte mugimendu izaten ahal da; eta “maitatua izatea” “adostasun”tzat jotzen ahal da, eta “beldur eragile”, “gatazka”tzat. Makiaveloren gomendioa, gomendio *makiavelikoa* (“*Perteneciente o relativa a Maquiavelo o al maquiavelismo*”, DLE-ren arabera), “beldur eragile” izatearen aldekoa da: “bata eta bestea komeniko lirateke; baina biak batzea zaila denez, askoz ere seguruagoa da beldurra eragitea maitatua izatea baino” (Makiavelo, 1513/1983, 78. or.). Paralelismoa baliagarria izan balitz, ikerketa honen helburua, “adostasun berriak”, Makiaveloren dilemaren “maitatua izatea” alderdian kokatuko litzateke gehienbat.

### 1.3 Ikertutako arazoa eta gizartean duen garrantzia

Lan honetan honako arazo hau aztertu da: Nafarroan<sup>13</sup> euskarari buruzko hizkuntza politiken inguruan dagoen eztabaida soziala nahiko handia, denboran zehar konpondu gabe iraun duena, eta, alde emotiboak eta arrazionalak modu bereziki korapilatsuan konbinatuz, hizkuntzen esparrutik politikaren, legeen, identitateen, lanaren edo gizarte orokorraren esparruetara salto egiten duena; eta hori guztia bidezko interesa duten alderdien arteko elkargune falta nabarmenarekin. Zenbait kasutan iritzi publikoan egiten den euskararen eta gatazkaren (“euskara = gatazka”) arteko lotura izaten ahal da horren ondorio.

Aurreko atalean azaldutako kontzeptuen terminoetan, esan daiteke hiru alde dituen arazoa dagoela: (i) euskarari buruzko diskurtso sozialen polarizazioa, (ii) elkarrizketa maila txikia hizkuntza politiketan bidezko interesa duten alderdien artean, eta (iii) erresonantzia sozial mugatuak hizkuntza politiken igorleen eta gizarte orokorreko hartzaileen artean.

Gogoan izan behar da Nafarroak bi hizkuntza propio dituela, bertan tradizioz mintzatuak izan direnak: gaztelania eta euskara. Hala ere, herritar guztiek ez dituzte bi hizkuntzak hitz egiten (edo hitz egin denboran zehar). 2016ko datuen arabera, %77k gaztelaniaz dakite, %13k euskaraz eta gaztelaniaz, eta beste %10ek euskaraz partzialki eta gaztelaniaz ongi (ikus “1.4 Testuinguru soziala” atala). Horrekin lotuta, Nafarroako herritarrek sentsibilitate, lehentasun, nahi, behar eta jokamolde desberdinak dituzte euskararen eta bere sustapenaren inguruan.

Prentsan eta euskarari buruzko eztabaida soziopolitikoetan polarizazioaren alderdia nabarmena bada ere, “1.4 Testuinguru soziala” atalean jasotzen den bezala, gizartean badira seinaleak pentsarazten dutenak oinarrizko adostasunak desiragarriak izateaz gain lortzeko modukoak ere izaten ahal direla, eta adierazten dutenak euskara *gatazkarekin* baino *adostasunarekin*<sup>14</sup> lotzea posible litzatekeela.

Horregatik, euskararen gaiak garrantzi sozial handia du Nafarroan. Gaiak gizartean duen garrantziaren adierazgarri da azterketa honen parte-hartzaileek proiektuaren berri jakin zutenean eta han parte hartzeko gonbidapena jaso zutenean harrera bikaina egin ziotela.

Hori guztia dela eta, ikerketak inplikazio argiak edukitzen ahal ditu gure gizarteko hizkuntza politikan eta planifikazioan pentsatu behar duten askotariko eragileentzat: Administrazioa, oposizioa, gizarte erakundeak eta hizkuntzen egoera sozialean interesa duten pertsona guztiak.



## 1.4 Testuinguru soziala

Aztertutako gaiaren testuinguru soziala lau ataletan aurkezten da:

- **1.4.1** Inkesta soziolinguistikoetan oinarrituta landutako informazioa.
- **1.4.2** Lege-alderdiak.
- **1.4.3** Euskarari buruzko diskurtsoak Nafarroan, azterketa aurreko garaiko iturri idatzien arabera.
- **1.4.4** Esperientziak enpresa kudeaketaren eta kulturaren munduan.

**15** Euskarak 1981-2011 urteen artean izandako bilakaerari buruzko informazio orokorrerako, ikus Martínez de Luna, Erize eta Zalbide (2016). Informazio hori bera gaztelaniaz eta ingelesez ere topatzen ahal da.

### 1.4.1 INKESTA SOZIOLINGUISTIKOETAN OINARRITUTA LANDUTAKO INFORMAZIOA


Inkesta soziolinguistikoetan oinarrituta landutako informazioa ulerterraza izan dadin, iruzkindutako bost grafikotan aurkeztu da<sup>15</sup>:

1. Jarrerak, gaitasuna eta erabilera (Nafarroa, 1991-2016).
2. Jarrerak, gaitasuna eta erabilera (Nafarroa + EAE + Iparraldea, 1991-2016).
3. Euskara sustatzeari buruzko jarrerak (Nafarroa, 1991-2016).
4. Herritarren hizkuntza aukeraketak: hezkuntzako hizkuntza ereduak (Nafarroa, 1998-2015).
5. Etorbizuneko eszenario tendentziala Nafarroan (1991-2016 erreala + 2016-2036 proiektzio tendentziala)

#### 1.4.1.1 Jarrerak, gaitasuna eta erabilera (Nafarroa, 1991-2016).

Euskarari buruzko inkesta soziolinguistikoetan neurtzen diren faktore nagusiak hiru dira: euskararen sustapetzari buruzko jarrera, euskarazko gaitasuna (edo ezagutza) eta euskararen erabilera. Hiru faktoreak lotzen dira grafiko honetan:

#### Jarrera - Gaitasuna - Erabilera (Nafarroa, 1991 -2016) (%)



**1. irudia.** Jarrerak - Gaitasuna - Erabilera (Nafarroa, 1991-2016). (Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013; EUSTAT, 2016; eta Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa-Office Publique de la Langue Basque, 2017).




16 Soziolinguistikaren ildotik, egokiak dira hizkuntza gaitasunari buruzko datuak aurkezteko bi moduak: multzokatuta edo xehatuta. Zentzu batean, egokia da *ongi* hitz egiten dutenak eta *partzialki* hitz egiten dutenak multzokatzea bi taldeek euskara ikasteko benetako esfortzua islatzen dutelako; baina, bestalde, egokia da, halaber, bi taldeak xehatzea ere, ez baita gauza bera *ongi* hitz egitea edo *erdizka* hitz egitea. Horrek guztiak ondorio asko ekartzen ditu erabilerari, kalitateari, hizkuntzaren transmisioari baita jarrerari dagokionez ere.

Grafikoan ikusten ahal da hiru kurbek elkarren artean bilakaera ia paraleloa dutela, 1991z geroztik goranzkoa arinki, baina ia meseta baten formakoa. 2016an, aldeko jarrera %33koa zen (aldekoa + oso aldekoa); euskarazko hizkuntza gaitasuna %23koa zen (ongi %12,9 + erdizka %10,3)<sup>16</sup>; eta erabilera %15ekoa (gaztelania baino gehiago + berdin + gutxiago). Jarrerena da kurbarik altuena eta horrek markatzen du hein batean hizkuntza gaitasunaren eta erabileraren kurbek mugitzeko duten sabaia: aldeko jarrerrek ezagutzak eta erabilerak gora egiteko aukera ematen duen testuinguru soziala sortzen dute, eta alderantziz.

#### 1.4.1.2 Jarrerak, gaitasuna eta erabilera (Nafarroa + EAE + Iparraldea, 1991-2016).

Nafarroarekin alderaketa egin ahal izateko, euskaraz hitz egiten duteneko lurralde guztiak biltzen dituen grafikoak erakusten da:

#### Jarrera - Gaitasuna - Erabilera (Nafarroa + EAE + Iparraldea, 1991 -2016) (%)



2. irudia. Jarrerak – Gaitasuna – Erabilera (Nafarroa + EAE + Iparraldea, 1991-2016). (Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurjaritza, 2013; EUSTAT, 2016; eta Eusko Jaurjaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa/Office Publique de la Langue Basque, d.g.).


Grafiko orokorreko hiru kurbek ere bilakaera ia paraleloa daramate, Nafarroako kasuaren antzera, eta 1991. urteaz geroztik arinki goranzkoa, baina ia meseta baten formakoa. Bakoitzaren balioak Nafarroan baino %15-20 altuagoak izatea da alde nagusia.

#### 1.4.1.3 Euskara sustatzeari buuzko jarrerak (Nafarroa, 1991-2016).

“Euskara sustatzeari buruzko jarrerak” grafikoan, 1991-2016 artean Nafarroan izandako bilakaera ikusten ahal da:



### Euskara sustatzeari buruzko jarrerak (Nafarroa, 1991-2016) (%)



**3. irudia.** Euskara sustatzeari buruzko jarrerak (Nafarroa, 1991-2016). (Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Eusko Jaurlaritza, 2013; EUSTAT, 2016; eta Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa/Office Publique de la Langue Basque, 2017).

Grafikoak erakusten du euskararen sustapenaren aldeko, interesik gabeko eta kontrako jarrerak bakoitza heren batekin ia berdin banatuta daudela eta oso gurutzatuta. 1996tik 2016 bitarteko oinarritzko egonkortasuna ere nabarmentzen du. Aipagarria da 2011 eta 2016 artean gertatutako aldaketa, aldeko jarreraren beherakada eta kontrako jarreraren gorakada arina izan baita; baina neurketa berriak egin beharko dira aldaketa koiunturala ala iraunkorra den jakiteko. Bestalde, kontuan izan behar da baita ere, euskara sustatzearen aldeko jarrerak desberdinak direla Nafarroako eremuen arabera: %68 eremu euskaldunean, %36 eremu mistoan, eta %19 eremu ez-euskaldunean (Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa/Office Publique de la Langue Basque, 2017).


#### 1.4.1.4 Herritarren hizkuntza aukeraketak: hezkuntzako hizkuntza ereduak (Nafarroa, 1998-2015).

*Hizkuntza aukeraketa (language choice)* kontzeptuak, hau da, hiztunek hizkuntza aukeraketak egiteak (hizkuntza edo hizkuntza aldaera aukeratzea; banaka edo kolektiboki; une jakin batean edo epe luzera...) garrantzi soziolinguistikoa handia du. Nazioarteko soziolinguistikan oso landuta dago hizkuntza aukeraketaren gaia, baina ez dago hain landuta euskararen soziolinguistikan. Hitztunek zein hizkuntza edo hizkuntza aldaeratan duten gaitasuna, horien arteko aukeraketa egiten dute funtzionatzeko, eta aukeraketa horiek esanahi sozial handia dute. Zer hizkuntzatan adierazi eta komunikatu eta ondorengoei zer hizkuntza transmititu aukeratzen dutenean, besteak beste, behar pertsonalak eta balio edo identitate linguistikoak adierazten ari dira (Erize, 1997, 2013, 2016a eta 2016b; Fasold 1992; Grin, 1990, 1999 eta 2000). Hain zuzen, aurreko grafikoetan azaldutako fenomeno guztiek ere epe luzeko hizkuntza aukeraketako prozesu kolektiboak adierazten dituzte (1991-2016).



Nafarroako herritarrek egiten duten hezkuntzako hizkuntza ereduaren aukeraketa, zehazki, hizkuntza aukeraketa oso argia da. Hizkuntza ereduaren aukeraketa oso ongi pentsatutako erabakia da, gurasoek onena bilatzen baitute seme-alabentzat. Bilakaera grafiko honetan ikusten ahal da:

#### Hizkuntza aukeraketa: Haur hezkuntza ( $\geq 3$ urte) + Lehen hezkuntza (hizkuntz ereduak guztira) (Nafarroa, 1998 -2015) (%)



**4. irudia.** Hizkuntza aukeraketa: Haur Hezkuntza + Lehen Hezkuntza, multzokatutako hizkuntza ereduaren arabera (Nafarroa, 1998-2015). (Egilea: Xabier Erize. Datuen iturria: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua, online).

Grafikoan daude, alde batetik, G ereduak, gaztelaniazko ereduak soilik nahi dutenek aukeratua (1998an %53,9tik 2015ean %52ra) eta, bestetik, ereduaren euskara formatu batean zein bestean nahi dutenek aukeratutako hiru ereduak (D + A + B) biltzen dituenak (1998an %46,1etik 2015ean %48ra). Grafiko honetako kurbak ere ia horizontalak dira, aurrekoen antzera.

Euskara duten ereduaren xehakapena ere esanguratsua da: D ereduak (komunikazio hizkuntza euskara duena) 1998an %23,2 izatetik, 2015ean %27,1era pasatu da; A ereduak (euskara irakasgai duena) 1998an %22,6 izatetik, 2015ean %20,6ra jaitsi da eta B ereduak (erdia euskaraz eta erdia gaztelaniaz) %0,3an mantendu da.

#### 1.4.1.5 Etorbizuneko eszenario tendentziala Nafarroan (1991-2016 erreala + 2016- 2036 proiektzio tendentziala).

Euskararen etorkizun soziala herritarren eta, oro har, gizartearen eskuetan dago, denboran aurrera egin ahal egiten dituzten aukeraketen arabera (Erize, 2016a eta 2016b) eta topatzen dituzten testuinguru edo baldintza sozialen arabera; batzuk ezin dira aurrez esan gaur egun, eta beste batzuk, berriz aurrez ikusteko modukoak dira.

Nolanahi ere, garrantzitsua da euskarari buruzko eztabaida soziala *etorkizuneko eszenario* eta *proiektzio tendentzialen* testuinguruan ere txertatzea, hausnarketak eta eztabaidak benetako oinarrian kokatzen laguntzen baitu. Euskarari buruz etorkizuneko eszenarioak eta proiektzio tendentzialak aintzat hartuz eztabaidatzea




ohikoa ez den arren, komenigarria litzateke ikuspegi mota hori txertatzea, eta, hain zuzen, dagoeneko hasiak dira horretan (Euskararen Aholku Batzordea-Hizkuntza Politikarako Sailordetza, 2016; Erize, 2016a eta 2016b; Eusko Ikaskuntza, 2017)<sup>17</sup>. Euskararen etorkizunari buruzko eztabaidak aurreko benetako bilakaera soziala oinarri hartuta gertagarria dena kontuan hartuta egitea lortuko litzateke horrekin, ez bakarrik eragileek nahi luketena kontuan hartuta. Eszenario batek zenbait baldintza bete behar ditu, hala nola *gertagarritasuna* (plausible izatea), *koherentzia* eta *sinesgarritasuna* (Leney, Coles, Grollman eta Vilu, 2004). Jakina, eszenario tendentzial bat ez da etorkizunari buruzko profezia-tzat hartu behar, eta, horrez gain, ez du ukatzen bilakaera soziala beste bide batzuetatik eramaten ahal duten aurrez ikusi gabeko fenomeno sozialak (migrazio fenomenoak, iritzi publikoaren edo egoera politikoaren aldaketa azkarrak...) gertatzeko aukera.

<sup>17</sup> Erreferentzia modura, *Perspectives démolinguistiques du Québec et de la région de Montréal 2006-2056*, Marc Termote-k egindako (2011) lan sendoa ikusten ahal da.

Hona hemen orain arteko datu errealetan oinarrituta 2036ra arte proiektatutako euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza gaitasunaren eszenario tendentzialaren adibidea, euskararen inguruko joerek edo energia sozialek aurreko urteen antzera eragiten jarraituko dutelako hipotesia oinarri hartuta:

### Etorkizuneko eszenario tendentziala: euskararen ezagutza Nafarroan

(1991 -2016 erreala + 2016-2036 proiektzio tendentziala) (%)



**5. irudia.** Etorkizuneko eszenario tendentziala: euskararen ezagutza Nafarroan (1991-2016 erreala + 2016-2036 proiektzio tendentziala) (%). (Egilea: Xabier Erize. 2016 arteko datuen iturria: Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco, 2013; eta Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritzako eta Euskararen Erakunde Publikoa/Office Publique de la Langue Basque, 2017).

2036 arteko proiektzio tendentzialaren grafikotik nabarmentzen ahal da euskaraz hitz egiten duen (ongi edo partzialki) nafar kopurua pixkanaka haztea dela gertagarriena eta ez bilakaera bortitza zentzu batean edo bestean; horrek, bestalde, euskarari buruzko eztabaidei dramatismoa kentzen laguntzen ahal du. Proiektzio tendentzialaren datuak hizkuntzaren ikaskuntzako oinarritzko iturriek (transmisio naturala + irakaskuntza + helduen ikaskuntza) errealitatean ekarritako euskaldunen fluxuarekin alderatuko bagenitu, heriotzak kenduta, ikusiko genuke horien arteko koherentzia nahiko handia dela.



#### 1.4.2 LEGE-ALDERDIAK

Bi hitzetan, Nafarroan indarrean dagoen araudiak euskara babestu eta sustatu behar den ondareztat hartzen du; baina, horrekin batera, esan behar da euskararen araudia gai eztabaidatsua gertatzen dela Nafarroan.

Hala, Euskarari Buruzko *Foru Legeak* (18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa, 1986) esaten du Nafarroa bere ondarean gaztelania eta euskara hizkuntzak edukitzeaz harro dagoen erkidego bat dela, eta “hizkuntza horiek errespetu eta babes berezia behar duten kultura ondarea direla aitortu behar” dela baita ere. Eta gehitzen du orobat: “gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea”. Zehaztasun bat ere egiten du: “ondare hori ezin da babestu eta ez da babestu behar ere hizkuntzen arteko borroka edo aurkaritzaren bidez”. Zentzu horretan, Euskarari Buruzko *Foru Legeak* euskara jakitea, erabiltzea, berreskuratzea, sustatzea, garatzea eta irakastea jasotzen du, hori guztia borondatezkotasun eta mailakatzeko irizpideei jarraikiz, bere ezinbesteko helburuetan aipatzen duenez (I. art.).

Baita ere, herritarrak hizkuntza dela-eta diskriminaturik ez izateko nahia adierazten du: “Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntza dela-eta herritarrak diskriminaturik izan ez daitezen” (3.1. art.).

Euskarari Buruzko *Foru Legeak*, gaztelaniaren eta euskararen ofizialtasuna arautzerakoan, esaten du gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, euskararen ofizialtasunari dagokionez zona edo eremuen irizpidea ezartzen duen bitartean, *Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko* 9. artikuluan esaten dena garatuz: “Euskara ere hizkuntza ofiziala izanen da Nafarroako eskualde euskaldunean”. Horrela, Euskarari Buruzko Foru Legearen ondorioetarako, Nafarroak hiru eremu ditu: eremu euskalduna, eremu mistoa eta eremu ez-euskalduna, horietako bakoitza Legeak jasotzen dituen udalerriek osatua. Eremu linguistiko bakoitza osatzen duten udalerrien zerrenda berrikus daiteke.

Euskarari Buruzko *Foru Legeak* hiru arlo nagusi arautzen ditu: erabilera arrunta eta ofiziala (I. Titulua), irakaskuntza (II. Titulua), eta komunikabide sozialak (III. Titulua). Erabilera arrunta eta ofiziala, eta, zehazkiago, herritarren euskara erabiltzeko eskubidea Administrazio publikoekiko harremanetan, modu desberdinetan dago arautua eremu euskaldunean (ohiko koofizialtasunaren parekoa, gutxi gorabehera), eremu mistoan (euskara erabiltzeko eskubidea) eta eremu ez-euskaldunean (euskaraz zuzentzeko eskubidea).

Irakaskuntzan, eremu guztietan aitortzen zaie euskarazko irakaskuntza hala eskatzen duten ikasleei, nahiz eta eremu euskaldunean modu batean araututa egon, eta eremu mistoan eta ez-euskaldunean beste batean. Komunikabide sozialen arautzean ez da ezberdintasunik agertzen eremuen artean.

Baina, horrekin batera, euskarari buruzko *Legea* eztabaidatsua gertatzen da Nafarroan eta bere indar politikoen artean, azterketa honetan agertu den bezala (ikus 2.4 atala) eta baita Miguel Izuk (2013, 363. or.) ere aipatzen duen bezala. Batzuek defendatu egin dute esanez Nafarroako errealitate soziolinguistikoarekin bat datorren tresna dela, baina beste batzuek, haien arteko ñabardura desberdinekin ere, uste dute ez dela tresna egokia euskararen ofizialtasuna mugatu egiten duelako.



Bestalde, Iruñeko Udalak ere euskara “udalerriko bi hizkuntza propioetako bat” dela dio, bere herritarren “ondare kulturala”, “irauteko eta erabili ahal izateko laguntza berezia behar duena”, eta “sustapena”, bere *Ordenantzan (Ordenantza, Iruñeko Udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen duena, 1997)* jasotzen duenez.

#### 1.4.3 EUSKARARI BURUZKO DISKURTSOAK NAFARROAN, AZTERKETA AURREKO GARAIOK ITURRI IDATZIEK ARABERA

Testuinguru soziala zehazte aldera, garrantzitsua da euskarari buruzko diskurtsoak aztertzea, gizartean eginkizun handia baitute zentzu batean edo bestean, “1.2.2 Diskurtso kontzeptua” atalean adierazi bezala. Hori dela eta, diskurtsoen analisi sintetiko bat aurkezten da atal honetan, proiektuaren aurreko garaian (2016-12-27tik 2017-04-27ra) Nafarroako pertsonak edo erakundeek prentsan eta lege araudian Nafarroan euskarari buruz adierazitako diskurtsoekin.

Badira Nafarroan euskarari buruzko diskurtsoen inguruko azterketen aurrekariak, bai diskurtso sozialen alorrean (Erize, 1997, 1999, 2001 eta 2003), bai hizkuntza araubide juridikoaren alorrean (Alli, 2001, 2013; Izu, 2013).

Hauek izan dira atal honetarako erabilitako iturriak:

- Eguneroko prentsa: *Berría, Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias*, lau hilabetez, 2016-12-27tik 2017-04-27ra; hilabete horietan, euskarari buruzko eztabaidak maiz agertu ziren gizartean eta komunikabideetan.
- Bestelako material idatziak edota grafikoak, honako hauek besteak beste: Aleman, Arregi, Petriati eta Zapata, 2016; Anaut, 2017; Arregi, 2017; Beloki, 2017; Bilbao, 2016; Epaltza, 2017a eta 2017b; Felones, 2017; Iriarte, 2017; Iribarren, 2017; Martínez, 2017; Maya, 2017a eta 2017b; Ollo, 2017; Oroz, 2017; Osés, 2017; Sanzberro et al., 2017; eta Zaldieroa, 2017a eta 2017b.
- Araudia edo legedia: *18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa, Ordenantza, Iruñeko Udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen duena* (Iruñeko Udala, 1997); eta *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* (Jefatura del Estado, 2001).

##### 1.4.3.1 Oinarrizko hiru diskurtso

Idatzizko iturri horiei buruzko analisiaren emaitza nagusia euskarari buruzko oinarrizko hiru diskurtso identifikatzea izan da (bi diskurtso sozial, gizartean oso zabalduak; eta lege diskurtso bat):

- Diskurtso sozial bat, honela laburbiltzen ahal dena: “Euskararen normalizazioaren eta eskubideen alde, eta euskara desagertzea nahi dutenen aurka”.
- Diskurtso sozial bat, honela laburbiltzen ahal dena: “Euskara errespetatzearen alde, eta euskararen inposaketa nazionalistaren aurka”.
- Lege diskurtsoa, honela laburbiltzen ahal dena: “Euskara babestea eta sustatzea, borondatearekin eta gradueltasunarekin”.

Euskarari buruzko diskurtsoen analisi horren laburpena aurkezten da hemen. Aurrerago, “3. Ondorioak eta aurrera begirako eztabaida” atalean, honako diskurtso hauek alderatzen dira: idatzizko iturrietan oinarrituta identifikatutako diskurtsoak eta parte- hartzaileek proiektuko eztabaidetan eta elkarrizketetan interakzio pertsonalean sortutako ahozko diskurtsoak.

Lehenik eta behin, bi diskurtso sozialak azaltzen dira eta lege diskurtsoa, ondoren.

#### 1.4.3.2 Euskarari buruzko bi diskurtso sozialak eta horien arteko lotura

Bi diskurtso sozialak ondoren datozen hitzekin adierazten ahal dira eta, 1.8.2 atalean adierazitakoaren harira, diskurtsoen egileek erabilitako hitzak dira, ez dira analistak kanpotik aplikatutako kategoriak:

- “Euskararen normalizazioaren eta eskubideen alde, eta euskara desagertzea nahi dutenen aurka”.
- “Euskara errespetatzearen alde eta euskararen inposaketa nazionalistaren aurka”.

Bi diskurtsoen artean, polarizazio eta konplexutasun loturak ageri dira, van Dijk-en hitzetan ideologikoki polarizatutako diskurtsoek berezkoak dituzten “norberaren aurkezpen positibo” eta “bestearen aurkezpen negatibo” ezaugarriekin batera (ikus “1.2.2 Diskurtso kontzeptua eta funtzio soziala” atala). Hori guztia irudi honen bitartez azaltzen ahal da:

## Diskurtso sozialen arteko harremanak

**"Euskararen normalizazioaren eta eskubideen alde, eta euskara desagertzea nahi dutenen aurka"**



**"Euskara errespetatzearen alde, eta euskararen inposaketa nazionalistaren aurka"**

**6. irudia.** Euskarari buruzko bi diskurtso sozialen arteko loturen irudikapena. (Egilea: Xabier Erize).

Hori dela eta, ikerketaren gaiarekin lotuta egokia dirudien galdera bat sortzen da: esandako diskurtsoak sortzen dituzten eragileak eta taldeak besteen arrazoiak eta sentimenduak ezagutzeko eta ulertzeko ahalegina egiten ari al dira?

#### *Diskurtso sozialak umore grafikoan adierazita*

Aipatutako diskurtso sozialak maiz agertu dira umore grafikoan ere.

Horren harira dugu euskararen aurkako “sorgin-ehiza” egoeraren irudikapena, alderdi baten ikuspegiaren zentzuzko adierazpen bezala har daitekeena:



7. irudia. Zaldieroaren (2017a) umore grafikoko banda. (Iturria: Berria, 2017-02-17, 21. or.)

Umore grafikoaren bitartez, beste alderdiarentzat zentzuzko ikuspegia dena ere agertu da, eremu ez-euskalduneko Nafarroako Erriberan D eremuan (euskarazkoa) izandako matrikulazio datu baxuengatik broma eginez:



8. irudia. Oroz-en (2017) umore grafikoko banda. (Iturria: Diario de Navarra, 2017-02-25, 76. or.) 76)

Umore grafikoaren hirugarren adibidea Zaldieroaren (2017b) banda hau da. Euskararen aldeko diskurtsoan ohiko joeratik ihes egiten duen autoironiazko kasua da (aztertutako materialetan topatutako autoironiazko adibide urrietako bat da, bakarra ez esateagatik), baina aipagarria da jorratzen duen gaiarengatik (euskara lanpostuetarako baldintza gisa) eta baita sorgin-ehizari buruzko banda egin duen egile berarena izateagatik ere. Bandaren izenburua oso esanguratsua da: "Kale-garbitzaile EGAduna":



9. irudia. Zaldieroaren (2017b) umore grafikoko banda. (Iturria: Berria, 2017-03-01, 22. or.) 22)



Euskarari buruzko diskurtso sozialetan agertzen den polarizazioa lan honetan aztertzen ari den arazoaren adierazle bat da. Ondorioen 3.4 atalean aritzen da berriro gai horren inguruan.

#### 1.4.3.3 **Lege diskurtsoa: “Euskara babestea eta sustatzea, borondatearekin eta gradualtasunarekin”**

Aurrez aipatutako lege iturriak abiapuntu hartuta eta lan honen ardurapekoak ez diren eztabaida juridikoetan sartu gabe, euskarari buruzko araudiaren eta legeen oinarritzko diskurtsoa hitz hauetan laburbiltzen ahal da: “Euskara babestea eta sustatzea, borondatearekin eta gradualtasunarekin”. Esan bezala, lege diskurtso horrek berezko izaera dela-eta du garrantzia, baina esaten ahal da, hainbat arrazoirengatik, aitorpen sozial urria duela eta eztabaidatua suertatzen dela bere adierazpen jakinetan. “1.4.2” atalean jaso dira Nafarroako lege diskurtsoaren printzipio eta adierazpen nagusiak, eta ez dira hemen errepikatuko.

Horretaz gain, *Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* (Jefatura del Estado, 2001) ere badago; Europako Kontseiluak egin zuen 1992an eta, urte horretan, Espainiak sinatu eta 2001ean berretsi zuen; hala “Espainiako ordenamendu juridikoan jaso zen” (Alli, 2013, 33. or.).

*Gutunak* ongi landutako kontzeptualizazioa erabiltzen du, baina gizartean ez da ongi ezagutzen; hartzen dituen neurri zehatzak, berriz, alderdi bateko zein besteko hizkuntza politketako eragileek askoz ere maizago eztabaidatzen edo erabiltzen dituzte argudio gisa. Lan honetan, *Gutunaren* oinarritzko kontzeptualizazioa edo diskurtsoa jasotzen da nagusiki.

Abiaturuko kontsiderazioen artean hau dago:

Europako eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzak Europako eskualdeetan eta herrialdeetan babestu eta sustatzeak ekarpen garrantzitsua egiten dio demokraziaren eta kultur aniztasunaren printzipioetan oinarrituta eraikitako Europa eraikitzeari, nazioen subiranotasunaren eta lurralde osotasunaren esparruetan (Hitzaurrea).

Halaber, *eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen* definizio argi eta garbia ematen du *Gutunak*:

«Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak» aipatzerakoan, hauek adierazi nahi dira: i) estatu bateko lurraldean bertako biztanleek, estatuko biztanleriaren barruan gutxiengoa izanik, tradizioz hitz egiten dituztenak; eta ii) hizkuntzok ez dira estatu horretako hizkuntza ofizialak izango; eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen barruan ez dira sartuko estatuko hizkuntza ofizialaren dialektoak, ez etorkinen hizkuntzak (1. art.).

*Gutunaren* printzipio batek honela dio: “eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko eremu zabalagoa duten hizkuntzetako hiztunen aurkako diskriminazio ekintzatzat” (7. art.).

Ildo beretik, *Gutunak* hainbat neurri proposatzen ditu hizkuntza horien erabilera sustatzeko: “Eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzak bizitza publikoan erabiltzearen aldeko neurriak”, hainbat alorretan aplikatu beharrekoak: irakaskuntza; justizia; agintaritzaren administratiboak eta zerbitzu publikoak; komunikabideak; kultur jarduerak eta zerbitzuak; bizitza ekonomikoa eta soziala; mugaz gaindiko trukeak (8.-14. art.).



Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea “dauden betebeharrei” dagokienez “Gutun horretako ezer ezingo dela interpretatu eskubidea ematen duenik Nazio Batuen Eskutitzaren helburuak edo nazioarteko zuzenbidearen beste betebeharrak batzuk, estatuen subiranotasunaren eta lurralde osotasunaren printzipioa barne, urratzen dituen jardueraren bat hasi edo ekintzaren bati ekiteko” (5. art.).

#### 1.4.4 ESPERIENTZIAK ENPRESEN ETA KULTURAREN KUDEAKETAREN MUNDUAN

Nafarroan, enpresen<sup>18</sup> eta kulturaren kudeaketaren munduan, badira esperientzia positiboak hizkuntzen alorrean. Bezero jakin batzuen hizkuntza nahiei (bertako hizkuntzak + atzerrikoak) erantzuteko borondatean eta aukeran oinarritzen dira nagusiki, beste bezeroak kaltetuta sentitu gabe eta hori guztia erakundearen onerako eginda. Hau da, berezko interesa duten alderdi desberdinen askotariko espektatiba linguistikoak asetzeari haiekiko elkarrizketan (ikus 1.2 atala). Hemen ere, beste galdera bat sortzen da: enpresa eta kultura kudeaketaren munduan ongi funtzionatzen duten irizpide horiek hedatzen ahal dira Nafarroako politikara eta hizkuntza planifikaziora?

Bestalde, 1980ko hamarkadan, Nafarroan (1986) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (1982) euskarari buruzko legeak landu eta onetsi zirenetik, hainbat ekimen bideratu dira euskarari buruzko adostasunak bilatzeko edo ikuspuntu desberdinen arteko alderaketa egiteko. Ekimen horiek hainbat mailatako hedadura, formaltasuna edo arrakasta izan dute, eta, oro har, oso baliagarriak izan dira. Horiek zerrendatzea ez da lan honen xedea, baina horiek izan direla jasota utzi nahi da.

### 1.5 Gaiari buruzko aurrekariak ikerketa soziolinguistikoan

Esan bezala, Nafarroan ez dago hau bezalako ikerketen aurrekaririk, gizartean dauden profil soziolinguistiko eta ideologiko-politiko guztiak islatzen dituzten pertsona kualifikatuekin egin denik. Eta, okerrik ezean, euskara hitz egiten den beste lurraldeetan edo bestelako hizkuntzen literatura soziolinguistikoan ere ez dugu horrelakorik. Hala ere, badago ikerketa honen gaiari argia egiten ahal dion aurrekari esanguratsu bat.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egindako *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa* (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016) ikerketa soziolinguistiko dimentsi handiko lana izan zen. Azterketak hiru ondorio nagusi izan zituen:

**1.** Esaten ahal da EAEko biztanleek partekatzen dituzten oinarritzko hizkuntza balio batzuk badirela eta horiek oinarri sendoa izaten ahal direla gizartean onartutako hizkuntza politika baterako:

- Elkarren arteko errespetua euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten dutenen artean.
- Euskaraz + gaztelaniaz + ingelesez jakiteak duen garrantzia, hizkuntza bat bestearekin kontrajarri gabe.
- Euskaraz gizarteari ematen dion balioa aitortzea.
- Euskararen presentzia areagotzeko nahia<sup>19</sup>.

<sup>18</sup> Ikus, adibidez, Erize, 2010, 11-12. or.

<sup>19</sup> “Oro har, euskararen presentziak egungo gizartean gora egitea, mantentzea edo behera egitea nahi izanzen zenuke?” galdera dela-eta, bai euskaldunek (%90), bai erdaldunek (%56) “gora egitea” aukeratu zuten; biztanleriaren gehiengoak ere aukera horren alde egin zuen (%69) (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2015, 428. or).



20 “Euskaraz jakitea ezinbestekoa da herri honetako kide osoa sentitu ahal izateko” dioen ideia dela eta, esate baterako, EAeko euskaldunek eta erdaldunek jarrera desberdinak adierazi zituzten (Martinez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2015, 431. or.):

- Euskaldunak: %72 alde, %21 kontra.
- Erdaldunak: %33 alde, %58 kontra.
- Biztanleria guztira: %45 alde, %45 kontra.

Horren harira, “euskaraz jakitea ezinbestekoa da herri honetako kide osoa sentitu ahal izateko” ideian (modu esplizituan edo inplizituan) oinarritutako hizkuntza politikak gaitzespen soziala jasateko arriskua izanen luke.

2. Hizkuntza politika talde baten balioetan soilik oinarrituta diseinatuko balitz (talde hori euskalduna edo erdalduna izan)<sup>20</sup>, hizkuntza politika horrek gaitzespen soziala jasateko arrisku handia izanen luke.

3. *Derrigortasun, araudi eta lege* faktoreak, berezko izaera dela-eta gobernuaren eta Administrazioaren eginkizunekin oso lotuta daudenak, EAEn, oso polemikoak suertatzen dira gizarte adostasun handirik gabeko hizkuntza gaiei aplikatzen zaizkienean; eta erraz eragiten dituzte diskriminazio sentimenduak euskaldunen zein erdaldunen artean. Adibiderik argiena eta esanguratsuena euskararen eta lanpostuen arteko lotura da, batzuek desiragarritzat jotzen baitute eta besteek, inposiziotzat.

Horren harira, galdera hau sortzen da: EAEn egindako euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketako hiru ondorio horiek Nafarroan ere nolabaiteko baliagarritasuna izateko aukera ba ote dute? (Ikus “3 Ondorioak eta aurrera begirako eztabaida”).

## 1.6 Helburuak

Kontuan hartuta aztertutako arazoa dela euskarari buruzko hizkuntza politiken inguruan Nafarroan dagoen eztabaida soziala nahiko handia dela, eta arazoak denboran zehar konpondu gabe iraun duela, lanaren helburu orokorra nafar gizarteko euskarari buruzko adostasun eta desadostasunen oinarri diskurtsiboak argitzea izan da.

Eta, horri lotuta, helburu espezifikoak bi izan dira:

- Nafarroako herritarrek euskararen inguruan dituzten askotariko nahiei eta beharrei erantzuteko gai izan diren adostasun berrien proposamenak identifikatzea.
- Euskarari buruzko oinarritzko desadostasunak eta hurbiltzeko balizko aukerak identifikatzea.

## 1.7 Hipotesia

Hau izan da hipotesia: abiapuntuan desberdintasun ideologiko, linguistiko eta bizipenei dagozkienak eta eztabaida sozialen giroa gertatzen badira ere, elkargune plural egoki bat eratzen bada, ikerketan parte hartzen duten pertsonak oinarritzko adostasunen proposamenak identifikatzera iritsi daitezke, Nafarroako herritarrek euskararen inguruan dituzten askotariko nahi eta beharrak asetzeko modukoak direnak eta euskara babestu eta sustatu behar den ondare bezala hartzen dutenak.

## 1.8 Parte-hartzaileak eta metodologia

Proiektua konplexua izan da; aipagarria bai izan dituen emaitzengatik, baita bere prozesuarengatik ere. Metodologiaren atal honetan, prozesua azalduko da. Ezberdinen arteko elkarganatzean oinarritzen diren antzeko azterketen aurrekari faltan (ikus “1.5 Gaiari buruzko aurrekariak” atala), metodologia propio lan honetarako pentsatu da, ez da euskarari buruzko edo bestelako hizkuntzei buruzko azterketetan aldeztu aurretik egon eta lan honetarako ekarritako eredu bat izan.



Bestalde, ikerketaren metodologia ahalik eta xehetasun handienarekin azaltzeko ahalegina egin da, *errepikagarritasunaren* printzipioa (Neuman, 1997) bete ahal izateko; hau da, hala nahi izanez gero, beste aztertzaile batzuek errepikatu ahal izan dezaten, ikerketa honetako emaitzak eztabaidatu, berretsi, aldatu edo gezurtatzeko.

Atal honetan, ikerketaren ezaugarri metodologiko nagusiak garatzen dira, puntu hauekin:

- Parte-hartzaileak.
- Metodologia.

### 1.8.1 PARTE-HARTZAILEAK

Parte-hartzaileen aukeraketa proiektuaren zuzendari Xabier Erizek eta lantaldeak egin dute, Iruñeko Udalarekin eta Nafarroako Gobernuko Euskarabidearekin elkarlanean. Parte-hartzaileen aukeraketa oinarrizko hiru irizpideri jarraituz egin da: (i) gizarteko aniztasun linguistiko eta ideologiko politikoa ahalik eta leialtasun handienarekin islatzea, (ii) sentsibilitate desberdin guztiak goi mailako kualifikazioa duten pertsonak ordezkatuta egotea, eta (iii) gizon-emakumeen artean parekidetasuna egotea. Aniztasunaren irizpidea zabalago azaltze aldera, ahalegina egin da parte-hartzaileek lagin askotarikoa osa dezaten, Nafarroako gizartean dauden estilo eta profil soziolinguistiko (euskaldunak eta ez euskaldunak; eta bizitza pertsonalean euskararekiko hurbiltasun edo urruntasun maila desberdinetakoak) eta ideologiko-politiko desberdinetako *egiturazko* ordezkariekin (Ibáñez, 1992), eta ez soilik euskaratik gertuko sektoreetakoekin.

Hori dela eta, ikerketan 24 lagunek hartu dute parte, guztiak ere askotariko erreferente sozialak (profesionalak, unibertsitateko irakasleak, hizkuntza akademikoak, politikariak, kazetariak, sindikalistak, gizarte erakundeetako kideak...) eta oso ezagunak publikoki Nafarroan. Hauek izan ziren 24 parte-hartzaileak<sup>21</sup>: Sagrario Aleman, Ana Aliende, Maider Beloki, Edurne Egino, Aingeru Epaltza, Maite Esporrín, Román Felones, Nerea Fillat, Coro Gainza, Itziar Gomez, Rosa Goñi, Fernando Hernández, Maite Inda, Iñaki Iriarte, Jesús Iribarren, Miguel Izu, Alberto Labarga, María Mar Larraza, Enrique Maya, Grego Navarro, Jesús M<sup>a</sup> Osés, José M<sup>a</sup> Zabala, Xabier Zabaltza eta Amaia Zubieta. Pertsona horien identitateak proiektuak izandako garrantziaren berri ematen du.

Parte-hartzaileen jatorria Nafarroako hainbat eremu geografiko eta linguistiko desberdinetan dago: Iruña (eremu mistoa Euskararen Legearen arabera), Iruñerria (eremu mistoa), eremu euskalduna, Lizarrako merindadea (eremu mistoa eta ez-euskalduna), eta Erribera (eremu ez-euskalduna).

Azterketaren aniztasun ideologiko-politikoaren adierazgarri dira hor parte hartu duten askotariko alderdi politikoetako ordezkarri publikoak (parlamentariak, zinegotziak, kide ezagunak...): Aranzadi, Ciudadanos, EH Bildu, Geroa Bai, Izquierda-Ezkerra, PSN-PSOE eta UPN alderdietakoak. Horrek guztiak garrantzi berezia eta berritasuna ematen dio proiektuari.

Kontuan izan behar da euskarari buruzko foroak eta antzeko beste ekimenak euskaldunak edo euskararen aldeko pertsonak osatuta egon ohi direla eta, beraz, ekimen horiek oso balioetsuak izan arren, homogeneotasunaren muga izaten dute; hau da, elkarren artean antzekoak diren pertsona horiek euskararen aldeko sektore sozialetan dagoeneko ezagunak diren diskurtsoen antzekoak sortzen dituzte, gizarte osoa islatu gabe.

<sup>21</sup> 24 lagunetatik bik, euskaldunak, aktiboki hartu dute parte azterketaren bi saioetan, gainerako kideekin interakzioan egon dira eta oso ekarpen aberatsak egin dituzte, emaitzetan islatzen direnak, baina antolatzaileei adierazi digute ez dutela bat egiten euskarari buruzko hain ikuspuntu desberdinak dituztenen artean (azterketa honetan parte hartu dutenen kasuan bezala) adostasunak lortzeko proiektuaren ideiarekin eta, beraz, azterketan bertan lortutako adostasunekin ere ez dutela guztiz bat egiten.



Elkarren artean hain desberdinak diren pertsonen parte hartzeak erronkak ekarri ditu argi eta garbi azterketa antolatzerakoan: proiektuarekiko konfiantza izan zezatela eta horretan parte hartzea onets zezatela lortzea; konfidentziasuna bermatzea; denen artean errespetuzko eta adeitasunezko giroa lortzea; eta parte-hartzaileak maila pertsonalean askatasunez eta naturaltasunez elkarri eragiteko dinamika sortzea beren erakundearen edo jatorrizko iritzi joerek berezkoak dituzten beste rol soziopolitikoetatik urrunduz, ahal zela.

## 1.8.2 METODOLOGIA

Metodologia adituen talde-dinamikekin<sup>22</sup> egindako ikerketa soziolinguistiko kualitatibo bati dagokiona izan da, eta diskurtsoen analisiarekin eta inkesta soziolinguistikoen ustiaketaekin konbinatu da.

Proiektua ikerketa enpiriko gisa planteatuta, honako hau azpimarratu nahi izan da: ikerketa sozialean ezagunak diren tekniken bitartez ahalik eta modurik inpartzialenean errealitateari behatzeko eta aztertzekeo tresna izan dadila<sup>23</sup>. Hori dela eta, helburu bat euskarari buruzko oinarritzko adostasunak lortzea izan bada ere, gertatzen ahal zen parte-hartzaileek adostasunak lortzea edo ez lortzea, eta, bi kasuetan ere, ikerketaren emaitza balioduna izanen zen.

Ikuspegi kualitatiboarekin, parte-hartzaileak ikerketaren erdigunean jarri nahi izan dira: haien hitzak abiapuntu hartuta, euskarari eta gaztelaniari lotutako gertakari eta ekintza sozialek berentzat duten zentzua (edo esanahia, edo motiboa) ulertzea eta interpretatzea. Azken batean, azterketa “barrutik” egin nahi izan da, parte-hartzaileek proiektuko interakzioan sortutako edukiei emandako zentzua ulertzen saiatuz<sup>24</sup>.

Lana prestatzerakoan eta garatzerakoan, arreta berezia jarri zen parte-hartzaile guztiak elkarrizketarako eta adostasunetara heltzeko eroso eta seguru sentitzen laguntzeko funtzionamendua proposatzean, elkar entzun eta errespetatzeko giroan. Horretarako, irizpide hauetan oinarrituta lan egitea proposatu zitzaizen:

- Errespetatzea.
- Errespetatua sentitzea.
- Entzutea.
- Entzuna sentitzea.
- Arrazoiak zein sentimenduak (edo emozioak) aintzat hartzea.
- Bestearen tokian jartzea.
- Adostea.

Parte-hartzaileek talde-dinamiken bidez lan egin dute: guztira, taldekako sei saio izan ziren. Saio horiek metodikoki aztertu dira grabaketaren, partaideen hitzez hitzeko transkripzioaren eta horren guztiaren analisiaren eta interpretazioaren bidez, azterketa etnografikoetan ohikoa den “hitzez-hitzekotasunaren printzipio”aren arabera (*verbatim principle*, Spradley, 1979/2016). Halaber, sei taldeetako bakoitzak, saioaren amaieran, izandako adostasunak eta desadostasunak laburtu eta idatziz jasotzeko ariketa egin dute.

Horrekin batera, informazio iturri oso aberatsa izan dira parte-hartzaileek modu anonimo eta boluntarioan betetako balorazio orriak (ikus 1. eranskina).

**22** Talde-dinamikei buruz, adibidez, honako lan hauek ikus daitezke: Conde, 2009 eta 2014; Ibáñez, 1992; Neuman, 1997; edo Ruiz, 2017.

**23** Txosten honetan ez da eztabaidatuko, noski, gizarte zientziak edo ikerketa sozialak zer neurritan izaten ahal diren “objektiboak”, “neutralak” edo ikertzaileen alde aurreko iritzi pertsonalek “ez baldintzatuak”.

**24** Hala, gizarte zientzietan dauden ikuspegi guztien artean, lan hau interpretatibo ikuspegian oinarritzen da, zeinak giza ekintzak arrazoituak eta esanahidunak direla jotzen baitu eta, beraz, alderdi subjektiboak aintzat hartzen baititu. Ikus adibidez: Alonso, Rodríguez eta Requena, 2014; Blommaert, 2015; Erize, 1997 eta 1999; Ibáñez, 1992; Neuman, 1997; Spradley, 1979/2016; eta Max Weber, 1993, autore klasikoa.



Taldeen eta parte-hartzaileen diskurtsoak euren hitzetan oinarrituta aztertu dira, eta *edukiei* erreparatuz aztertu dira nagusiki. “Edukiak komunikatzen ahal den hitz, esanahi, irudi, ikur, ideia, gai edo edozein mezuri egiten dio erreferentzia” (Neuman, 1997)<sup>25</sup>. Azken batean, jakin nahi izan da taldeek zer edukiren inguruan sortu dituzten euskarari buruzko adostasunak, edo taldeak partekatutako diskurtsoak, eta zer edukiri buruz ez dituzten sortu.

Hortaz, argi utzi behar da azterketarako oinarritzko irizpidea ez dela izan kanpoko ikertzailearen iritziz *interesgarriak* edo *onak* diren ekarpenak aukeratzea, baizik eta barrutik taldeen adostasunak eta desadostasunak zer hitzetan eta zer edukiri buruz sortzen joan diren identifikatzea, baita horien elkarren arteko lotura prozesuak zein diren ikustea ere, talde bakoitzaren barruan, lehenik, eta azterketaren dinamika orokorrean, ondoren.


Zenbakiekin lanean ari ez garenez, hitzekin eta giza harremanekin eta haiei lotutako polisemia eta konplexutasunarekin baizik, taldeetan bata bestearen ondotik etorritako dinamikak ahalik eta leialen islatuko dituen laburpena egitea izan da, hain zuzen ere, ikerketaren erronka teknikoetako bat<sup>26</sup>. Ongi egin izana espero dugu eta baita parte-hartzaileek halako iritzia izatea ere.

Parte-hartzaileek adierazitakoa (sei talde-dinamiken grabaketak + talde bakoitzak egindako laburpenak + balorazio orri anonimoak) abiapuntutzat hartuta, behetik gora interpretatu behar den piramide honen bitartez irudikatzen ahal da proiektuaren azterketa eta laburpen prozesuaren muina:



10. irudia. Ikerketako analisi prozesua. (Egilea: Xabier Erize)







## 2. ANALISIAREN EMAITZAK







## 2. Analisiaren emaitzak

Behin prozesua azaldu eta gero, ikerketan agertutako edukien analisiaren emaitzak aurkezten dira atal honetan.

Nabarmentzekoa da ikerketan zehar honela adierazten ahal den euskarari buruzko diskurtso berri eta partekatua sortu dela: “Erdaldunen eta euskaldunen arteko errespetua, bi hizkuntzak gureak baitira; eta euskara babestea eta sustatzea” (ikus 2.2.2 eta 3.4 atalak).

Sintesi modura, parte-hartzaileak euskarari buruzko askotariko bizipen pertsonaletatik abiatu dira, hala ere euskara sustatzeko adostasun garrantzitsuak lortu dituzte, desberdinen arteko horrelako elkarguneekin segitzeko gogoia adierazi dute, eta, halaber, oinarritzko desadostasunak eta hurbiltzeko aukerak ere identifikatu dituzte.

Proiektuko talde-dinamiketan parte-hartzaileek sortutako edukien laburpena haiek adierazitakoa ahalik eta leialen jasotzeko asmoz egin da, “1.8 Metodologia” atalean aipatu bezala. Kapitulu hau parte-hartzaileen hitzetan oinarritzen da nagusiki; komatxo artean jaso dira, baina konfidentzialtasuna errespetatzearen ez da egileen izenik esaten.

Analisiaren emaitzak lau ataletan bilduta aurkezten dira (eta haien eztabaida 3. atalean egingo da):

- 2.1** Askotariko bizipen pertsonalak euskararen inguruan.
- 2.2** Euskara sustatzeko oinarritzko adostasunak.
- 2.3** Desberdinen arteko horrelako elkargune pluralekin segitzeko gogoia.
- 2.4** Oinarritzko desadostasunak, eta hurbiltzeko aukerak.

---

### 2.1 Askotariko bizipen pertsonalak euskararen inguruan

Parte-hartzaileek euskarari buruz adierazitako bizipenak askotarikoak izan dira; bizi-, emozio- edo ideologia-inplikazio handienetik hasi eta distantziarik handienera, tarteko egoera guztiak barne hartuta.

Talde-dinamikak modu irekian planteatu dira, alor pertsonaletik abiatzeko. Beren taldeetako gainerako kideekiko interakzio pertsonalaren testuinguruan, parte-hartzaile guztiak beren bizipenak eta euskarari buruz duten jarrera azaldu dituzte; “ez gara ari eztabaida alderdikoiak egiten, iritzi pertsonalak ematen baizik” diote.

Proiektu honen ildotik, pentsa liteke bizipen horiek guztiak Nafarroako gizartean dauden errealitateak islatzen dituztela eta hizkuntza-bizikidetzaz azterketan parte hartu dutenek adierazitako askotariko nahiei eta beharrei erantzuteko gai izanen lirakeen oinarritzko adostasunetan oinarritu beharko litzatekeela. Bizipen desberdinen adierazpen esanguratsuak aurkezten dira, gaika sailkatuta.



### *Jatorrizko hizkuntza natural desberdinak*

Pertsona batzuek jaiotzetik euskararekin duten berezko lotura nabarmendu dute: “Nere hizkuntza euskara da jaiotzez”, esaten du pertsona batek, edo, beste batek zentzu berean dioen bezala, “euskara etxetik datorkit eta nik defendatu egiten dut” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Beste parte-hartzaile batzuek, berriz, gaztelania dute beren hizkuntza naturala haurtzarotik: “Nik dakidanez, nire aitona-amona bakar batek ere ez zuen euskaraz egiten, denak nafarrak ziren arren” [gaztelaniaz jatorrizkoa]. Beste pertsona batzuek antzera diote: “Iruñekoa naiz eta gaztelania da nire hizkuntza” [gaztelaniaz jatorrizkoa], edo “Erriberakoa naiz eta Iruñean bizi naiz orain. Ez dut euskaraz hitz egiten” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

### *Ingurune linguistiko-kultural desberdinak*

Parte-hartzaileen lekukotasunetan askotariko ingurune linguistiko-kulturalak ere, edo etnolinguistikoak, agertzen dira, ez linguistiko hutsak. Hala, euskara berezko hizkuntza duten pertsonak diote ez dela soilik hizkuntza baten kontua, kultura batena baizik, modu orokorragoan begiratuta: “Ez da euskara soilik. Txikitatik bizi izan dudana murgilketa kulturala izan da. Herri kirolak, gastronomia, tradizioak, folklorea... irakatsi dizkirate” [gaztelaniaz jatorrizkoa]. Antzera azaltzen du herri euskaldun batean sortu baina euskaraz partzialki dakien beste parte-hartzaile batek: “Herri euskaldun batekoa naiz. Euskara ikasten ari naiz. Biak dira gure hizkuntzak. Hizkuntza aberastasun, erresonantzia, oihartzun eta sentimendu eramaile da, ez soilik hitz egite arrazionala” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Sortzez gaztelaniaren berezko hiztunak diren pertsonak ere herriko giroa aipatzen dute: “Estellerriko herri batetatik nator, gaztelaniazko giro petoa duena” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

### *Hizkuntz ibilbide desberdinak*

Parte-hartzaileek askotariko ibilbide linguistikoak dituzte baita ere. Haien ibilbideak, noski, beraiek eraikitakoak dira, bizitzan zehar explizituki zein inplizituki egin dituzten aukeren eta egokitu zaizkien baldintzen testuinguruaren ondorioz; ez dira haien jatorrizko hizkuntzen ondorio determinista, ezta baldintza sozialena ere.

Pertsona batek esaten du Iruñekoa dela eta euskara ikasteko aukera egin zuela, eta eroso sentitzen dela bi hizkuntzetan: “Iruñekoa naiz eta euskara ikasi nuen. Ez naiz arrotza sentitzen ez euskaraz, ezta gaztelaniaz aritzean ere. Niretzat, euskara garatu dudana aukera bat da, eta aukera dudana guztietan erabiltzen dut. Bi hizkuntzak maite ditut”.

Beste batek, ordea, esaten du euskara ikasi zuela, baina orain harreman deserosoa duela bi hizkuntzekin: “Iruñekoa naiz. Euskara ikastolan ikasi nuen eta euskaraz mintzo naiz. Hizkuntzekin harreman deserosoa izatera iritsi naiz. Ez dut lotura berezirik sentitzen euskararekin, ezta gaztelaniarekin ere”.

Iruñean segituz, Iruñeko beste parte-hartzaile batek esaten du gaztelania duela jatorrizko hizkuntza, euskara ikasten saiatu dela baina ez duela lortu: “Iruñekoa naiz eta gaztelania da nire hizkuntza. Nire familian ez da euskaraz hitz egiten. Euskara ikasten hasi nintzen gaztetan, baina urte dezenteren ondoren utzi egin nuen. Porrot egindako euskaldun berria naiz. Zer bait ulertzen dut” [gaztelaniaz jatorrizkoa].





Bestelako zentzu batean, jatorrizko hizkuntza euskara duen eta Iruñean bizi den parte-hartzaile euskaldun batek azaltzen du arrotz sentitzen dela Iruñean gaztelania dela-eta:

“65 bost urte ditut eta horietatik 60 maiz arrotz sentitu naiz nere herrian. Izaeraren parte bat kendu didatela sentitu dut askotan. Hasi ziren eskolan debekatuz nere hizkuntzan egin nezan, irakaskuntza guztia eman zidaten gaztelaniaz. Eta Iruñean ere sentitzen dut oso maiz, eta sentiarazten naute, kanpotarra naizela, nolabait esaten didate hizkuntzarekin. Batzuetan errespetoz esaten didate ez dakitela euskaraz, baino beste askotan mespretxuz begiratzen naute. Modu onean esaten didatenean nik hizkuntza aldatzen dut, ezagutzen dudalako erdara ere, noski”.

Erriberatik edo, oro har, gehienbat gaztelaniazkoak diren eskualdeetatik hitz egiten dutenen ibilbide linguistikoak ere agertu dira.

Esate baterako, pertsona batek azaltzen du bere jatorrizko hizkuntza gaztelania dela eta ez duela euskarara hurbiltzeko mugimendurik egin:

“Nafarroako Erriberan jaio nintzen eta euskara niretzat beste edozein hizkuntza bezain arrotza izan da. Niri gaztelania egokitu zitzaidan, ezin bainuen aukeratu zer hizkuntzatan mintzatuko nintzen, ezta non jaioko nintzen ere. Ez nago harro hitz egiten dudana hizkuntzaz, baina ezta kontrakoa ere. Horixe egokitu zitzaidan eta ez zen euskara izan” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Jatorriz Erriberakoa den eta gaur egun Iruñean bizi den beste parte-hartzaile batek euskararenganako nolabaiteko hurbilketa emozionala adierazten du, nahiz eta euskaraz ez jakin:

“Ez dut euskaraz hitz egiten, ikasteko nago oraindik. Hizkuntza oso emozionala da. Euskara bide oso konplexuak izan dituen gatazkaren biktima da zoritxarrez. Hizkuntzaren alderdi emozional horrek laguntzen du, hemen Iruñean, euskararekiko dikotomia ulertzen” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Eta beste pertsona batek, gehienbat gaztelaniaz mintzatzen den eremuko bera ere, azaltzen du nola eraman dituen bere seme-alabak herriko eskola publikoko A eredura (euskara ikasgai gisa duena), nahiz eta berak euskaraz ez jakin: “Horrek ez dit eragotzi seme-alabak herriko eskola publikoan A ereduaren eskolatzea” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

### *Euskarari buruzko behar eta nahi desberdinak, eta hurbiltasun edo urruntasun maila desberdinak*

Euskararekiko behar eta nahien aldetik, eta hurbiltasun edo urruntasunaren aldetik ere, oso maila desberdinak adierazi dituzte parte-hartzaileek. Hala, batzuek oso maila altua agertu dute: “nahiak eta beharrak handiak ditut nik, pentsatzen dut euskaraz bizitzeko eskubide guztia dudala eta horretarako bitartekorik ez didatela ematen”. Zentzu beretsuan, beste pertsona batek esan du etiketatua sentitzen dela Iruñean euskaraz hitz egiten duenean, eta hala gerta ez dadin bere nahia agertu du: “Iruñean euskalduna zarela esaten baduzu, automatikoki etiketa bat jartzen dizute; hori hemen bakarrik gertatzen zait, sekula ez kanpoan bizi nintzela”.



Euskararekin eta euskal kulturarekin lotura estu-estua agertu duen parte-hartzaile batek Espainiako kultur aberastasun handiaren osagai bezala ikusten ditu: “Nafarroa... Euskal kulturak, gainerakoekin batera, ematen dio handitasuna Espainiari. Aniztasun hori da nazio gisa dugun aberastasunik handiena” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Aurrekoek ez bezala, beste parte-hartzaile batzuek euskararekiko urruntasuna eta behar edo nahi pertsonal eza adierazi dituzte. Hala, pertsona batek hau esan du: “Euskararekiko beharra norberaren baitakoa da. Nik ez dut inolako beharrik” [gaztelaniaz jatorrizkoa]. Eta beste batek ere antzera hitz egin du: “Euskara nire mundu mentaletik nahiko urrun dago. Egia esan une honetan ez daukat euskarari buruzko beharrik edo nahirik. Aldendutako ikuslea naiz gehienbat” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Ikus daitekeenez, ikerketan parte hartu duten pertsonak askotariko bizipenak erakutsi dituzte euskarari dagokionez, gizartean daudenen isla neurri handi batean; eta hori da izan duten abiapuntua bai oinarrizko adostasunak identifikatzerakoan (2.2 eta 2.3 atalak), bai oinarrizko desadostasunak eta hurbiltzeko aukerak bilatzerakoan ere (2.4 atala).

## 2.2 Euskara sustatzeko oinarrizko adostasunak

Emaitzen analisiak erakusten du parte-hartzaileak euskara sustatzeko garrantzi handiko oinarrizko adostasunak identifikatzera iristeko gai izan direla. Aurrera egiteko adostasunak dira, ez blokeo bezala erabiltzeko: “Adostasun zabalak bai, baina aurrera egiteko, ez blokeatzeko” (ikus 2.2.4 atala). Zortzi puntutan antolatuta aurkezten dira:

- “Pertsona desberdinekin egotea gustatu zait”: euskarari buruzko elkargune pluralen beharra.
- “Erdaldunen eta euskaldunen arteko errespetua: bi hizkuntzak gureak dira”.
- “Partekatutako oinarrizko balioen markoa”: “babesa”, “sustapena”, “borondatea”...
- “Epe luzera balio izaten jarraituko duten aurrera begirako adostasunetara heltzea. Ez hain anbizio handikoak, baina zabalagoak, etorkizunean aurrerapenak egon daitezten”.
- “Euskara nafar guztien kultur ondarea”.
- “Euskaraz hitz egiten dugun nafarrak garen aldetik, Nafarroako gizarteak errespetatzen gaituela sentitzea, gainerako herritarrak bezalaxe”.
- “Euskara ez dadila izan jaurtitzeko arma politikaren alorrean”.
- “Orain une egokia da euskarari buruzko akordioak lortzeko”, eta adostasun handiko beste eduki batzuk ere bai.

### 2.2.1 “PERTSONA DESBERDINEKIN EGOTEA GUSTATU ZAIT”: EUSKARARI BURUZKO ELKARGUNE PLURALEN BEHARRA

Ia parte-hartzaile guztiek egin dute euskarari buruzko elkargune plural honen ekimenaren balorazio oso positiboa, hain jatorri, bizipen, pentsamendu eta sentsibilitate desberdinetako pertsonen artean sortutako elkarrizketa libre eta elkar errespetuzko giroagatik eta euskarari buruzko adostasunen bilaketan lagungarri izaten ahal delako: “Pertsona desberdinekin egotea gustatu zait. Euskalduna naiz, baina nahiago izan dut erdaldunak zeuden talde batean egon eta guztion artean hitz egin”. Era berean, “gustatu zait nirearen desberdinak diren planteamenduak ezagutzea; besteei entzundako hausnarketekin gozatu egin dut eta harritu egin naiz. Uste dut esperientzia pertsonal positibo hau modu batera edo bestera nire ingurunera hedatuko dela” [gaztelaniaz jatorrizkoa].



Ildo beretik, honela laburbiltzen du batek: “Oso ideia ona iruditzen zait ziklo honetako ekimena; iruditzen zait adostasunak ahalbidetzen lagundu behar duela” [gaztelaniaz jatorrizkoa]. “Gune hau bikaina da, hau da Nafarroan falta dena” [gaztelaniaz jatorrizkoa], dio beste batek. “Oso interesgarria iruditzen zait foro hau, askoz gehiago hitz egin behar genuke formulazio bikainaren fase horretatik zehaztapenera igarotzeko” [gaztelaniaz jatorrizkoa], planteatzen du parte-hartzaile batek. “Gauza horietaz hitz egin eta oinarriko adostasunak sortzeko aukera ematen duten foroak egon daitezela. Klase askotariko jendea foro batean bilduta, noiz izan dugu horretarako aukera? Gutxitan. Horregatik, balioetsi beharreko ekimen oso ona iruditzen zait” [gaztelaniaz jatorrizkoa], gehitu du beste batek. Beste parte-hartzaile batek honela dio: “Mota honetako foroek jarrerak hurbiltzeko eta argitzeko beste ikuspegi bat izateko, akordioak definitzeko eta aurrera egiteko balio dute” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

“Hizkuntzen konfrontazio giroa muturrera ez eramatearen garrantzia” [gaztelaniaz jatorrizkoa] azpimarratu du talde batek.

27 Irakurketa arintzearen, elkarren segidan dauden aipuak denak jatorriz gaztelaniazkoak baldin badira, “gaztelaniaz jatorrizkoak” azalpena gehituko da kasu honetan bezala, pluralean, ez singularrean.

Pertsonen buruz hitz egiteko, eta ez hizkuntzei buruz modu abstraktuan, proposamena positiboki baloratu zuten: “oso garrantzitsua da pertsona abiapuntutzat hartuta hitz egitea”, zioen pertsona batek. “Eskubidea ez dago hizkuntzan, ez dago lurraldean, pertsonengan baizik” [gaztelaniaz jatorrizkoak<sup>27</sup>] gehitu zuen beste batek.

Era berean, hizkuntzei buruzko sentimenduaren ikuspegia txertatzea ere, ez alderdi arrazionala soilik, positiboki baloratutako beste alderdi bat izan da: “Sentimenduak, ikuspegi hori sartu izana garrantzi handikoa da, ez gelditzea bakarrik maila arrazionalean”. Era berean: “Hitza eta sentimendua duzue’ planteatu zaigu, eta hori oso ongi iruditzen zait. Ezagutzen duzunarekiko sentimenduak dituzu eta nik euskararekiko sentimendua dut euskaraz badakidalako” [gaztelaniaz jatorrizkoa]. Ildo beretik: “Sentimenduak inportanteak dira. Eta nik uste dut inportantea dela ere kontuan hartzea bestearen sentimenduak eta kapaz izatea bestearen tokian jartzeko”.

Proiektuaren funtzionamenduan euskararen eta gaztelaniaren tratamendua ere positiboki baloratu zen: “Bi hizkuntzak naturaltasun osoz erabiltzeko aukera”; “Hizkuntzak foroan arintasunez eta naturaltasunez konbinatzeko oso modu ona” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Adierazitakoez gain, parte-hartzaileek balorazio edo aipamen asko egin zituzten. Haien interesagatik, hemen transkribatzen dira:

- “Zorionak eta mila esker egindako lanarengatik. Oso esperientzia interesgarria eta aberatsa izan da”.
- “Nire taldean denak poz-pez zeuden” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Oso gustura. Mila esker!” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Oso gustura” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Oso interesgarria iruditzen zait foro hau, mila esker!” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Oso interesgarria foroaren aukera hori izatea, ezberdinekin elkartzea”.
- “Oso ongi. Bigarren egunean emankorra goa. Aurkezpena ongi”.
- “Oso lan txukuna egin duzue”.
- “Parte hartzeko aukera eman izana” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Profesionaltasuna”.
- “Esperientzia interesgarria” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Pertsona, sentimendu, esperientzia eta bizipen anitzak elkartu eta elkar hartzea oso interesgarria helburua lortu edo gutxienez bidea egiteko”.



- “Bertzela pentsatzen dutenekin eztabaidatzeko eta ideiak trukatzeko aukera”.
- “Jende ezberdinekin elkartu eta eztabaidatu lasaitasunez”.
- “Parte-hartzaileen aniztasuna gustatu zitzaidan, gaiarekiko sentsibilitateari dagokionez” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Adostasunerako bidearen metodologia gustuko dut: errespetatzea, entzutea eta abar” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Antolatu izana. Ideia bera oso interesgarria, sentiberatasun batzuetako jendeak bildu baititu”.
- “Pertsonak entzuteko eta agresibitate gabe erantzuteko izan duten gaitasuna” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Gai honi buruz hitz egin ahal izatea gure gizartearen ‘Titanic’aren norabidea birarazteko, ‘izozmendi’arekin talka egin ez dezan” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Elkarrizketarako giro libre eta errespetuzkoa” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Desberdin pentsatzen duten pertsonekin elkartzea” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Hasiera batean aurkakoak diren iritziak errespetuz alderatzeko aukera izatea” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “–Lehenengo saioarekin alderatuta, uste dut hurbilago gaudela. –Nik ere bai. – Hitz egiten jarraitu behar da” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Kontsentsua hurbilago egon daitekeela ikustea, harrituta geratu nintzen, onerako, nire taldean hain jende desberdinak izanda kontsentsua uste ona baino gertuago egon litekeela ikusita”.
- “Ikuspuntu desberdineko pertsonekin klima konstruktibo batean eztabaidatzea”.
- “Foro askotarikoak sortzea politikaren dinamikatik at”.
- “Lasaitasunez hitz egitea talde plural batean”.
- “Aniztasuna, jende diferenteei entzun ahal izatea”.
- Baina pertsona batek besteek eman ez zuten iritzi bat azaldu zuen proiektuko parte-hartzaileen osaketari buruz: “Parte hartzaileen artean uste dut hain muturrekoak ez genuela izan behar. Politikari gehiegi”.
- Beste batek ere adierazi zuen bere kezka adostasunetara heltzeari dagokionez: “Ni ez naiz oso baikorra kontsentsuari buruz”.

## 2.2.2 “ERDALDUNEN ETA EUSKALDUNEN ARTEKO ERRESPETUA: BI HIZKUNTZAK GUREAK DIRA”

“Elkarren arteko errespetua erdaldunen eta euskaldunen artean: bi hizkuntzak gureak dira”, eduki horrek, segur aski, adostasun handiena lortu du proiektuko parte-hartzaileen artean, desberdinen arteko elkargune pluralaren ekimen honen balorazio positiboarekin, eta euskara sustatu eta babestearekin batera. Azken batean, horrekin adierazten ari dira Nafarroako herritar guztiak, euskaldunak nahiz erdaldunak izan, errespetatuak eta gizartearen leku bera dutela sentitu behar direla, horrek dituen ondorioekin (2.2.6 atalean garatuta dago errespetatuak sentitzeko beharra, euskarazko talde bateko partaideek adierazi duten bezala).

“Nik uste dut errespetua dela hitz nagusia”, adierazi zuen pertsona batek. “Hor egon behar dugu denok bi hizkuntzak zaintzeko, gureak direlako eta aldi berean existitu eta bizikide izan behar dutelako” [gaztelaniaz jatorrizkoa], esan zuen parte-hartzaile batek. “Bertako bi hizkuntzak aitortzea, errespetua”, adierazi zuten parte-hartzaileek, “sustatzen jarraitu behar den errespetuzko jarrera dago”, “hizkuntzen konfrontazio giroa ez handizkatzea”, “argi dago, errespetuzko eta hizkuntza erabili eta irakasteko gutxieneko aurrerapausoak emanez gero”. Honela zehaztu zuen pertsona batek: “Ez dadila gertatu errespetuz hitz egin eta hori euskara giltzapean jartzea izatea, horma hobi batean, ez komunikazio tresna gisa”. Hori guztia ikuspegi eleaniztunarekin,



zenbaiten arabera: “Nire seme-alabentzat euskara, gehi gaztelania, gehi ingelesa, gehi frantsesa” [gaztelaniaz jatorrizkoak].

Ildo berean, enpatian oinarrituta eta gatazkarik gabe lan egitea proposatu zen: bestearen lekuan jartzea; bai egungo Administrazioak erdaldunen lekuan jartzea, bai beste batzuk euskaldunen lekuan jartzea:

“Ona litzateke erakundeek erdaldunen tokian jartzen jakitea, enpatiazko esfortzua egitea... Baina adi!, ez zait gustatu nola tratatu gaituzten euskararekiko sentsibilitatea izan dugunoi gehiengoa erdalduna zenean. Ez egin etsaiari zuri egiterik nahi ez zenukeenik” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

### 2.2.3 “PARTEKATUTAKO OINARRIZKO BALIOEN MARKOA”: “BABESA”, “SUSTAPENA”, “BORONDATEZKOTASUNA”...

Parte-hartzaileek azpimarratu dute garrantzitsua dela partekatutako oinarritzko printzipio edo balio batzuk identifikatzea euskarari buruz herritar batzuen eta besteen nahiei eta beharrei erantzuteko gai den politika bat garatzeko. Talde euskaldunak ere, beste terminologia batekin, adierazi du euskararen aitopren sinboliko eta instituzionala egitea garrantzitsua dela:

“Nik uste maila sinbolikoan askoz gehiago egiten ahal dela, eta hor, bai, lortzen ahal zela kontsentsu bat. Adostasun bat nik ikusten dudana da, maila teorikoan onartu behar dugula euskaldunok besteak bezainbesteko eskubideak ditugula”.

Talde-dinamiketan zehar alderdi baten edo bestearen ñabarduretatik haratago partekatuak izaten ahal diren balio edo printzipioen proposamenak egin dira. Puntu hauetan laburbiltzen dira:

- Euskararen balioa nafarren kultur ondare gisa.
- Euskara Nafarroako bi hizkuntzetako bat dela jotzea.
- Elkarrenganako errespetua.
- Euskara babestea.
- Euskara sustatzea.
- Borondatezkotasuna.
- Gradualtasuna.
- Hizkuntza arrazoiengatik ez diskriminatzea.
- Errealitate soziolinguistikoetara egokitzea.
- Euskara irakastea.
- Administrazioak herritarrei arreta euskaraz ematea.

Adierazitako oinarritzko printzipioetako asko laburbildu eta elkarren artean erlazionatzen zituen ekarpena egin zuen, lagunarteko hizkeran, partaide batek:

“Euskara lurralde honetarako ona delako ideiarekin gelditi gaitzela denok. Lehenik eta behin, babestu egin behar da, galdu ez dadin eta, ondoren, sustatu egin behar da. Denok positibotzat hartzeko puntura iritsi behar dugu; ikastea ona da, baina ez zaio ezer gertatuko ikasten ez duenari. Aurrera egitearen lasaitasuna, baina inposaketarik gabe. Hori da erronka” [gaztelaniaz jatorrizkoa].



Beste batzuek ere elkarren artean lotu zituzten esandako printzipioak: “Inposaketari ihes egitea eta borondatezkotasunez, gradueltasunez eta errespetuz lan egitea”. “– Inposaketak saihestea. –Borondatezkotasuna, hori da. –Borondatezkotasun, progresibitate kontzeptuak”. Era berean: “Egitea eta egiten uztea. Herritarren askatasuna. Gehitzea, ez kentzea, bazterketarik ez. Herritarrak ez behartzea hizkuntza bat edo beste aukeratzera” [gaztelaniaz jatorrizkoak], edo “Libre gara bakoitzak nahi ditugun identitateak, hizkuntzak, estetikak... aukeratzeko, hori ez da eztabaida”.

Horren antzeko ildotik, eta aurrekoa osatuz, beste partaide batek “1.5 Gaiari buruzko aurrekariak” atalean aurkeztutako EAEko diskurtsoei buruzko ikerketan (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016) adierazitakoa proposatu zuen oinarritzko balioen marko gisa:

“EAEn egindako euskarari buruzko diskurtsoen ikerketako hiru ondorioak hemen ere aplikagarriak izanen lirake, partekatutako oinarritzko balioen marko gisa. Diagnosi txukuna eta argia dela iruditzen zait niri, eta agian esaten ahal dugu EAEn partekatutako oinarritzko balioak diruditen horiek marko egokia izaten ahal direla Iruñeko hiri konurbazioaren berehalako etorkizunerako” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Beste partaide batek elkarren artean konbinatzen zituen zerrendatutako oinarritzko printzipioetako asko, bere iritziz Iruñeko herritarren oinarritzko nahia izanen litzatekeena laburbiltzean:

“Nire ustez, Iruñeko herritar bati galdetuko balitzaio, hau eskatuko luke: «begira, nik nahi dudana da nire hizkuntzan hitz egin ahal izatea, normaltasunez erabili ahal izatea, ez daitezela etorri beste hizkuntza batekin gogaitaraztera, ez daitezela etorri nik nahi ez dudana hizkuntza bat inposatzera, eta ez dezadala jasan bidegabekeriarik beste hizkuntzan hitz egiten dutenen aldean, adibidez, irisgarritasun hobea izatea lanpostuetarako, seme-alabak eskolatzeko edo bestelakoak»” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Azkenik, esan beharra dago parte-hartzaile guztiek ez diotela garrantzia maila bera eman euskarari buruz partekatutako oinarritzko balioen marko mota hori finkatzeari. Zenbait partaide euskaldunek uste zuten egiatan errealitatean islatzen ez diren hitz onen deklarazio hutsa zela (ikus “2.4 Euskarari buruzko oinarritzko desadostasunak, hurbiltzeko aukerekin”).

#### **2.2.4 “EPE LUZERA BALIO IZATEN JARRAITUKO DUTEN AURRERA BEGIRAKO ADOSTASUNETARA HELTzea. EZ HAIN ANBIZIO HANDIKOAK, BAINA ZABALAGOAK, ETORKIZUNEAN AURRERAPEN BERRIAK EGON DAITEZEN”**

Azterketako parte-hartzaileen artean, gehien zabaldutako planteamenduetako bat izan da epe luzera pentsatzearen garrantzia nabarmentzea: “–Epe zabalagoz hitz egitea gustatzen zait. Nik uste dut ibilbide luzeko bideak direla, puntu zabalagoak, urte batzuetako ikuspegia, perspektibarekin... –Bai, bai, bai” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Honako ideia hau da horren irudikapen garbia: euskararen babesean eta sustapenean etorkizuneko gobernuekin eta udalbatzekin denboran iraunkor bilakatzen ahal diren urratsak egitea, adostasun sozial eta politiko zabaletan oinarrituta, atzera egiteko tentaziorik gabe. Honela formulatu dute proposamen hori talde batean:



“Epe luzera balio izaten jarraituko duten euskarari buruzko aurrera begirako adostasunetara heltzea. Ez hain anbizio handikoak, baina zabalagoak eta, beraz, erreagoak, etorkizunean aurrerapenak egon daitezten. Adostasun zabaletan oinarritzeagatik (= atzera egiteko tentazio politikoei loturik ez egotea) sozialki eta politikoki iraunkorrak izatea. Adostasun zabalak, %51ko gehiengoetan soilik oinarritzen ez direnak, mota horretako gehiengoak egoeraren arabera direlako eta, beraz, ez dute inora eramaten, ez zentzu batean ez bestean, eta iraultzen ahal dira hurrengo legealdian” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Nolanahi ere, adostasun zabalak bilatzea ez litzateke gobernuen ekimenak edo ekintzak blokeatzeko arrazoitzat interpretatu behar; aurrera egiteko baliatu behar litzateke, ez eteteko, pertsona batek adierazi zuen moduan gainerakoen baiespenarekin: “Adostasun zabalak bai, baina aurrera egiteko, ez blokeatzeko”. Halaber planteatu zen gobernatzeko, eta, hain zuzen ere, euskarari buruz gobernatzeko, “%51 zilegi dela, baldin eta gutxiengoa errespetatzen bada” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Partaide bat, bere posizio politikotik, iritzi berekoa zen epe luzeko adostasun zabalak bilatzeko planteamenduan: “Urrats ez itzulgarriak ematea, jende guztiak horiek bere gain hartzea, baita guk ere, eta hortik aurrera gehituz joatea” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Beste pertsona batzuek ere adierazi zituzten antzeko planteamenduak: “Oinarri berriak jartzea, haien gainean etorkizuneko egiturak hazi ahal izan daitezten. Ibilbide luzeko adostasunak, urteetako perspektibarekin”; edo beste hau: “Euskarak gehiengo zabalak akordioak behar ditu, bai hezkuntzan, bai erabilera normalean eta ofizialean, bai bizikidetzan sozialean. Urrats txiki seguru eta ez itzulgarrien bitartez” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Nola eraman praktikara denboran iraunkorrak izanen liratekeen eta legealdi bakoitzean atzera egiteko tentaziorik ekarriko ez luketen akordioak bilaketa hori? Talde batean, modu hau proposatu zuten:

“Neurri espezifikoak hartu behar dira; atzera egiteko aukerarik emanen ez duten akordio puntu zehatzak bilatu behar dira. Norberak bere alderdian esan behar du, aizu, gai hau honela utziko dugu. Honako gai hauek lortzen ahal da akordioa: hezkuntza, landa eremuetako hezkuntza, seinaleztapena, horma-irudiak, euskara lanpostu jakinetan herritar elebidunak artatzeko, bururatzen zaizkigun beste batzuk...” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

## 2.2.5 “EUSKARA NAFAR GUZTIEN KULTUR ONDAREA”

Euskara Nafarroako biztanle guztien kultur ondaretzat jotzea proiektuko parte-hartzaileek adostutako eta nabarmendutako planteamendua izan da: “Euskara Nafarroan aberastasuna da”, “Euskararen balio positiboa kultur ondare gisa”, “Kultur ondasuna” edo “Kultur balioa, nafar guztien ondarea” [gaztelaniaz jatorrizkoa]; talde guztietan ohikoak izan dira halako adierazpenak. “Kultur ideia, hemengo hizkuntza, hemengo hizkuntza hitz egitearen harrotasuna”, “Kultur elementu gisa begiratzen badiogu, gure zati gisa, Nafarroa harrigarria da maila horretan”, laburbiltzen dute zenbaitek. “Jendeari azaltzea, gizarte mailan, ideia arruntekin, euskara ona dela Nafarroarentzat”, gehitu du beste batek [gaztelaniaz jatorrizkoa].



Hortik abiatuta, beste ñabardura batzuk ere gehitu dituzte, eta horietan ere ondorioztatzen ahal da akordio zabalak daudela. Esate baterako, talde batean behar hau nabarmendu zuten: “euskara kulturaren eta nafarren ondarearen eremuan birkokatzea”. Ideia honen garrantzia ere aipatu zuten: “Gizarte hobeia izatea lortzeko gai izatea, euskara presente izanen duena. Euskarari buruzko iritzien inguruan bi gizarte ez sortzea” [gaztelaniaz jatorrizkoak].

Ildo horretatik, euskararen ondare balioan, horren sustapenerako arazoak topatzen dituzte: “Balio positiboa ematea, kultur balioa, ondarea, hemengo hizkuntza; ona da euskara sustatzea”, “Euskararen garapena eta ikaskuntza sustatzea gure hizkuntza delako” edo “Euskara kultur ondarea, hizkuntza aniztasuna... Oinarri berriak ezartzea, horien gainean etorkizuneko egiturak haz daitezten”. Parte-hartzaile batek ideia hau bota zuen adibide gisa: “Tuteran Nafarroako zati euskaldunarengatiko harrotasuna, hori berreskuratu beharra dago” [gaztelaniaz jatorrizkoak].

#### 2.2.6 “EUSKARA HITZ EGITEN DUGUN NAFARRAK GAREN ALDETIK, NAFARROAKO GIZARTEAK ERRESPETATZEN GAITUELA SENTITZEA, GAINERAKO HERRITARRAK BEZALAXE”

Puntu hau berezia da proiektuko partaide euskaldunen oinarritzko adostasun bat adierazten duelako: Nafarroako gizartean errespetatuak sentitzeko nahia, gainerako herritarrak bezalaxe. Esaten ahal da, espresuki edo esan gabe, proiektuko gainerako partaideak ere bat etorri direla euskaldunen nahi horrekin.

Hitz hauekin adierazi dute: “Nafar euskaldunak errespetatuak sentitzea nafar gizartean, lehen-mailako herritar gisa sentitzea, gainerakoak bezala”.

Bigarren mailako herritar gisa ez sentitzearen ildo horretatik, euskaldun batek honela azaldu ditu bere beharrak:

“Bigarren mailako herritar ez sentitzea. Euskararik ez dakiten gainerako herritarrei nik ez diet deus ere eskatuko eta ez nieke euskarara behartuko. Baina hori bai, nik Administrazioari bai, Administrazioa baita ahalegina egin behar duena, ahalegin gehigarri bat, ni, eta gu, arrotz ez sentitzeko, non eta gure herrian. Nik noizean behinka bederen zinea euskaraz ikusi dezadan, adibidez, antzerkia, irratia normaltasun osoz, telebista normaltasun osoz euskaraz”.

#### 2.2.7 “EUSKARA EZ DADILA IZAN JAURTITZEKO ARMA POLITIKAREN ALORREAN, EUSKARA ALDERDIKERIATIK BEREIZTEA”

“Hizkuntza bat, euskara, denon ondarea dena, ez dadila sekula izan jaurtitzeko arma politikaren alorrean” dio partaide batek, denen baiespenarekin. “Eztabaida politikoak bahitua du oraindik ere euskara. Jaurtitzeko arma izaten jarraitzen du. Atsedena eman diezaioz. Atera dadila. Atsedena har dezala” dio beste batek ildo beretik [gaztelaniaz jatorrizkoak].

Horren antzeko ildotik, euskara alderdikieratik bereiztean datzan beste ikuspuntu batek hau esan du: “Euskara alderdikieratik bereiztea, baina horrek ez du kentzen alor teknikoan hizkuntza politika egin behar izatea”, eta ikuspegi horretan akordioa egon da partaideen artean. Beste partaide batek ere antzera azaldu du: “Hizkuntza-politika politika da, hizkuntza planifikazioa da, eta honako honetan datza: hizkuntzen





gaia modu alderdikoian ez erabiltzeko ados jartzea eta modu bidezkoan elkarrekin bizitzeko adostasun batzuk bilatzea” [gaztelaniaz jatorrizkoak].

Pixka bat aurrera eginez, proiektu politiko jakin bat hizkuntza jakin batekin ez lotzearen ideiak akordio handia lortu du partaideen artean, “euskarari erabilera politikoa emateari uko egitea adostu da” [gaztelaniaz jatorrizkoa], eta honela laburbiltzen ahal da:

“Hizkuntza jakin bat ideologia batekin, proiektu politiko jakin batekin lotzea ez da ona hizkuntza politikan. Txarra da hizkuntzetarako eta bizikidetzarako. ‘Hizkuntza berdin nazioa’ paradigman gaude oraindik. Euskara ez erabiltzea aukera politiko jakinen aldeko edo aurkako arma gisa” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Parte-hartzaile batek analisi hau egin zuen Nafarroako bi hizkuntzen eta politikaren artean izan diren harremanei buruz:

“Oinarritzko arazoa da Nafarroako bi hizkuntzak historikoki proiektu nazional desberdinekin lotu izan direla duela mende bat baino gehiagotik hona: Espainiaren eraikuntza nazionalaren proiektua eta Euskadiren edo Euskal Herriaren (nahi den bezala deitu) eraikuntza nazionalaren proiektua. Horietako bakoitzak hizkuntza hartu du funtsezko elementutzat. Horregatik, hizkuntzei buruzko eztabaidak aurka jartze horrek menderatuta daude” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Hortik ateratzeko, “hizkuntzetan eta hizkuntza politikan esentzialismoak saihestea, praktikotasunera joatea” [gaztelaniaz jatorrizkoa] azpimarratzen zuen pertsona batek. Beste partaide batek antzeko zerbait adierazi zuen:

“Nik utziko nuke gaia esentzialismotik kanpo. Joan nahi nuke oso kontu eta maila konkretuetara. Eskubideak bermatzearekin batera, gauza asko aldatuko lirake, oso erraza da. Sortuko dira estruktura batzuk, eta gero aske izango gara lurralde honetako gizataldeak eskubide horiek disfrutatzeko edo ez; irakaskuntza mailan edo osasungintzan”.

Horrez gain, beste pertsona baten iritziz, euskararekin azken hamarkadetan gertatutakoa eta horrek utzi dituen ondorioak lirake politizazioaren gaiari buruzko beste ikuspegi bat: “Euskarari egin zaion politizazioak min handia egin dio nire ustez”. Beste batek honela azaldu zuen: “Hizkuntza gehiegi politizatu da azken 30 urteetan, beste gai batzuegatik, eta ondorio ugari utzi dizkigu. Bakea egin behar dugu maila guztietan, euskara gaitzetsi ez dadin” [gaztelaniaz jatorrizkoak].

Gizartean nolabaiteko pisua duten eragile jakinen diskurtsoak hanpatzea edo erradikalizatzea litzateke hizkuntza gaien politizazioari buruzko beste alderdi bat. Honela zioen partaide batek: “Batzuetan geure diskurtso politikoak ez ditugu erabat sinesten, baina erradikalizatu egin behar izaten ditugu batzuetan”. Beste batek honela esan zuen jarraian: “Ni kezkatu egiten nau jarrerak defendatu behar direlako zuek politikariok euskara erabiltzeak eta nolabait diskurtso hanpatu bat egiteak”. Beste batek honela zioen: “Politikariak, sindikalistak, kazetariak... sumin hori maila sozialera hedatzen ari gara eta ez da egia”. Horregatik, komenigarria dirudi “konfrontazioa ez puztea, arazoak ez puztea, konpontzen saiatzea”. Honelako diskurtsoak saihestea: gizartera “sumina” hedatzen dutenak, “hanpatuak” eta “jarrera erradikalizatuak” islatzen dituztenak [gaztelaniaz jatorrizkoak].



### 2.2.8 “ORAIN, UNE EGOKIA DA EUSKARARI BURUZKO AKORDIOAK LORTZEKO”, ETA ADOSTASUN HANDIKO BESTE EDUKI BATZUK ERE BAI

Proiektuan zehar adostasun handiko beste eduki asko sortu dira, aurreko ataletan aurkeztutakoez gain. Horietako batzuk zerrendatzen dira (zein hizkuntzatan esan diren bereizi gabe, bietan agertu baitira modu batean edo bestean):

- “Orain une egokia da”: “Une ezin hobea da, eta oinarriak ezartzen ahal dira iraunkorrek izanen diren gutxieneko akordio batzuetara heltzeko”. “Une ezin hobea da euskarari buruzko akordioak lortzeko, bake sozial eta politiko handiagoa dagoelako. Egungo testuinguruak akordiorako eremuak sortzen laguntzen du”. “Aparteko une historikoa da eta muturreraino aprobetxatu behar da. Hizkuntza beste hainbat gauzari buruz hitz egiteko arma bilakatu da... Muinean, segur aski, oinazea eta arakatu gabeko diskurtsoa egonen da, enkistatutako zerbait”. “Unea egokia da etorkizunerako oinarri berriak finkatzeko”.
- “Sedukzioa”: “Sedukzioa. Euskara hizkuntza erakargarri bilakatzea”, proiektuko euskaldunen artean adostasun handia izan zuen ideia horrek.
- “Administrazioak euskara babestea”:
  - “Administrazioan ahalegina egitea herritarren hizkuntza beharrei modu proportzional eta arrazoizkoan erantzuteko, diskriminaziorik gabe”.
  - Administrazioak gizartea euskararen balio positiboan hezte.
  - Naturaltasuna euskarak eta gaztelaniak erakundeetan duten presentzian: “naturaltasuna bi hizkuntzek presentzia izan dezaten jakinarazpenetan eta ekitaldietan”.

## 2.3 Desberdinen arteko horrelako elkargune pluralekin segitzeko gogoia

Parte-hartzaileetako askok etorkizunean hau bezalako elkargune edo elkar topatzeko espazio gehiago antolatzen segitzeko proposamena egin zuten, lan egiteko eta adostasunak bilatzeko bide horretan aurrera jarraitzeko: “Animatu zaitezte gaiarekin jarraitzera”; “Egin daitezela beste foro batzuk; gazte gehiago egon daitezela; helaraz dadila giro hau gizartera”; “Interesgarria da beste foro batzuk egitea elkarrizketa bideratzeko, bateratze lana egiteko, bakoitzaren jarrerak ezagutarazteko eta atera diren neurri zehatzei buruz aurrera egiten jarraitzeko, nahiz eta hasieran agian ados ez egon, baina hitz egiten jarraitzen ahal da”; “–Gustu hartu diogu!”; “–Hurrengoa egiteko gogoekin goaz!” [gaztelaniaz jatorrizkoak]. Edo hauek: “Saio gehiago egin behar liriteke, oso interesgarriak direlako”; “Foroak jarraitu behar du. Hurrengo pausoak finkatzeko eta adosteko”.

## 2.4 Oinarrizko desadostasunak, eta hurbiltzeko aukerak

*Desadostasun* gisa (edo “denek onartzen ez dutena”, ikus “1. Sarrera” atala) zenbait eduki jasotzen dira atal honetan, proiektuko talde edo partaide planteatutakoak, baina beste talde edo partaideek modu esplizituan edo inplizituan horien inguruan ikuspegi desberdinak izan dituztenak, eta, beraz, ezin esaten ahal da onartuak izan



direnik edo adostasun orokorra lortu dutenik. Lan honetan aipagarriena adostasunak izan diren arren, eta parte-hartzaileek entzuteko, errespetatzeko, bestearen lekuan jartzeko eta adostasunak bilatzeko jarrera argia agertu duten arren, ulergarria da ahobatezkotasuna ezinezkoa izatea, are gehiago parte-hartzaileen artean dagoen sentsibilitate edo hizkuntza lehenetasunen aniztasuna kontuan hartuta. Ez genuke nahi desadostasunen berri ere ematea oztopo izatea ikerketako parte-hartzaileek lortutako adostasunak eraikitze bide nagusian. Partaide batek honela azaldu du oztopo izaten ahal den hori: “Edo, berehala, bereizten gaituen elementua edo adostasunera heltzea ahalbidetzen ez gaituena aipatzen al dugu lehenbizi?” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Azterketako eztabaidetan gehien agertu diren adostasunik gabeko edukiak azalduko dira hemen, honela antolatuta:

- “Nola erantzun behar die Administrazioak herritarren hizkuntza beharrei eta nahiei?”.
- “Nola lotu behar da euskara lanarekin eta eginkizun publikoarekin?” (hasierako desadostasun handitik, pixkanakako hurbilketara, zenbait irizpidetan oinarrituta, hala nola: herritarrekiko kontaktua eta lanaren planifikazio arduratsua)
- Ba al dago “euskararen inposaketa”rik?
- “Belaunaldi berri guztiek euskara izan dezatela eskola-curriculumean?”.
- Desadostasunak eragin dituzten beste puntu batzuk.

#### 2.4.1 “NOLA ERANTZUN BEHAR DIE ADMINISTRAZIOAK HERRITARREN HIZKUNTZA BEHARREI ETA NAHIEI?”

Parte-hartzaileen artean, eztabaida sortu da Administrazioak herritarren hizkuntza beharrei eta nahiei erantzuteko moduari buruz, onartutzat emanez, hori bai, Administrazioari euskara babestea dagokiola. Gai horrek lotura du eztabaida sortu duten beste alderdi batzuekin. Eta horiek, aldi berean, elkarren artean gurutzatzen dira. Atal honetako hurrengo puntuetan aipatuko ditugu: euskara Administrazioako lanpostuetan, euskara irakaskuntzan edo euskararen inposaketa edo inposaketarik eza.

Egungo araudiak Administrazioarekiko harremanetan herritarren hizkuntza eskubide batzuk dagoeneko jasotzen dituela albo batera utzita, parte-hartzaileek gaiari buruzko jarrera ezberdinak azaldu dituzte. Edozein kasutan, esan behar da iritziak nahiko pertsonalak izan direla eta bai euskaldunen artean bai erdaldunen artean ere ikuspegi desberdinak agertu direla; eta, beraz, ez dela partaideen hizkuntzaren arabera bereizitako bloke nabarmenik gertatu.

Jarrera mota batek Administrazioaren erantzukizunak azpimarratzen ditu:

“Gizartearen parte bat sentitzen da despreziatua edo marginatua bere herrian bertan, eta hor erantzukizuna Administrazioek daukate. Uste dut instituzioek arduraz eta erantzukizunaz jokatu behar dutela, injustiziak konpontzen”.

Beste partaide bat ere bat dator aurrekoarekin:

“Behar dut eta nahi dut euskaraz egin diezadaten Administrazioa joaten naizenean, esan gabe ‘espera ezazu ordu bat atenditu behar zaituena gosaltzen dagoelako’ edo ‘bihar atendituko zaitugu’, edo modu txarrean begiratu gabe. Eta beharrezko neurria



bezala ikusten dut Osasunbidean euskaraz atenditu ahal izatea, sentimenduak egoten dira pil-pilean eta nire komunikazioa ez da berdina euskaraz edo gazteleraz”.

Administrazioaren erantzunari buruzko ikuspegi desberdina duten euskaldunak ere izan dira. Hala, parte-hartzaile batek Administrazioaren eta gizartearen arteko bereizketa egin zuen eta nahiago zuen gizartean zentratu, jendearen jarreretan, alegia:

“Nik bi maila bereizten ditut, Administrazioa eta jendea. Administrazioari dagokionez, nik uste hor keja asko aurkezten ari garela, baina nik hori alde batera utzi nahiko nuke. Niri gehien interesatzen zaidana da jendearen jarrera”.

Beste euskaldun batek ere Administrazioarekiko beharrak erlatibizatu egin zituen: “Nik, pertsonalki, ez dut Administrazioarekin euskaraz hitz egiteko behar handirik. Zergatik? Nire giro euskalduna beste modu batean egiten dudalako”.

Beste parte-hartzaile batek honako hau gehitu zuen:

“Nik pentsatzen dut momentu honetan funtzionario guztiei ere erantzukizuna edo, ezarriko balitzaie euskaraz jakiteko, horrek ez lukeela automatikoki aldatuko euskararen egoera soziolinguistikoa. Hau da, betiere kontuan hartu behar dugulako gainera funtzionarioekin ez garela egunero egoten”.

Beste jarrera mota batetik abiatuta, honela zioen iritzi desberdina zuen beste partaide batek:

“Ni ez nator bat zurekin. Entzuten ari naizen zenbait gauza kostatzen zaizkit... Komunitateko eremu desberdinetan ikustea eta zer jende mota bizi den eremu horietan ikustea. Nafarroa osoa, Tuter, Cortes... esaten da... Horren arabera, hipotetikoki, Cortesera joaten banaiz elebiduna izanik eta euskaraz moldatu nahi badut Cortesen, Administrazioak euskaraz erantzun beharko lidake, eta hori pixka bat kostatu egiten zait...” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Desadostasun horren ildo beretik, honela adierazi zuen beste batek: “Erriberako nire herrian euskara koofiziala izan behar dela esatea astakeria iruditzen zait” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Irtenbide moduan, desadostasun horiek direla eta, eztabaida alor praktikora eramatea proposatu da:

“Nola eraman praktikara Administrazioak herritarren hizkuntza beharrei eta nahiei eman beharreko erantzuna, benetako beharra neurtuta eta bidezko metodoarekin erantzunda? Dirurik ez dagoenean eta zerbitzuei lehentasuna eman behar zaienean, noraino ailegatzen gara? Existitzen ez den hoberena bilatu behar da” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Horren antzeko ildotik, euskaldun batek epekin eta lehentasunekin lan egiteko beharra hartu zuen kontuan: “Sentitzen dut kudeaketa politikoaren mailan oso zaila dela. Igual nahi dugun guztia ezin dugu egin, eta priorizazio batzuk jarri behar dira”.

Halaber, “Administrazioan herritarren hizkuntza beharrei diskriminaziorik gabe erantzuten ahalegintzea” ideiatik abiatuta, partaide batek hau adierazi zuen: “Noraino da eztabaidatu beharrekoa. Sustapena bai, eta non jarriko dugun muga? Iraupena, zenbateko epean txertatuko ditugu neurriak?” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Azkenik, talde batean egindako galdera bat aipatu behar da, esanguratsua delako: “Haute-man al duzue desoreka erakusten duten euskarari buruzko beharrik, edo erantzunik gabeko benetako beharrik, horiei ekiteko? Beste gauza bat da nola eginen genukeen urrats bat haratago, nola hedatzen ahal dugun” [gaztelaniaz jatorrizkoa]. Taldean inork ez zion galdera horri erantzun, baina argi dago proiektu guztia hartu ahal izanzen litzatekeela erantzun orokortzat.

#### 2.4.2 “NOLA LOTU BEHAR DA EUSKARA LANAREKIN ETA EGINKIZUN PUBLIKOAREKIN?” (HASIERAKO DESADOSTASUN HANDITIK, PIXKANAKAKO HURBILKETARA, ZENBAIT IRIZPIDETAN OINARRITUTA, HALA NOLA: HERRITARREKIKO KONTAKTUA ETA LANAREN PLANIFIKAZIO ARDURATSUA)

Euskarak lan munduan duen presentzia eta, bereziki, Administrazioetako lanpostuetan duena oso gai eztabaidatua izan da parte-hartzaileen artean eta gizarte zabalean ere hala da. Kontuan izan behar da, gainera, proiektuaren saioak gauzatu ziren garaian (2017ko apirila eta maiatza) lanpostuetako euskarari buruzko eztabaida soziala pil-pilean zegoela, Nafarroako Administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretuaren<sup>28</sup> proiektua zela eta. Dekretu horren bitartez arautzen da, besteak beste, ikerketa honekin zerikusi zuzena duen honako gai hau: “Euskara nahitaez jakitea eta euskara baloratzea, lanpostuetan sartzeko eta lanpostuak betetzeko” (III. Kapitulua).

Gai honen eztabaidak bilakaera berezia izan du proiektuko parte-hartzaileen artean, eztabaidek aurrera egin ahala irtenbide izaten ahal diren hausnarketak edo proposamenak agertu baitira, ondoren ere iraun duten hasierako jarrera askorekin batera.

Taldeetako batean, honela laburbildu dute izandako eztabaida:

“Euskarak lan-munduan duen presentziari dagokionez adostasuna dago desadostasun eta gatazka sozial handia sortzen duen eremua dela esatean; izan ere, betebeharrak gisa hartuta, badirudi Administrazioaren zenbait postutan ezagutza profesionalaren gainetik dagoela. Euskara eta lana lotzen dituen gaiak kontu eta adostasun handiagoa eskatzen du” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Horrez gain, gogora ekarri behar da EAEn ere “zenbaitek desiragarritzat jotzen dutela euskararen eta lanpostuen arteko lotura eta beste batzuek inposaketatzat hartzen dutela” eta hizkuntza politikako gairik polemikoenetako bat dela gizartean, “1.5 Ikerketa soziolinguistikoen aurrekariak” atalean jasotako EAEn egindako euskararen gaineko oinarrizko diskurtsoen ikerketan (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016) adierazi bezala.

Puntu honetako edukia bi ataletan emanen da: (i) oinarrizko eztabaida, eta (ii) irtenbide izaten ahal diren hausnarketak.

#### *(i) Oinarrizko eztabaida: “Euskara lanarekin eta eginkizun publikoarekin lotzea oso gai gatazkatsua da, dinamita da!”*

“Euskara lanarekin eta eginkizun publikoarekin lotzea oso gai gatazkatsua da, dinamita da!” esan du batek; eta beste batek ildo beretik hau gehitu du: “Euskara eta lana lotzen baditugu, gatazka seguru! Gai horrekin, arretaz eta tentuz jokatu behar da”. “Lanpostuen gaiak euskararen aurka egin du askotan” dio pertsona batek hausnarketa gisa [gaztelaniaz jatorrizkoa].

28 Nafarroako Gobernuak azkenik onetsi du *Foru Dekretua*, eta *Nafarroako Aldizkari Ofizialaren* 231. zenbakian, 2017ko azaroaren 30koan, argitaratua dago. Online: <https://goo.gl/zk7JzW>



Eztabaidetan agertutako jarrerak elkarren artean nahiko desberdinak diren planteamenduen artean dauden arren, ziur asko biek egin dute ahalegina muturretatik urruntzeko eta errealtate sozialera egokitzeko.

Administrazioko kontratazio berriak langile euskaldunenak izatea da funtsezko planteamenduetako bat:

“Administrazioak ez ditu funtzionario guztiak euskaldunduko hemendik 30 urtera segur aski; baina hasi behar du neurriak hartzen, hartzen dituen berriak euskaldunak hartzen, adibidez”.

Batzuek planteatzen dute funtzionarioek herritar guztiei, euskaldunei barne, zerbitzua eman ahal izateko kontratazio berrietan euskaraz dakiten langileak hartu behar direla, eta horren alde dagoen parte-hartzaile batek honela argudiatu du: “Administrazioan lan egitea ez da populazio guztiaren eskubidea”.

Beste planteamendu desberdin batek proposatzen du Administrazioan bereiztea herritarrekin zuzeneko harremana duten lanpostuak eta herritarrekin harremanik ez dutenak. Zuzeneko harremana dutenetan, normala izanen litzateke euskaraz jakitea eskatzea:

“Gaur egun euskararen beharra egoten ahal da eginkizun publikoetara, lanpostuetara, heltzeko; euskara jakiteari lehentasuna ematen ari zaio. Batzuetan, jakina, indarrean dagoen araudiari jarraikiz, uste dut zenbait postutan beharrezkoa dela, herritarrekin zuzeneko harremana dutenetan, erabiltzaileak Administrazioarekin euskaraz aritzeko hizkuntza eskubideaz baliatzen ahal direlako; nire ustez, postu horietan beharrezkoa da” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Zuzeneko harremanik ez dutenetan, ordea, ez litzateke euskara eskatu behar.

“Lanpostu guztietan, oro har, (lorezaina...) saritzen ari da gehigarri modura ezagutza hori baldin baduzu. Mesede eskasa ari dira egiten herritarrekin zuzeneko kontakturik ez duten lanpostuetan euskara eskatuta edo sarituta. Ni ez nago horrela saritzearen alde” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Horren antzeko ildotik, pertsona batek erreferentzia kritikoa egin zuen hizkuntza profilek bere sektoreko (irakaskuntzan) lanpostuetan dituzten ondorioen harira:

“Nik lan egiten dudan ikastetxean, esate baterako, datorren urteko zuzendaritza talde osoa gipuzkoarra da. Nafarroak ezin du erantzun, jenderik ez duelako hizkuntza profil jakinetarako prestatuta, eta [euskaraz ez dakiten irakasleek] ikusten dute ‘langileak inportatzen ari direla, eta nik ezin dut lanposturik topatu nire lurraldean bertan’” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Euskara ikasteko nahiaren eta lanpostu bat lortzeko euskara jakin behararen arteko bereizketa egiten zuen pertsonaren ekarpena ere jasotzen da: “Herritarrek zer nahi eta desio dituzte euskarari dagokionez. Zure seme-alabak euskara ikastea nahi duzu? Bai, noski. Zure seme-alabak lanpostu bat lortzeko euskara ikasi behar izatea nahi duzu? Ezta pentsatu ere!”.

Atal honekin bukatzeko, partaide batek beste ikuspegi bat azaldu du, seme-alabek euskara ikastea eta lan aukerak bereizten dituenak:



“Seme-alabak euskaraz ikastera bidaltzen ditugunok ez dugu aukera hori egiten izanen dituzten lan aukerengatik, euskaraz jakiteak aberastu egiten dituelako baizik. Ez dugu sortu honelako diskurtso bat: ‘Administrazioan “ez dakit zer” lortu behar dutelako, bidaliko ditugu euskaraz ikastera’. Uste dut alderantziz dela, diskurtso hori beste alderdiak sortu duela, alegia” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

*(ii) Irtenbide izaten ahal diren hausnarketak: “Herritarrekiko kontaktua” eta “lanaren planifikazio arduratsua”*

Proiektuko parte-hartzaileek ahalegina egin dute irtenbide izaten ahal diren hausnarketak egiteko, euskararen eta lanpostuen arteko loturari buruzko gatazkasozialaren mailak behera egin dezan. Oro har, askok proposatzen dute “euskara ez lotzea enplegurako edo lanerako abantailekin” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Hausnarketarako bide bat izan da jabetzea elkarren artean bateragarriak izan behar duten bi eskubide daudela: “Herritarrek bi eskubide eskatzen dizkiote Administrazioari aldi berean: euskara eta lana aukera berdintasunean” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Honela esan du batek: “Izugarri garrantzitsuak diren bi eskubide horien arteko talka saihesteko modu bakarra xehetasunera jotzea da, postuz postu, xehetasunetik xehetasunera. Ele biko ibilbideak. Hor, arreta handiz jokatu behar da, aurrera egindako urrats bakoitzak bi atzera ekartzen ahal dituelako, iritzi publikoan sentsazio bat sortzen delako. Oso azterketa teknikoa da, ia milimetrikoa” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Adostasuna egoten ahal da oinarrizko irizpide batean, hau da, publikoarekin zuzeneko harremana duten lanpostuetan euskara eskatzean: “Zuek onartzen duzue euskara eskatzea herritarrekin kontaktua duten postuetan. Hori kontsentsurako aukera bat da”. “Agian adostasunetik uste baino gertuago gaude: herritarrekin kontaktua”, gehitu du beste batek [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Eztabaidagaia lan arloko gaitzat hartzea izan da landu duten antzeko beste bide bat, ez hartzea gai orokortzat:

“–Azkenean, euskararen inposaketa hori ia puntu bakarrera mugatzen da, oposaketetara, euskara eskakizuna izanen ote den ala ez. Orduan, lan arloarekin lotutako gaia da, ez gai kulturala edo orokorra. Jar dezagun arreta hor, agian, mugatuz gero konponduko dugu eta. –Jakina! Arazoa mugatuta errazagoa da horri heltzea” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Horrela, bai batzuk bai besteak ideia berera ailegatu dira, hau da, lanpostuen planifikazioa ardurarekin jorratzea: “Planifikazioa. Lanpostuen gaia oso konplexua da. Ongi asmatzea zer lanpostutan bai eta zer lanpostutan ez, motz edo luze gelditu gabe. Nire ustez, euskarari planifikazioarekin eta modu teknikoan heltzeak adostasun sozialak ekarriko lituzke” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Beste partaide batek ere proposatu du planifikazioaren ideia: “Erdietsi nahi dugu euskaraz atenditu ahal izatea Administrazioan eta Osasunbidean eta beste hainbat arlotan? Ba, gero maila praktikoan, plangintzen bidez joanen gara neurriak hartzen”.

Une batean, partaide batek eztabaida pixkanaka argitzen ari zela sentitzen zuen eta, aldi berean, sintesirako elementuak aurreratu zituen:

“Ados nago planifikazioa egotearekin. Batzuek esan duzue eskaerari erantzun behar zaiola eta beste batzuek, eskaerari erantzuteaz gain, eskubideei ere erantzun behar zaiela. Ni biekin ados nago. Oso interesgarria iruditzen zait gai hauei buruz hitz egin ahal izatea; pixkanaka argituz doaz. Hizkuntza horren ezagutza baloratu egin behar da. Adibidez: ‘Nire bilobak euskara ikasi du, aurkeztu da, bi puntu eman dizkiote eta plaza lortu du’” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Prozesua nolakoa izaten ahalko zen irudikatzen jarraitzen dute parte-hartzaileek: “Arreta euskaraz jaso nahi duenak horretarako aukera izan dezala. Adostasunik ba al dago jakitearen derrigortasuna noraino ailegatzea nahi dugun, lanpostu baterako puntuazioa, nola arautu behar dugun...? Alor guztietan eta profil guztietan egon daitezela arreta euskaraz ematen ahal duten langileak. Zenbat? Departamentu bakoitzak ikusiko du” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Hori guztia eskaerari erantzute aldera planteatu da, eskaerak gora egin dezan eta sustapenaren helburua bete dadin, denek leialtasun handiarekin jokatura betiere. “Eskaerari erantzutea handituz joan dadin. Horrek eskaera handituko du eta, denborarekin, sustapenaren helburua lortuko da. Urrats seguruak egitea. Joko arau zintzoak denen aldetik. Eskaera %50ekoa bada, %50 eskaintzea; baina eskaerarik ez badago, ez eskaintzea” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

#### 2.4.3 BA AL DAGO “EUSKARAREN INPOSAKETA”RIK?

Proiektuko parte-hartzaileak jabetuta daude gizartean dagoen *inposizio* sententzioaz: “Kontuz, gizartean, inposizio sententzio handia dago! Jende askok inposizio gisa bizi du. Herritarren artean zerbait horrela hautematen denean, errealitatea balitz bezala bizitzen da” [gaztelaniaz jatorrizkoa]. Funtsean, bat datoz ideia honetan: euskara sustatzeko, askatasunean oinarritu behar genuke eta ez inposizioan.

Hala eta guztiz ere, honetan ez dira ados jarri: aipatutako inposizio sententzioak arrazoi errealak ditu ala ez? Batzuek planteatu dute ez dagoela oinarri errealik Nafarroako gizartean euskararen inposizioa badagoela esateko eta beste batzuek, aldiz, esaten dute arrazoiak badirela euskararen inposizioa badagoela defendatzeko, nahiz eta nagusiki erabili duten terminoa obligazioa izan. Bi alderdietako arrazoibideak aurkezten dira, baita bi alderdien tokian jarri nahi izan duten zenbait parte-hartzailearen ere.

Hona lehenengo jarrera defendatzen dutenen adibideak, hau da, ez dagoela oinarri errealik Nafarroako gizartean euskararen inposizioa badagoela defendatzeko:

- “Euskaraz ez dakiten gainerako herritarrei nik ez diet deus ere eskatuko. Nik auzoari ez diot ezer eskatzen, eta erdaraz esango diot”.
- “Nik ez dut inor bortxatu euskaraz ikastera, baina ni bai bortxatu naute erdaraz hitz egitera”.
- “Ezin gara inposizioaz mintzatu aukerak zabaltzen ari direnean. Ikus dezagun errealitatea den bezalakoa” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Ez dago inposiziorik. Neurriak aztertu eta ikusi behar da ez dagoela inposiziorik. Mila aldiz esandako gezurrak inposizio irudia sortzen du” [gaztelaniaz jatorrizkoa].



- “Azken bi urteetan egindako aldaketak oso txikiak iruditzen zaizkit, eta inposizioaz hitz egiteak... kezkatu egiten nau” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Hona bigarren jarrera defendatzen dutenen adibideak. Alegia, oinarri errealak badaudela Nafarroako gizartean euskararen inposizioa (edo obligazioa) badagoela defendatzeko:

- “Euskara eskatzea edo saritzea euskaraz gaitzera behartzeko modu bat da seme-alabek Administrazioan lan egitea nahi baduzu, bai baitakizu etorkizunean gehiago sarituko dela” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Iruditzen zait euskararen kontrako jende askok dioela puf!, hori egiten uzten badiet, hemendik 15 urtera, zer betebeharrak izanen ditut edo izanen dituzte nire seme-alabek etorkizunean? Nik uste dut jendearen aburuz obligazioek denboran zehar izaten ahal duten hedapena dela arazoa” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Oro har, ez litzateke arazorik egonen hirian euskararekin, Haur Eskolen antzeko gaiak inposatzen direnean izan ezik” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Ikusten ahal den bezala, kasu gehienetan, Administrazio lanpostuei egiten diete erreferentzia, uste baitute plaza lortzeko aukerak izan nahi dituztenek euskaraz jakin behar dutela.

Batzuek, inposizio edo obligazio kasu zehatzei erreferentzia egin gabe, askatasunaren garrantzia azpimarratzen dute bi hizkuntzei dagokienez, edo bestelako ñabardurak gehitzen dituzte; hona horrelako argudio batzuk:

- “–Inposizioak saihestea, joan den egunean azpimarratu zen eta gaur ere errepikatu da. –Borondatezkotasun kontzeptua. –Horixe” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “–Askatasunetik abiatuta. Euskaraz hitz egin nahi duenak hitz egin dezala. –Bai. Hori adostu zen lehengo egunean” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Libreak gara bakoitzak nahi ditugun identitateak, hizkuntzak, estetikak aukeratzeko”.
- “Gauzak ez dira inposatu behar. Aukerak eman behar dira. Nafarroa den bezalakoa da, askotarikoa eta plurala. Bi hizkuntzak gureak dira eta aldi berean bizi eta bizikide izan behar dute, baina inposaketarik gabe” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Denek normaltasunez ikustea, positibotzat hartzea, inori ez inposatzea” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- Inposizioa bi alderdiek sentituko lukete, ez batek bakarrik: “Jende askok honela dio: ‘Aurka egin behar dut, dena inposizioa delako, euskara inposatuko didate, edo gaztelania inposatuko didate’. Oso zaila da adostasunetara ailegatzea horrela” [gaztelaniaz jatorrizkoa].
- “Politika guztiek dute, segur aski, inposizio ukitu bat, Zirkulazio Kodeak... Galdera da gizartea zenbateko inposizioa onartzeko prest dagoen, gizartea noraino sentitzen den eroso inposatzen zaizkion gauzekin. Jendeak eroso sentitzeko, sentitu behar du hortik aurrera pauso bat lortuko duela. Bestela, bai, sentituko du inposatzen zaiona bere borondatearen aurka doala. Kasu horietan, ez nuke hitz egingen legez inposizio gisa, arau gisa baizik” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

#### 2.4.4 “BELAUNALDI BERRI GUZTIEK EUSKARA IZAN DEZATELA ESKOLA-CURRICULUMEAN?”

Administrazioak Nafarroa osoko eskola-curriculumean euskara jasotzea eskatu dute proiektuko zenbait parte-hartzailek; izan ere, horren inguruan argudiatu dute nafar guztiek euskaraz jakitea lortuko balitz hizkuntza askatasuna egonen litzatekeela, denak izanen bailirateke aske hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko. Eskaera horrek oihartzun positiboa izan du zenbait parte-hartzailearen artean, baina beste batzuk ez dira horrekin bat etorri. Gai horri buruz, ikuspegi esplizituki edo inplizituki desberdinak adierazi dituzte partaideek, eta, hortaz, desadostasunen atal honetan aurkezten da.

Horren harira, hau planteatu du partaide batek:

“Neurria, aspaldian hartuta behar luke nafartar guztiok euskara ikasteko aukera, eskolan, horrela guztiok jakinen genuke eta horrela, beharbada, berdintasuna izanen genuke aukeratzeko zein hizkuntzatan aritu nahi dugun. Uste dut nafartar guztiek euskara jakiteko berme hori eskaini beharko lukeela Nafarroako Administrazioak”.

Beste batek honela galdetu du: “Nola ziurtatzen diegu euskararen irakaskuntza belaunaldi berriei, gaur egun ziurtatuta ez dagoena?”.

Beste batzuek euskara curriculumean txertatzeko proposamenarekin zehaztu dute: “-Niri ongi iruditzen zait euskara curriculumean agertzea. -Bai. Belaunaldi berri guztiek euskara eskola-curriculumean izatea” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

Proposamen horiek, adierazi den bezala, oihartzuna izateaz gain, galderak ere sortu dituzte: “-Barkatu, zer esan nahi duzu? [gaztelaniaz jatorrizkoa] -Bai, Nafarroa guztian”.

Eta erabateko desadostasuna ere aurkitu dute: “Ni ez nator bat. Euskara normaltasun handiagoarekin planteatu behar da” [gaztelaniaz jatorrizkoa]; “Erriberako nire herriaz galde egin didazue. Alkateak (UPNkoa) kontsulta egin zuen herrian, euskaraz zenbatek ikasi nahi zuten jakiteko eta bi lagun atera ziren. Ez ona, ez txarra. Hala izan zen, besterik ez” [gaztelaniaz jatorrizkoa].

#### 2.4.5 DESADOSTASUNAK ERAGIN DITUZTEN BESTE PUNTU BATZUK

Adierazitakoez gain, izan dira beste puntu batzuk parte-hartzaileen artean desadostasun nabarmenak eragin dituztenak. Horietako batzuk zerrendatuko dira:

- Euskarari buruzko *Foru Legearen* balorazioa: tresna lagungarria izan al da? Ongi eraman al du denboraren joana? Baliagarriak al dira lege horren printzipioak? Zonifikazioa?
- Euskara aitortzeko eta sustatzeko oinarrizko printzipioak edo balioak: garrantzitsuak dira ala interes praktikorik gabeko “hitz politikak” dira?
- Ba al dira pertsonak, euskaldunak zein erdaldunak, betiko diskurtsoei eusten dietenak?
- *Hizkuntza eskubideei* buruzko diskurtsoaren egokitasuna edo desegokitasuna.





**3.** IKERKETAREN  
ONDORIOAK ETA  
AURRERA BEGIRAKO  
EZTABAIDA





## 3. Ikerketaren ondorioak eta aurrera begirako eztabaida

Honako hau da “Ikerketaren ondorioak eta eztabaida” atal honetan dabilen oinarrizko galdera: etorkizunean, ikerketa honen analisiak erakutsi dituen adostasunak finkatu eta desadostasunak desaktibatu ahal izanen lirakeen, eta zer egin behar litzatekeen horretarako. Jakina da hori hizkuntza politiken aktoreek (pertsonek zein erakundeak) eta herritar guztiek oro har izango dituzten aukera eta portaeren arabera izango dela, etorkizuneko baldintza sozialekin batera (ikus 1.4 eta 3.3 atalak).

Hori guztia jorratzeko, ikerketaren ondorioak eta eztabaida, eta haien inplikazioak etorkizunari begira, honako sei puntu hauetan laburbildu dira:

- 3.1** Helburuen eta hipotesiaren betetze maila.
- 3.2** “Sustapena + borondatezkotasuna” adostasuna, bi ardatz kontzeptualetan kokatuta.
- 3.3** Ikerketaren emaitzen eta analisisien interpretazioa eta orokortzea.
- 3.4** Euskarari buruzko diskurtsoak: ikerketan sortutako eta Nafarroako gizartean aurreko garaian identifikatutako arteko alderaketa.
- 3.5** Ikerketaren erabilera praktikoa hizkuntza eragileentzat.
- 3.6** Etorkizuneko ikerketei buruz.

### 3.1 Helburuen eta hipotesiaren betetze maila

Helburuen eta hipotesiaren betetze maila *oso handia* izan da.


Helburuen betetze maila oso handiari dagokionez, arrazoia da, “2 Analisiaren emaitzak” atalean ikus den bezala, azterketa nafar gizarteko euskarari buruzko adostasun eta desadostasunen oinarri diskurtsiboak argitzeko gai izan dela; eta, halaber, gai izan dela ere Nafarroako herritarrek euskararen inguruan dituzten askotariko nahie eta beharrei erantzuteko gauza izanen diren adostasun berrien proposamenak identifikatzeko, eta euskarari buruzko oinarrizko desadostasunak eta hurbiltzeko aukerak identifikatzeko ere.

Hipotesiaren betetze maila ere oso handia izan da, eta horren arrazoia, “2 Analisiaren emaitzak” atalean ere ikus den bezala, abiapuntuan desberdintasun ideologiko, linguistiko eta bizipenei dagozkienak eta eztabaida sozialen giroa gertatzen badira ere, elkargune plural egoki bat eratuta, azterketan parte hartzen duten pertsonak oinarrizko adostasunen proposamenak identifikatzera iritsi direla, Nafarroako herritarrek euskararen inguruan dituzten askotariko nahi eta beharrak asetzeko modukoak direnak eta euskara babestu eta sustatu behar den ondare bezala hartzen dutenak.

Garrantzitsua da azpimarratzea ikerketan ez dela nabarmendu gizartean hain zabalduta dagoen ideia bat, zeinak esaten baitu euskarari buruz dagoen istilu handia dela-eta adostasunetara heltzea ia ezinezkoa dela. Lanak ebidentzia enpirikoen bidez erakutsi du elkarrizketarako benetako borondatea dagoela eta euskarari buruzko pentsamendu, sentsibilitate edo lehentasun desberdinak dituztenek akordioak lortzen ahal dituztela.

### 3.2 “Sustapena + borondatezkotasuna” adostasuna, bi ardatz kontzeptualetan kokatuta

Badaude ikerketako eztabaida gehienak biltzen dituzten bi ardatz edo marko kontzeptual, eta bi ardatz horiek adostasun edo desadostasun asko egituratzen dituzte, eduki horiek ardatzean zer lekutan kokatzen diren. Euskararen *sustapena-oztopatzea* eta *borondatezkotasuna-inposaketa* dira ardatzak; sustapena eta borondatezkotasuna ideia positibotzat hartu dira talde-dinamiketan, eta oztopatzea eta inposaketa, berriz, negatibotzat (2.2.4 atalean ikusi den bezala, adostasunak aurrera egitekoak dira, ez blokeatzekoak). Bi ardatzak honela irudikatzen ahal dira:



**11. irudia.** Euskararen sustapena-oztopatzea eta borondatezkotasuna-inposaketa ardatz kontzeptualak. (Egilea: Xabier Erize).

Azterketaren errealitatean, adostasuna lortu duten edukiek sustapenaren eta borondatezkotasunaren ezaugarriak biltzen dituzte (euskararen sustapena borondatezkotasunarekin) eta polo horietatik gertu kokatzen dira bakoitzari dagokion ardatzean.

Bestalde, parte-hartzaileek (guztiek edo batzuek) inposiziotik edo oztopatzetik hurbilekotzat hartutako edukiek ez dute adostasunik lortu (= desadostasunak); berdin du euskararen sustapena inposaketarekin (sustapenaren inposaketa borondatezkotasun gabe) izatea, euskara oztopatzea inposaketarekin (oztopatzearen inposaketa) edo euskara oztopatzea borondatezkotasunarekin. Hain zuzen ere, sustapena eta borondatezkotasuna modu argian lotu ez dituzten proposamenetan, beren defendatzaileek, onespren bila, ahalegin berezia egin dute argudiatzeko beren proposamenak ez duela euskararen inposaketarik edo oztoporik biltzen.



Nolanahi ere, gogoan izan behar da inposiziotzat hartzen denari buruzko pertzepzio soziala desberdina dela batzuentzat edo besteentzat, “2.4.3 Ba al dago euskararen inposaketarik?” atalean adierazi bezala.

### 3.3 Ikerketaren emaitzen eta analisisien interpretazioa eta orokortzea

Aldez aurreko azalpena: analisiaren emaitzen zati handi batek, 2. atalean ikusi den moduan, parte-hartzaileen artean lortutako euskarari buruzko oinarritzko adostasunak biltzen ditu. Hala eta guztiz ere, parte-hartzaileek puntu garrantzitsuetan adostasun berriak lortzeak ez du esan nahi adostasun horiek gaur egun existitzen direnik dagoeneko gizartean esplizituki, ezta parte-hartzaileek espresuki bereganatu dituztenik ere aurrera begirako jardueretarako ildo nagusi gisa (ikus 1.1 atala). Horri dagokionez, esaten ahal da adostasun *potentzialak* direla, gizartean gaur egun esplizituki gauzatu gabekoak eta etorkizunean izaten ahal duten gauzatze maila eragileek zein gizarteak berak egiten dituzten aukeren arabera izanen dela.

Aurrekoari jarraikiz, bi mailatan eztabaidatzen ahal da ikerketaren emaitzen eta analisiaren interpretazioari buruz eta horren orokortzeari buruz: (i) azterketa parte-hartzaileen adierazpen gisa interpretatuko balitz, eta (ii) azterketa gizartearen adierazpen gisa interpretatuko balitz. Bi mailek garrantzi handia dute, bai bakoitzak bere aldetik, bai bata bestearekin lotuta. Hemen azalduko direnak ikerketatik sortutako hipotesizat jo behar dira, baina betiere eztabaidagarriak eta geroagoko beste ikerketa berriekin alderatu beharrekoak dira. “1.8.2 Metodologia” atalean adierazi den bezala, errepikagarritasuna da ikerketa honen ezaugarrietako bat, hala nahi duten aztertzaleek errepikatzen ahal baitute.

Ikerketaren emaitzen interpretazioaren inguruan, hiru galdera sortzen dira, eta, lagunarteko hizkeran, honela formulatzen ahal dira:

- 1** Emaitzak erreferente sozialak diren parte-hartzaileen adierazpentzat hartuko balira, galdera hau egin ahal izanen luke norbaitek: “Erreferente sozialak diren pertsona jakin horiek diotena hori dela suposatuz, zer esanen luke gizarteak?”.
- 2** Emaitzak gizartearen adierazpentzat hartuko balira, norbaitek alderantzizko galdera egin ahal izanen luke: “Gizarteak dioena hori dela suposatuz, zer esanen lukete erreferente sozialak diren pertsona jakinek?”.
- 3** Emaitzak parte-hartzaileen beraien adierazpentzat hartuko balira, norbaitek galdera hau egin ahal izanen luke: “Kontuan izanda proiektuko parte-hartzaileek, edozein alderditakoak izanik ere, jardun publikoetan konfrontazio maila nahiko handia adierazi ohi dutela maiz, nola azaltzen ahal da proiektuan horrelako adostasunerako joera izatea eta alor publikoetan, berriz, hain konfrontazio maila handia?”.

Lehenengo galderari (“Erreferente sozialak diren pertsona jakin horiek diotena hori dela suposatuz, zer esanen luke gizarteak?”) dagokionez, hipotesi gertagarria litzateke ikerketa honetako emaitzak aztertutako gizartera ere orokortu ahal izatea, bi arrazoi nagusirengatik.

Lehenengo arrazoa talde-dinamikekin egindako ikerketa kualitatiboaren ezaugarriak dira, “1.8 Parte-hartzaileak eta metodologia” atalean adierazi bezala. Ikerketa honen kasuan, parte-hartzaileen osaketak Nafarroako gizartean dauden profil soziolinguistiko eta sentsibilitate soziopolitiko desberdinen heterogeneotasunaren lagin estrukturala osatzen du, “2.1 Askotariko bizipen pertsonalak euskararen inguruan” atalean egiaztatu ahal izan den moduan, eta arrazoi horregatik uste da gertagarria dela emaitzak aztertutako gizartera orokortzen ahal direla dioen hipotesia.

Bigarren arrazoa da ikerketa honetako emaitzek antzekotasun handia dutela “1.5 Ikerketa soziolinguistikoaren aurrekariak” atalean aipatutako EAEko *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa* (Martínez de Luna, Erize, Akizu, Etxaniz eta Elizagarate, 2016) ikerketa soziolinguistikoaren emaitzekin. Oso esanguratsua da antzeko emaitzak lortu izana metodologiari, eremu geografikoari eta garaiari dagokionez hain desberdinak diren bi azterketetan. Horrek pentsarazten digu ikerketa honetako analisisiek inplikazioak izaten ahal dituztela euskaraz hitz egiten den beste lurralde batzuetan ere.

Bigarren galderari (“Gizarteak dioena hori dela suposatuz, zer esanen lukete erreferente sozialak diren pertsona jakinek?”) dagokionez, erantzuna argia da; izan ere, parte-hartzaileak gizartean erreferenteak diren pertsonak izan dira eta lanaren emaitza pertsona haiek esandakoa da, hain zuzen ere.

Hirugarren galderari (“Nola azaltzen ahal da proiektuan horrelako adostasunerako joera izatea eta alor publikoetan, berriz, hain konfrontazio maila handia”) dagokionez, esaten ahal da proiektua eta bere dinamikak existitu direla, egiazkoak izan direla, eta parte-hartzaileen artean sortutako elkarriketa eta ulermen giroa, eta lortutako adostasunak (desadostasunekin batera), hori guztia, gertatu egin dela. Behin gertatu izanak, ordea, ez du esan nahi gehiagotan gertatuko denik, besteak beste, pertsonak une batean edo bestean egiten dituzten aukerez ari garelako eta, beste maila batean, ez delako gauza bera maila pertsonalean aritzea edo rol publikoak interpretatzea bakoitzaren jatorrizko erakundeak edo alorrak ordezkatzuz. Dena dela, pentsatzen ahal da alderdi guztiek proiektuko elkarganatze dinamiketan bezala jokatu balute (elkar errespetatuta, entzunda, entzuten zaituztela sentituta, arrazoiak zein sentimenduak kontuan hartuta, bestearen lekuan jarrita, adostasuna bilatuta), behin funtzionatu duenak berriro ere beste batzuetan ere funtzionatu ahal izanen lukeela. Bestalde, gogoratu behar da parte-hartzaileek ez dutela inolako konpromisorik hartu aurrera begira, ez beren artean, ez gizartearen aurrean (ikus “1.1 Aurkezpena” atala).

### 3.4 Euskarari buruzko diskurtsoak

Talde-dinamikekin egindako ikerketa kualitatibo batek identifikatu nahi du parte-hartzaileek zer-nolako diskurtsoa edo diskurtsoak sortzen dituzten taldeetako interakzio pertsonalean. Analisiaren bitartez diskurtsoak identifikatu eta gero, ikertzailea alde aurreko beste azterketa batzuetan identifikatutako diskurtsoekin alderatzen ahaleginduko da, baita batzuk kontuan hartuta besteei buruz eztabaidatzen ere.

Azterketa honen kasuan, “1.4.3 Euskarari buruzko diskurtsoak Nafarroan, azterketa aurreko garaiko iturri idatzien arabera” atalean identifikatu diren hiru diskurtsoak erabili dira alderaketa egiteko.

Lehenik eta behin azpimarratu behar da parte-hartzaileek euskarari buruzko oinarrizko diskurtso berri bat adierazi eta partekatu dutela: “Erdaldunen eta euskaldunen arteko errespetua, bi hizkuntzak gureak baitira; eta euskara babestea eta sustatzea”. Diskurtso hori proiektuko elkarganatze dinamiketako interakzio pertsonalean sortu dute, prentsako edo politikako ohiko polarizazio girotik at (ikus “2.2.7 Euskara ez dadila izan jaurtitzeko arma politikaren alorrean” atala). Diskurtsoa berria da, ez baitzegoen alde aurreko azterketetan dokumentatuta, ezta bide informalagoen bitartez identifikatuta ere.

Bidezkoa dirudi pentsatzeak parte-hartzaileek adierazitako oinarrizko diskurtso partekatu horrek Nafarroako gizartean ere presentzia argia izanzen duela, “3.3 Emaizten interpretazioa eta orokortzea” atalean adierazitako arrazoiengatik. Dokumentatuta dago, alabaina, azterketako diskurtso hori EAEko herritarrek partekatutako oinarrizko hizkuntza balioen oso antzekoa dela, lan honetan aipatzen dugun EAEn egindako oinarrizko diskurtsoei buruzko ikerketan jaso den bezala (ikus 1.5 atala).

Bigarrenik, azpimarratzekoa da parte-hartzaileek, beren interakzio pertsonalean, euskarari buruzko diskurtsoak iturri idatzietan identifikatutakoez bestelako moduetan erabili zituztela. Alde horiek azalduko dira hemen:

- “Euskara babestea eta sustatzea, borondatearekin eta gradualtasunarekin” lege diskurtsoak oinarrizko adostasunetarako marko eta katalizatzaile funtzio argia bete du proiektuan, parte-hartzaileek diskurtso hori esplizituki erabili duten ala ez albo batera utzita. Proiektuan izan duen eginkizun nabarmen hori ez dator bat duen aitoren sozial urriarekin, 1.4.3 atalean adierazi bezala.
- “Euskararen normalizazioaren eta eskubideen alde, eta euskara desagertzea nahi dutenen aurka” dioen diskurtso soziala ez dute horrela erabili ikerketako parte-hartzaileek; pentsatzen ahalko zen inplizitua egon dela zenbait mintzalditan, baina ez dute esplizituki erabili.

**30** *Normalizazio* terminoari dagokionez, esanguratsuak dira honako kontsiderazio kritiko hauek:

Hitzak gastatu egiten dira denborarekin. *Normalizazioa* ez da termino unibertsala literatura soziolinguistikokoa, esate baterako, eta, itxuraz argia dirudien arren, nahasteak eragiten ahal ditu. Adibidez, Luis-Jean Calvet (1993, 120. or., 1. oharra) egile frantsesa ez da hori erabiltzearen aldekoa: “Hizkuntzalari katalanek *normalizazio* nozioa erabiltzen dute, baina nik ez, teoriatik (Lluis Aracil-en lanak) ideologiara desbideratu baitute, eta arriskua baitu berekin nolabaiteko dogmatismoa ekartzeko. Normalizazioaren ideiak auresuposatzen du normala zer den badakigula...” (Erize, 2001, 680. or.).

▷ Alde batetik, *normalizazio* terminoa apenas erabili den (euskararen gizarte sustapenerako eragileek oso maiz erabiltzen duten arren)<sup>30</sup>.

▷ Bestetik, *euskararen eskubideak* esamoldea ere ez da erabili, horren ordez “herritarren hizkuntza eskubideak” edo antzekoak erabili dira (komenu da gogoratzea, “1.3 Aztertutako arazoa eta gizartean duen garrantzia” atalean adierazi bezala, lanaren oinarrizko planteamendu bat izan dela pertsonen buruz hitz egiten ahalegintzea, herritarrei buruz, eta ez modu abstraktuan “euskararen beharrei” edo “gaztelaniaren beharrei” buruz).

▷ Azkenik, azterketan, “euskara desagertzea nahi dutenak” esamoldea ere ez da erabili beste solaskideen aurrean.

- Parte-hartzaile euskaldunen edo euskararen aldekoen diskurtso espezifikoak honako hau izan da: “Euskaraz hitz egiten dugun nafarrak izanik, Nafarroako gizartean errespetatuak sentitzea, gainerako herritarrek bezala”.

- “Euskara errespetatzearen alde eta euskararen inposaketa nazionalistaren aurka” dioen diskurtso soziala parte-hartzaile askok erabili dute bere horretan edo oso antzera, bi salbuespenekin: alde batetik, *nazionalista* terminoa gutxiagotan azaldu da, eta, bestetik, testuinguruaren arabera, *inposizio* terminoa *obligazio* terminoarekin (ikus “2.4.3 Ba al dago euskararen inposaketarik?” atala) txandaka erabili dute.
- Esaten ahal da, gainera, parte-hartzaileek dinamiken testuinguruan adierazitako diskurtsoek, oro har, elkarren artean partekatutako eduki gehiago dituztela eta Nafarroako gizartearen aurretik identifikatutako diskurtsoetan baino formulazio arinagoak eta ez hain muturrekoak erabiltzen dituztela.

Hirugarrenik, diskurtso hauen artean adierazitako aldeak azaltzen saiatu beharra dago: (i) ikerketako analisisian identifikatutako diskurtsoak, parte-hartzaileek ahozko interakzio pertsonalean gainerako parte-hartzaileekin erabilitakoak, eta (ii) aurreko hilabetei buruzko analisisian identifikatutako diskurtsoak (ikus 1.4.3 atala), idatzizko iturrietan oinarritutakoak.

Paradoxa txiki bat suertatzen da horretan. Bi analisisietako emaitzak elkarren artean espresuki alderatu izan ez bagenitu, seguru asko horietako bakoitza Nafarroako gizarteak euskarari buruz duen diskurtsoaren isla leialtzat hartuko genuen. Argi dagoenez emaitzak desberdinak direla, alde horien azalpen bat ematen ahalegindu beharko genuke: errealitate sozial desberdinak islatzen al dituzte? Elkar osatzen al dute? Analisi erroneen ondorioz gertatu al dira?

Aurrekoak baztertu gabe, beste azalpen posible bat eman liteke: bi testuinguruen arteko aldea; batetik, taldeek berezkoa duten ahozko interakzio pertsonal (erlatiboki) irekiarentestuingurua, eta, bestetik, idatzizko prentsaren edo politikaren diskurtsoan berezkoa den polarizazio (erlatiboki) itxiaren testuingurua. Oro har, diskurtsoen analisiak idatzizko iturrietan oinarrituta egiten dira edo ahozko interakziozko tekniken iturrietan oinarrituta. Ikerketa honetan gertatu den moduan, iturri batzuekin eta besteekin egindako azterketak emaitza ezberdinetara edo elkarren artean erlatiboki ezberdinak diren ailegatzen ahal dira; hori, hala ere, dakigunaren arabera, ez dugu literaturan deskribatuta topatu.

Esaten ahal da idatzizko iturrien diskurtsoa, prentsarena kasurako, berezko izaera dela-eta *bakarrizketa* gisakoa dela; alderdi bakarraren diskurtsoaren adierazpena izaten da, bere baitan itxiagoa den formatu batekin eta desberdintasunera bideratuagoa; diskurtsoaren barne koherentziari ematen dio lehentasuna eta besteekiko polarizazio ideologikoa nabarmentzen du; eta besteek ere, aldi berean, antzeko formatuetan adierazten dute idatziz beren diskurtsoa. Ez da baztertu behar prentsak eta diskurtso politikoak berezkoa duten estilo hanpatua (ikus 2.2.7 atala) bilatzeak iragazki funtzioa betetzea, kontzienteki edo inkontzienteki, mezu edo diskurtsoerik polarizatuenak nabarmenduz hain polarizatuak ez direnen kaltetan.

Aldiz, beste pertsonetikiko interakzioan eraikitako ahozko diskurtsoek, talde-dinamiketan kasurako, elkarriketarako formatu irekiagoa izaten ahal dute; adostasunera bideratuagoak egoten ahal dira, barne koherentzian itxitako bakarrizketaren estilo gutxiagoarekin eta polarizazio ideologiko txikiagoarekin ere.

Besteak beste, arrazoi praktiko argi bat egonen litzateke: interakzio pertsonalean, zailagoa da bestearekiko polarizazioa nabarmenduko duen bakarriketaren diskurtsoari eustea, baina idatzizko artikulua batean edo mintzaldi politiko bateko atrilean, berriz, errazagoa da.

Bi iturri eta diskurtso motak izaten ahal dira berdin-berdin errealak; testuinguru batzuetako adostasunerako joera besteetako polarizaziorako joera bezain errealak izaten ahal da, baina seguru asko batek eta besteak bereizita ez digute errealitatearen ikuspegi osoa emanen eta, segur aski, biak konbinatu beharko ditugu ikuspegi osatuagoa izateko.

Badirudi beharrezkoa dela euskarari buruzko diskurtso sozialen ikerketa, kualitatibo eta kuantitatibo, gehiago egitea, eta metodologia batzuen eta besteen ondorioei buruz eta izaten ahal dituzten joerei buruz hausnartzen jarraitzea.

### 3.5 Ikerketaren erabilera praktikoa hizkuntza eragileentzat

Ikerketa hau baliagarria izaten ahal da erreferentzia gisa, hizkuntza eragileentzat (Administrazioa, oposizioa, erakunde sozialak eta akademikoak, euskararen egoera sozialean interesa duten pertsonak, gizartea oro har...), etorkizunean gure gizartearen hizkuntza politika eta planifikazioa pentsatzea egokitzen zaienean. Azterketak inplikazio argiak ditu Nafarroan, eta inplikazioak izaten ahal ditu euskaraz hitz egiten den beste lurralde batzuetan ere.

Partaideen artean adostutako oinarrizko balioek —elkarrekiko errespetua, euskararen babesa eta sustapena, gradueltasuna eta borondatezkotasuna— marko bat eskaintzen dute eta euskara beren bizitzetan nahi dutenak (alderdi pribatuan eta sozialean) eta nahi ez dutenak sartu ahal izanen lirateke hor.

Laburbilduz, 1.2 atalean adierazi bezala, euskara babestu eta sustatzeko kausa sozialaren erronka da bidezko interesa duten alderdi desberdinekin elkarrizketa eta elkarlana bideratzea eta herritarren balioekin lerrokatuta jardun eta erresonantzia eta adostasun sozial berriak sor daitezela lortzea. Hori guztia kontuan hartuta, ikerketa honek identifikatutako oinarrizko adostasunetan eta printzipioetan oinarrituta (sustapena + borondatezkotasuna) (3.2 atala) pentsatutako hizkuntza politikak aukerak izanen litzateke erresonantzia zabalak lortzeko herritarren artean. Aldiz, azterketa honetan desadostasunak (euskara oztopatzea, nahiz inposatzea) izan dituzten planteamenduetan oinarrituta, edo bakarrik bidezko interesa duten alderdi batzuen interesei erantzunda, pentsatutako hizkuntza politikak aukera handiak izanen litzateke gizartearen desadostasunak topatzeko eta herritarren artean erresonantzia berririk ez sortzeko.

Azterketako emaitzen erabilgarritasun praktikoari buruzko eztabaida bi puntutan aurkeztuko da:

- Hizkuntza eragileentzako erabilgarritasuna inpaktua eta kostu soziala aintzat hartuta.
- Hizkuntza eragileentzako erabilgarritasuna, beren intuizioaren eta inspirazioaren lagungarri, eta elkarrizketa errealitatean gauzatzeko.

### 3.5.1 HIZKUNTZA ERAGILEENTZAKO ERABILGARRITASUNA INPAKTU ETA KOSTU SOZIALA AINTZAT HARTUTA

Proiektuen inpaktu eta kostuen (sozialak, tekniko-organizatiboak eta monetarioak) analisisia kudeaketarako oinarritzko tresna bat da, eta hizkuntzen kudeaketa sozialeko (edo hizkuntza politikako) proiektuen analisisira ere hedatu ahal izanen litzateke tresna mota hori.

Bi alderdi horiek elkarren artean gurutzatuta, hizkuntzen kudeaketa sozialeko proiektuen honelako inpaktu-kostu matrizea izanen genuke:

|  |                                  | PROIEKTUAREN INPAKTUA   |                 |
|--|----------------------------------|---|-----------------|
|  |                                  | INPAKTU HANDIA  | INPAKTU TXIKIA  |
| <b>PROIEKTUAREN KOSTUA</b><br>(soziala, tekniko-organizatiboa, eta monetarioa) | <b>KOSTU TXIKIA</b><br>(=erraza) | <b>Egin!</b>  | <b>Egin!</b>    |
|  | <b>KOSTU HANDIA</b><br>(=zaila)  | <b>Kostu SOZIAL handia: ???<br/>Ez egin?</b>  | <b>Ez egin!</b> |
|  |                                  | <b>Kostu tekniko-organizatibo edo monetario handia: ???<br/>Komenigarritasuna asko aztertu.</b> |                 |

12. irudia. Hizkuntzen kudeaketa sozialeko proiektuen inpaktu/kostu matrizea. (Egilea: Xabier Erize)

Taulan ikusten ahal den moduan, proiektuen kostuan, kostu soziala (=gatazka sozialaren maila), kostu tekniko-organizatiboa, eta kostu monetarioa bereizten ahal ditugu, eta horietako bakoitza handia edo txikia izaten ahal da. Kostu txikiak inplementatzeko erraztasuna adierazten du, eta kostu handiak zailtasuna. Hizkuntzen kudeaketa sozialaren kasuan, proiektuen kostu soziala izanen da garrantzitsuena seguru asko. Era berean, hizkuntzen kudeaketa sozialeko proiektuen inpaktua ere handia edo txikia izaten ahal da.

Inpaktu handia eta kostu txikia duen proiektuari ekitea oso gomendagarria izanen litzateke **(lauki berdea)**. Inpaktu txikia eta kostu txikia duen proiektuari ere ekitea gomendagarria izanen litzateke **(lauki berdea)**. Inpaktu handia, baina kostu soziala ere handia (=gatazka maila handia) duen proiektua ez litzateke izanen gomendagarria **(lauki gorria)**. Inpaktu handia, baina kostu tekniko-organizatibo edo monetarioa ere handia duen proiektuaren komenigarritasuna asko aztertu beharko litzateke **(lauki horia)**. Inpaktu txikia eta kostu handia duen proiektuari ez ekitea gomendatuko litzateke **(lauki gorria)**.

Egiatzatu ahal den moduan, matrizea oso intuitiboa da eta hizkuntzen kudeaketa sozialeko eragileei intuizioak erraz esanen die ekin nahi duten proiektua taularen zer zatitan edo koloretan kokatzen den: **berdean**, **horian** edo **gorrian**. Oro har, desiragarria litzateke lauki **berdeetan** kokatzen diren proiektuen bila joatea.

Eskuarki, espero behar litzateke ikerketa honetako oinarritzko adostasunetan eta balioetan (sustapena + borondatezkotasuna) oinarritutako egitasmoak matrizearen atal **berdean** kokatzea; horrela, aukera handiak izanen lituzkete herritarrekin erresonantzia berriak lortzeko eta arrakasta soziala erdiesteko.

### 3.5.2 ERABILGARRITASUNA HIZKUNTZA ERAGILEEN INTUIZIOAREN ETA INSPIRAZIOAREN LAGUNGARRI MODUAN, ETA ELKARRIZKETA ERREALITATEAN GAUZATZEKO

Proiektu honetako parte-hartzaileek adostutako printzipio edo irizpideak (sustapena + borondatezkotasuna) hizkuntza politiketan aplikatzea lagungarri izaten ahal da zilegitasun soziala emateko eta euskarari buruzko gatazka maila nabarmen murrizteko. Hori baliagarria izaten ahal da hizkuntza eragileentzat, kontziente izanik alderdi bakoitzak bere helburuak eta egitekoak dituela.

Ildo horretatik, parte-hartzaileek lortutako oinarritzko adostasunek, parte-hartzaileen adierazpentzat zein gizartearen adierazpentzat hartuta (ikus “3.3 Eraitzen interpretazioa eta orokortzea” atala), hainbat funtzio baliagarri betetzen ahal dituzte:

Eragileen *intuiziorako edo “senerako” laguntza funtzioa*, hautemateko zer proiektu edo hizkuntza jarduera egokitzen diren partekatutako printzipioetara eta, beraz, gizartean onartuak izateko dituzten benetako aukerak dituzten, eta hautemateko ere zein ez diren egokitzen printzipio horietara eta izaten ahal diren gatazkatsuak.

*Inspirazio funtzioa*, gizartean euskarari buruzko politikak edo jarduerak lantzean. Politikak eta jarduerak euskaldunek eta erdaldunek partekatutako printzipioetan edo balioetan inspiratuta pentsatzen edo lantzen badira, zilegitasun sozial zabala ematen eta gatazka maila nabarmen murrizten laguntzen ahal dute partekatutako printzipio horiek. Antzeko ideia bat izan zen “1.5 Gaiari buruzko aurrekariak ikerketa soziolinguistikoa” atalean aipatutako EAeko euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketaren ondorio nagusietako bat, eta Nafarroan ikerketa honetan ere indarrez agertzen da.

*“Elkarrizketa errealitatera ekartzeko” funtzioa*. Azterketan agertu da benetako borondatea dagoela euskarari buruzko pentsamendu eta sentsibiltate desberdinak dituztenen arteko elkarrizketarako eta akordioak lortzeko.

Hori dela eta, baliagarria izan liteke eragileek euskarari buruzko gaiari heltzea elkarrizketarako eta desberdinen arteko akordioetara ailegatzeko borondatea badagoela oinarri hartuta. Hasteko, honelako planteamenduak egitea: “Euskarari buruzko gai hau sortu da, ikus dezagun nola adosten dugun modu zabalean, euskaldunentzat zein erdaldunentzat eta euskaratik gertu sentitzen direnentzat zein urrun sentitzen direnentzat egokia izan dadin”.

Honako hau da aipatutako funtzioen ezaugarri oso garrantzitsu bat: horien arabera jokatzeko subjektuaren mende dago, proiektua sustatzen duen erakundearen edo pertsonaren mende, zer alderditakoa den albo batera utzita; horien arabera jokatzeko ez dago hirugarrenen edo besteen jardueren mende.

Idea hori aipagarria iruditzen zaigu norbaitek jartzen ahal dituen “onkeria” eragozpenei aurrea hartzeko; honelako zerbait: “nola saiatuko naiz adostasun ildo hori praktikan jartzen beste alderdiak etsaitasunez erantzunen didala jakinda?”. Proiektuak edo proposamenak azterketa honetan adierazitako oinarrizko adostasunekin eta balioekin bat eginez pentsatzen dituen erakundeak edo pertsonak (Administrazioa, oposizioa, gizarte erakundeak) aukera handiak izango lituzke herritarrekin erresonantzia sozial zabalak lortu eta gizartearen erdiguneko esparruak irabazteko; horrela jokatzeko ez duenak, aldiz, zailtasunak izanen lituzke, segur aski, erresonantzia sozial positibo horiek lortzeko, eta hori norberaren kalterako izan liteke nolabait.

### 3.6 Etorkizuneko ikerketei buruz

Komenigarria litzateke ikerketa honetako emaitza eta analisiak etorkizuneko ikerketekin alderatzea eta Nafarroako gizarteak euskarari buruz dituen askotariko nahi, behar eta adostasunen ezagutzan sakontzea. Horretarako:

- Ikerketa kuantitatiboak ere egin litezke Nafarroako gizarteak euskarari buruz dituen nahien eta beharren inguruan; kualitatiboa izan den azterketa hau osatzera etorriko lirakeelako.
- Ikerketa kualitatiboaren barruan, elkarren artean osagarriak diren bi bide hartzen ahal dira:
  - ▷ Azterketa hau partaide arruntekin egingo lirakekeen beste batzuekin zabaltzea; izan ere, azterketa hau gizartean erreferenteak diren parte-hartzaileekin egin da.
  - ▷ Desberdinen arteko elkargunetan oinarritzen diren ikerketa honen antzeko azterketak egiten jarraitzea. Parte-hartzaile gehienek egindako eskaera izan da hau gainera.

Euskarari buruzko aurrera begirako ikerketetan, bai Nafarroan eta baita euskaraz hitz egiten den beste lurraldeetan ere, azterketa honen ikuspegian sakontzea komenigarria litzateke. Alegia, gizartean dauden sentibiltate guztiak ordezkatzen dituzten pertsonak bildu eta elkarrekintzan jartzea espresuki bilatzea, ez euskararen interesa dutenak soilik, azterketa horiek gizartearen ahalik eta islarik leialenak izan daitezen. Euskarari buruzko lanetan ez da oso ohiko ikuspegia izaten, baina azterketa honetan oso emankorra izan da.

Diskurtso sozialak aztertzerakoan, komenigarria litzateke kontuan hartzea idatzizko iturriak eta ahozko taldekako iturriak emaitza desberdinetara iristen ahal direla, lan honetan ikusten den bezala, eta iturri mota batek ez lukeela bestea ordezkatu behar.







## 4. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK





## 4. Erreferentzia bibliografikoak

### BIBLIOGRAFIA

- Alli, Juan Cruz. (2001). Perfiles institucionales de la lengua vasca en la Comunidad Foral de Navarra. *Euskera*, 46-2, 971-1077. or.
- Alli, Juan Cruz. (2013). Prólogo a un libro sobre el régimen lingüístico de la Comunidad Foral de Navarra, o de cómo se reencarnó el Conde de Romanones. In Miguel Izu, *El régimen lingüístico de la Comunidad Foral de Navarra* (17-36. or.). Donostia-San Sebastián: Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autónomo de Vasconia-Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzekeo Fundazioa
- Alonso, Luis E., Rodríguez, José M. y Requena, Marina. (2014). La imaginación sociológica del cualitativismo crítico español. *Arxius*, 31, 5-9. or.
- Bell, Allan. (2014). *The guidebook to sociolinguistics*. Chichester, West Sussex (UK): Wiley Blackwell.
- Bell, Allan. (2017). Giving voice: A personal essay on the shape of sociolinguistics (Editorial article). *Journal of Sociolinguistics*, 21-5, 587-602. or.
- Blommaert, Jan. (2015). *Dialogues with Ethnography*. S. l.: Tilburg University.  
Online: <https://goo.gl/3xLkMD>
- Bourdieu, Pierre. (1985). *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*. Madril: Akal.
- Cagiao y Conde, Jorge, eta Jiménez-Salcedo, Juan (Eds.). (2015). *Políticas lingüísticas en democracias multilingües: ¿es evitable el conflicto?* Madril: Catarata.
- Calvet, Louis-Jean. (2003). *La sociolinguistique*. Paris: Presses Universitaires de France.
- Conde, Fernando. (2009). *Análisis sociológico del sistema de discursos*. Madril: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Conde, Fernando. (2014). Los órdenes sintáctico, semántico y pragmático en el diseño y en el análisis de las investigaciones cualitativas con grupos de discusión. *Arxius*, 31, 69-84. or.
- Cueto, Carlos, eta De la Cuesta, Marta. (2017, irailaren 20a). La oportunidad de una administración pública responsable. *Corresponsables*. Online: <https://goo.gl/9QFRfU>
- Erize, Xabier. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruña: Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra.

- Erize, Xabier. (1999). *Vascohablantes y castellanohablantes en la historia del euskera de Navarra*. Iruña: Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra.
- Erize, Xabier. (2001). El discurso contrario a la “normalización” de la lengua vasca en Navarra (1997-2002). *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 46(2), 661-682. or.
- Erize, Xabier. (2003, azaroa). *III. Inkesta Soziolinguistikoa eta diskurtso euskaltzalea Nafarroan*. Euskara Kultur Elkargoa Fundazioak antolatutako jardunaldian egin-dako aurkezpena (Iruña, 2003-11-14) (argitaratu gabea).
- Erize, Xabier. (2010). Entrevista con Xabier Erize. *Auzolan. Hoja informativa del Colegio de Sociólogos y Polítólogos de Navarra*, 30, 7-13. or. Online: <https://goo.gl/7BWCcz>
- Erize, Xabier. (2013). *Management*-eko kontzeptuak eta hizkuntza plangintza. *Euskera*, 58-I, 89-146. or.
- Erize, Xabier. (2016a). Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 99, 113-177. or.
- Erize, Xabier. (2016b). Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak. In I. Martínez de Luna, X. Erize eta M. Zalbide, *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)* (13-23. or.). L.g.: Soziolinguistika Klusterra. Online: <https://goo.gl/37t3sd>
- Euskararen Aholku Batzordea. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzaren Aholkariak. (2016). *Eta hemendik aurrera zer?* Vitoria-Gasteiz: Egilea. Online: <https://goo.gl/xgsSo9>
- Eusko Ikaskuntza. (2017). *Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen* (egitasmoa). Online: <https://goo.gl/e24kKZ>
- Eusko Jaurlaritzaren Aholkariak. (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011*. Vitoria-Gasteiz: Egilea. Online: <https://goo.gl/BW4jgd>
- Eusko Jaurlaritzaren Aholkariak. (2013). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa*. L.g.: egilea. Online: <https://goo.gl/kx5joE>
- Eustat. (2016). *16 urte edo gehiagoko biztanleriak euskararen erabilera sustatzeari buruz duen jarrera Euskal Herrian, lurraldeari jarraiki. 1991-2016*. Online: <https://goo.gl/7pUhtE>
- Fairclough, Norman. (2003). *Analysing discourse. Textual analysis for social research*. Londres: Routledge.
- Fasold, Ralph. (1992). *The Sociolinguistics of Society*. Oxford: Blackwell.

- Freeman, R. Edward. (2010). *Strategic management: A stakeholder approach*. Cambridge (UK): Cambridge University Press.
- Global Reporting Initiative. (2011). *Sustainability Reporting Guidelines & NGO Sector Supplement*. L.g.: Egilea. Online: <https://goo.gl/4eHcxE>
- Global Reporting Initiative. (2015). *G4 Sustainability Reporting Guidelines*. Amsterdam: Egilea. Online: <https://goo.gl/XKZMeX>
- Grin, François. (1990). The Economic Approach to Minority Languages. In D. Gorter, et al. (Ed.), *Fourth International Conference on Minority Languages* (153-174. or.). Clevedon: Multilingual Matters. Online: <https://goo.gl/fnKyFp>
- Grin, François. (1999). Economics. In Joshua A. Fishman (Ed.), *Handbook of Language and Ethnic Identity* (9-24. or.). New York: Oxford University Press.
- Grin, François. (2000, azaroa). *Language Planning, Public Policy and the Role of Minority Language Media*. “2nd Multimedia and Minority Languages International Congress”-en aurkeztutako ponentzia, Donostia/San Sebastián. Online: <https://goo.gl/1uRSnW>
- Ibáñez, Jesús. (1992). *Más allá de la sociología. El grupo de discusión: técnica y crítica* (3. ed.). Madril: Siglo XXI.
- Izu, Miguel. (2013). *El régimen lingüístico de la Comunidad Foral de Navarra*. Donostia-San Sebastián: Fundación para el Estudio del derecho Histórico y Autónomo de Vasconia-Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeo Fundazioa.
- Jefatura del Estado. (2001, irailaren 15a). Instrumento de ratificación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, hecha en Estrasburgo el 5 de noviembre de 1992. *BOE*, 222, 34733-34749. or..
- Lakoff, George. (2007). *No pienses en un elefante*. Madrid: Editorial Complutense.
- Leney, Tom, Coles, Mike, Grollman, Philipp eta Vilu, Raivo. (2004). *Scenarios Toolkit*. Luxemburgo: Office for Official Publications of the European Communities.
- Llamazares, Julio. (2015, otsailaren 14a). «Te pueden obligar a todo menos a no recordar» (entrevista a Julio Llamazares). *El País-Babelia*, 2-3. or.
- López Burniol, Juan José. (2017, azaroaren 18a). Verdad y política. *La Vanguardia*. Online: <https://goo.gl/7GZJ7o>
- Maquiavelo, Nicolás. (1983). *El Príncipe*. Bartzelona: Planeta. (Jatorrizkoa, 1513).
- Martínez de Luna, Iñaki, Erize, Xabier, Akizu, Beatriz, Etxaniz, Josune eta Elizagarate, Amaia. (2015). *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa. Eranskinak*. L.g.: Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco. Online: <https://goo.gl/SWHXC9>

- Martínez de Luna, Iñaki, Erize, Xabier, Akizu, Beatriz, Etxaniz, Josune eta Elizagarate, Amaia. (2016). *Euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa / Análisis de los discursos básicos sobre el euskera*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco. Online: <https://goo.gl/C2bEV4>
- Martínez de Luna, Iñaki, Erize, Xabier eta Zalbide, Mikel. (2016). *Euskararen bilakaera soziolinguistikoa (1981-2011)*. L.g.: Soziolinguistika Klusterra. Online: <https://goo.gl/heDgKr>
- Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa-Office Publique de la Langue Basque. (2017). *VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Nafarroako Foru Komunitatea*. Iruña: Egilea. Online: <https://goo.gl/fojcwT>
- Neuman, W. Lawrence. (1997). *Social research methods: qualitative and quantitative approaches* (3. ed.). Needham Heights, MA, EEUU: Allyn & Bacon.
- Ruiz, Jorge. (2017). Collective Production of Discourse: an approach based on the Qualitative School of Madrid. In Barbour, R. S. & Morgan, D. L. (Ed.), *A New Era in Focus Group Research. Challenges, Innovation and Practice* (277-300. or.). Londres: Palgrave Macmillan. Online: <https://goo.gl/phxN7h>
- Snow, David A. y Benford, Robert D. (1988). Ideology, Frame Resonance, and Participant Mobilization. In Klandermans, Bert, Kriesi, Hanspeter, y Tarrow, Sidney (Eds.), *International Social Movement Research* (197-217. or.). Greenwich (CT, EEUU) eta Londres (EB): Jai Press Inc. Online: <https://goo.gl/qnwxKo>
- Spradley, James P. (2016). *The ethnographic interview*. Long Grove, IL, EEUU: Waveland Press (lehen edizioa: 1979).
- Termote, Marc (F. Payeur-en eta N. Thibault-en laguntzarekin). (2011). *Perspectives démolinguistiques du Québec et de la région de Montréal 2006-2056*. L.g.: Gouvernement du Québec.
- van Dijk, Teun A. (2000a). *El discurso como estructura y proceso*. Bartzelona: Gedisa.
- van Dijk, Teun A. (2000b). *El discurso como interacción social*. Bartzelona: Gedisa.
- Vila, Francesc Xavier. (2017). «Cagiao y Conde, Jorge; Jiménez-Salcedo, Juan (Eds.) (2015). *Políticas lingüísticas en democracias multilingües: ¿es evitable el conflicto?* Madrid: Catarata. 304 páginas, ISBN: 978-84-9097-082-9», *Revista de Llingua i Dret, Journal of Language and Law*, 67, 394-400. or. DOI: 10.2436/rld.i67.2017.2931.
- Weber, Max. (1993). *Economía y sociedad* (2. ed. gaztelaniaz). Madril: Fondo de Cultura Económica.



---

## ERABILITAKO ITURRIAK

### EGUNKARIAK:

*Berria*: Nafarroako euskarari buruzko berri edo artikuluz guztiak, Nafarroako pertsonen edota erakundeek egindakoak, lau hilabetez: 2016-12-27tik 2017-04-27ra.

*Diario de Navarra*: Nafarroako euskarari buruzko berri edo artikuluz guztiak, Nafarroako pertsonen edota erakundeek egindakoak, lau hilabetez: 2016-12-27tik 2017-04-27ra.

*Diario de Noticias*: Nafarroako euskarari buruzko berri edo artikuluz guztiak, Nafarroako pertsonen edota erakundeek egindakoak, lau hilabetez: 2016-12-27tik 2017-04-27ra.

### MATERIAL IDATZIAK EDO GRAFIKOAK:

Aleman, Sagrario, Arregi, Mikel, Petriati, Garbiñe y Zapata, Oskar. (2016, maiatzaren 31). *Nafarroan euskara arloan nola eragin du aldaketa politikoak?* (mahai ingurua). Online: <https://goo.gl/5dhRbA>

Anaut, Dabid. (2017, martxoaren 4a). «Ezin gara orain arteko urrats txikiekin konformatu» (elkarrizketa Dabid Anaut-ekin). *Berria*, 3. or.

Arregi, Mikel. (2017, otsailaren 10a). «Euskara zurrunbiloaren erdian egotea kalteko da eskubideen ikuspegitik» (elkarrizketa Mikel Arregi-rekin). *Berria*, 1. eta 4-5. or.

Beloki, Mainer. (2017, martxoaren 15a). EEII: una apuesta multilingüe, pública y de calidad. *Diario de Noticias*, 32. or.

Bilbao, Paul. (2016, abenduaren 27a). «Dinamika bat hasiko dugu Nafarroan, ofizialtasuna eska diezaioten herritarrek udalari» (elkarrizketa Paul Bilbao-rekin). *Berria*, 7. or.

Epaltza, Aingeru. (2017a, otsailaren 14a). Posverdad foral. *Diario de Noticias*, 72. or.

Epaltza, Aingeru. (2017b, apirilaren 11). Malestar y dolor. *Diario de Noticias*, 72. or.

Felones, Román. (2017, apirilaren 6a). Y ahora, la bandera. *Diario de Navarra*, 76. or.

Iriarte, Iñaki. (2017, apirilaren 12a). 'Zirkorrika'. *Diario de Navarra*, 14. or.

Iribarren, Txus. (2017, otsailaren 19a). La zonificación ha muerto: DEP'LFV'. *Diario de Noticias*, 15. or.

Martínez, Koldo. (2017, martxoaren 4a). «Herritarren babesa behar da euskara normaltzeko». *Berria*, 2. or.

- Maya, Enrique. (2017a, martxoaren 30a). Los padres y el euskera. *Diario de Navarra*, 15. or.
- Maya, Enrique. (2017b, apirilaren 27a). Volveremos a Navarra. *Diario de Navarra*, 16. or.
- Olo, Ana. (2017, urtarrilaren 27a). Una lengua para la convivencia. *Diario de Navarra*, 14. or.
- Oroz. (2017, otsailaren 25a). Umore grafikoko banda "Punto final". *Diario de Navarra*, 76. or.
- Osés, Jesús M<sup>a</sup>. (2017, otsailaren 9a). Las lenguas no se pelean. *Diario de Navarra*, 12. or.
- Sanzberro, Begoña, Iriarte, Iñaki, Altuna, Cristina, Olave, Isabel, Aguerrea, Karmele, Vidart, Isabel, ... Lazcoz, Natividad. (2017, apirilaren 6a). Euskaldunes en UPN. *Diario de Noticias*, 29. or.
- Zaldieroa. (2017a, otsailaren 17a). Umore grafikoko banda "De Rerum Natura". *Berria*, 21. or.
- Zaldieroa. (2017b, martxoaren 1a). Umore grafikoko banda "De Rerum Natura". *Berria*, 22. or.

#### LEGEDIA EDO ARAUDIA:

- 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, *Euskarari Buruzkoa*. (1986, abenduaren 17a). *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 154. Online: <https://goo.gl/TfJpXx>
- Ayuntamiento de Pamplona-Iruñeko Udala. (1997). *Ordenantza, Iruñeko Udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen duena*. Online: <https://goo.gl/eiCht2>
- Jefatura del Estado. (2001, irailaren 15a). Instrumento de ratificación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, hecha en Estrasburgo el 5 de noviembre de 1992. *BOE*, 222, 34733-34749. or. (*Gutunaren euskarazko bertsioa* online: <https://goo.gl/sXbPRq>)





## 5. ERANSKINA





## 5. Eranskina

- **I. eranskina.** Parte-hartzaileek egitasmoari eta lan saioei buruz egindako azken balorazio anonimoak (2017-05-19), hitzez hitz transkribatuta.

---

### 1. ERANSKINA. PARTE-HARTZAILEEN AZKEN BALORAZIO ANONIMOAK

(Parte-hartzaileen balorazio anonimoen hitzez hitzeko transkripzioa, Xabier Erizek, proiektuaren zuzendariak, egina) (2017-05-19)

#### Gehien gustatu zaizuna/Lo que más le ha gustado:

- “Zorionak eta mila esker egindako lanarengatik. Oso esperientzia interesgarria eta aberatsa izan da”.
- “En mi grupo estaban todos/as encantados/as”.
- “¡Muy a gusto. Muchas gracias!”
- “Muy a gusto”.
- “Me parece una muy buena iniciativa”.
- “Oso interesgarria Foroaren aukera hori izatea, ezberdinekin elkartzea”.
- “Oso ongi iruditu zitzaidan emaitzen aurrerapena denei saio batean aurkezteko asmoa”.
- “Oso ongi. Bigarren egunean emankorragoa. Aurkezpena ongi”.
- “Oso lan txukuna egin duzue”.
- “El que me hayan dado la oportunidad de participar”.
- “Profesionaltasuna”.
- “Interesante experiencia”.
- “Sentimenduak, ikuspegi hori sartu izana garrantzi handikoa da, ez gelditzea bakarrik maila arrazionalen”.
- “Me ha gustado conocer planteamientos distintos al mío; he disfrutado y me he sorprendido con algunas reflexiones. Creo que esta experiencia personal positiva se trasladará de un modo u otro a mi entorno”.
- “Pertsona, sentimendu, esperientzia eta bizipen anitzak elkartu eta elkar hartzea oso interesgarria helburua lortu edo gutxienez bidea egiteko”.
- “Bertzela pentsatzen dutenekin eztabaidatzeko eta ideiak trukatzeko aukera”.
- “Jende ezberdinekin elkartu eta eztabaidatu lasaitasunez”.
- “Me gustó la pluralidad de los participantes en cuanto a sensibilidad al tema”.

- “Me gusta la metodología del camino hacia el consenso si posible: respetar, escuchar, etc.”.
- “Antolatu izana. Ideia bera oso interesgarria, sentiberatasun batzuetako jendeak bildu baititu”.
- “El crear un foro plural fuera de la dinámica política”.
- “La capacidad de las personas para escuchar y para responder sin agresividad”.
- “Que podamos estar tratando del tema en un momento muy importante para girar el ‘Titanic’ de nuestra sociedad y no choque con el ‘iceberg’”.
- “Ambiente de diálogo libre y de respeto”.
- “El contacto con personas de pensamiento diferente”.
- “Tener la posibilidad de confrontar respetuosamente opiniones en principio discrepantes”.
- “–Comparados con la 1ª sesión, a mí me ha dado la sensación de que estamos más cercanos. –A mí también. –Hay que seguir hablando”.
- “Kontsentsua hurbilago egon daitekeela ikustea, harrituta geratu nintzen, onerako, nire taldean hain jende desberdinak izanda kontsentsua uste nuena baino gertuago egon litekeela ikusita”.
- “Ikuspuntu desberdineko pertsonekin klima konstruktibo batean eztabaidatzea”.
- “Lasaitasunez hitz egitea talde plural batean”.
- “Aniztasuna, jende diferenteei entzun ahal izatea”.
- “Bi hizkuntzak naturaltasun osoz erabiltzeko aukera”.
- “El momento es oportuno para sentar nuevas bases hacia el futuro”.

#### **Gutxien gustatu zaizuna/Lo que menos le ha gustado:**

- “La verdad que no veo nada que no me haya gustado”.
- “En ocasiones los invitados nos disparábamos demasiado”.
- “A veces las discusiones se estancan o quizás se percibe algún personalismo, pero no ha sido la tónica, ni mucho menos”.
- “Denbora gutxi. Ordu eta piko gutxi da. Ni gogoekin geratu naiz”.
- “Estutasuna akordioetara iristeko hain denbora gutxitan”.
- “Konturatu naiz pertsona batzuk –euskaldunak zein erdaldun bakarrak– betiko diskurtsoei etsi dietela, azken 40 urteetan deus gertatu izan ez balitz bezala”.
- “Euskaltzaleen artean betiko topiko asko aurkitu ditut”.
- “Pena euskaldunen eztabaida eskubideen inguruan joan zela”.
- “Ikustea euskaldunen artean ezberdintasun handiak daudela”.
- “Muturreko bizipenak ditugula euskararekiko egiaztatzea, mingarria da eta aurrean dugun bidea latza, luzea ta oztopoz betea ikustea”.



- “Parte hartzaileen artean uste dut hain muturrekoak ez genuela izan behar. Politikari gehiegi”.
- “Poca practicidad en la reflexión. Las propuestas concretas han sido escasas”.
- “Que veníamos sin saber cómo se iba a organizar la tarde”.
- “Cambio de grupo con respecto al día anterior sabiéndome minoritario en los planteamientos”.
- “Resumen del primer día, no se adecuaba con exactitud a los planteamientos de nuestro grupo”.
- “Ordua eta eguna”.

#### **Oharrak eta iradokizunak/Observaciones y sugerencias:**

- “Foroak jarraitu behar du. Hurrengo pausoak finkatzeko eta adosteko”.
- “Creo que el foro debiera continuar, con este u otro formato”.
- “Saio gehiago egin beharko lirateke, oso interesgarriak direlako”.
- “Animaros a seguir con el tema”.
- “Jarraipena, euskara sendotu eta euskararekiko amodioa handitzeko, halako saio gehiago egin beharko dira”.
- “Buscar consensos amplios en la manera de lo posible caminando hacia adelante para sentar nuevas bases que puedan servir para largo”.
- “Holakoak errepikatzea”.
- “Que haya más foros; Que haya jóvenes; Que se transmita este ambiente a la sociedad”.
- “A ver si conseguimos que el euskera no sea arma arrojadiza para otros intereses”.
- “Gehiago egiteko”.
- “Continuar trabajando”.
- “Que se hagan más foros temáticos, ayudaría a mejorar las cosas y a normalizar, falta mucho diálogo”.
- “Claro está siempre que se den unos mínimos de respeto y progreso de uso y enseñanza de la lengua”.
- “¡Cuidado, hay en la sociedad mucha sensación de imposición!”.
- “Nabarmenak dira euskaldunen arteko ezberdintasunak”.
- “Hurrengo batean hurbilxeago diren jende artean egin beharko litzateke. Biribilak poliki-poliki irekitzen joan. Lehenik hurbilekoak, gero iritzi desberdintasun handixeago dutenak integratu, gero hurrengokoak...”.
- “No hacer en viernes tarde si se hacen nuevas reuniones”.
- “Animar a los dinamizadores a controlar más las discusiones, para conseguir más resultados”.

